

+  Debagoieneko udalerrien senidetzeak

Judith Martinez Estradari elkarrizketa



"NIK BIZI IZANDAKOA KONTATU GURA IZAN DUT ETA GUZTIA DA EGIA"

Jose Antonio Altuna 'Txatillo' Arrasateko enpresaburu –JMA– eta alkate ohiak liburu batean jaso ditu bere bizipenak; Esteban Altuna semeak idatzi du 'Jose Antonio Altuna. Conversaciones' liburua. Besteak beste dio Jose Maria Arizmendiarrarekin Arrasateri "loteria tokatu" zitzaioela / 8

Jose Antonio Altuna martitzenean Arrasateko plazan, udaletxea atzean duela.

XABIER URZELAI

Gripearen kontrako txertoaren kanpaina hasita, lau urtera arteko umeeak aukera dute jartzeko / 6

San Migel eta Errosarixo jaietan murgilduta Oñatin, bihar egun handia: Herri Eguna / 28



Jesus Aranzabal angiozartarra hil da, Debagoienak eman duen ziklistarik onena / 33

Elgetako Erresisten plazan ariko da Gari, gaur, bakarka, gitarra eskuan "modu biluzian" / 27

SINADURAK

 IDOIA PEÑAKOBA ETXEBARRIA / 6

 MARIXE RUIZ DE AUSTRI / 11

 IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA / 25

 IRENE PEREZ ZUMALDE / 30

 MIKEL ARREGI ASKASIBAR / 40

VOLKSWAGEN ID4 ELEKTRIKOA



TEKNOLOGIA ETA ETORKIZUNA

Udalaitz

Gipuzkoas etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Zaintza ardatz duen azaroaren 30era begira

Bi hilabete falta dira Euskal Herriko Mugimendu Feministak deitutako greba feminista orokorrerako; bailarako talde feministak lanketa prozesuan dabilta azken hilabeteotan eta datozen asteetarako solasaldi eta asanbladak antolatu dituzte

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE
Euskal Herriko Mugimendu Feministak martxoaren 8an iragarri zuen udazkenean greba feminista orokorra egingo zela, eta ekainean jarri zuen data: azaroak 30. "Guztion ardura den zaintza sistema publiko eta komunitario baten alde" aterako dira kalera bi hilabete barru: "Pribatizazioaren eta merkantilizazioaren aurka, zaintza lanetan eta sektore feminizatuetan baldintza onartezinetan bizigaren emakumeon eskubideen alde, egungo sistema mantentzen dutenei ardura eta erantzukizuna eskatzeko". Prozesuan zehar Herri Akordioa landu dute mugimendu feminista, bestelako eragile sozial eta sindikalen "zaintza eskubide kolektiboaren aldeko" aldarrikapenekin, eta urriaren 7an aurkeztuko dute Hernanin.

Talde feministen lanketak

Orduz geroztik, Debagoieneko mugimendu feministak topaketak eta bestelako ekintzak ari dira antolatzen lanketak egiteko, eta areagotu egin dira azken egunetan. Arrasateko Mugimendu Feminista, esaterako, ekainean 4an hasi zen "zaintza lanen erradiografia eta hurrengo hilabeteetarako erronken definizioa" lantzen. Orduetik saio gehiago egin dituzte, eta zazpi-garrena urriaren 3an egingo dute; oraingoan, topaketa mistoa izango da (ikus. 11. orria). Dena den, oraindik badagoela zer egin diote: "Kontziente gara hau ez dela epe motzeko prozesu bat eta hemendik aurrera ere eztabaidarako eta eraldaketarako espazioak sortzen jarraitu beharko dugula".

Bergarako Martxantera talde feministaren kasuan, hilaren 20an egin zuten azken bilera herrian landu nahi dituzten helburuak adosteko. Emakumeak zaintzan izan duen eta duen



Greba feminista orokorrera begira, Arrasaten egindako ekintza. EHMFF

"ERALDAKETARAKO ESPAZIOAK SORTZEN JARRAITU BEHARKO DUGU"

ARRASATEKO MUGIMENDU FEMINISTA

"ZAINZARI BURUZ HAUSNARTU BEHAR DUGU GIZARTE MODUAN"

BERGARAKO MARTXANTERAK

paperaz mintzatu dira: "Emakumeon esku egon izan da beti zaintza. Emakumeok lan mundura salto egin genuen, eta, ondorioz, etxeko eta kanpoko lanetara dedikatu behar izan gara. Gainera, zaintza beharrak eta zaintzeko moduak asko aldatu dira. Zaintza zerbitzu gehiago daude, eta lan gogorrek nahiz prekarioak direla uste dugu; horren guztiaren inguruan hausnartu behar dugu gizarte moduan. Pertsonak eta lurra zaindu behar ditugu, orain eta etorkizun duin bat izateko".

Datozen egunetako ekintzak

Bergarako Udalak eta herriko eragile feministek Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxarekin elkarlanean, solasaldia antolatu dute gaur. Silvana Pissano (Uruguai), Carolina Medina (Argentina) eta Vansa Fontanellaz (Argentina) ekintzaile feministak izango dira hizlariak (ikus. 20. orria).

Oñatin ere zaintzaren auzia landu eta greba eguna antolatzen ari dira. Urrirako bi bilera informatibo deitu dituzte: urriaren 17an, 18:30ean, eta urriaren 22an, 17:00etan, izango dira Eltzia topagunean. Herritarrei parte hartzeko gonbita egin diete "zaintzaren afera guztion ardura delako".

Atxabaltako Mugimendu Feministak bi asanblada ez-misto egin ditu. Hurrengo mistoa izango da eta urriaren 9an elkartuko dira, 18:00etatik 19:30era, udaletxe zaharrean, grebaren kokapena egin eta herrira begira zer egin zehazteko. Bestalde, zaintzari buruzko dokumentala grabatzen ari direla aurreratu dute, eta azaroaren 22an estreinatuko dute Arkupan.

AP-1eko Lesarriko tunela konpontzeko lanak hasi dituzte

Tunela itxita dago Gasteizerako norantzan, eta beste hodian jarritako bypassarekin bideratu dute trafikoa

I.A.A. BERGARA

Hilaren 22an hasi zituzten AP-1eko Lesarriko tuneleko birgaitze integralerako obrak, eta orduz geroztik bypassa dago jarrita tunelaren Behobia noranzkoko hodian. Pasabidea 2024ko apirilera arte mantenduko dute, eta lanok 19.688.000 euro + BEZeko kostua dute, 24 hilabeteko exekuzio epearekin. Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi du goizeko lehen orduetan auto-ilarak sor daitezkeela 1.200 ibilgailu igarotzen baitira lantokietara joateko.

Bi fasetan egingo dira obrak; une honetan, lehen fasean dihardute lanean. Barruko instalazioak osorik berritzea eta tuneleko bi hodie eustea eta estaldura sendotzea da helburua. Berrikuntza teknikoari dagokionez, luzetarako eta galerietako haizagailuak berrituko dira, baita horien suebaki-uhateak ere. Halaber, egungo argien ordeztu LED teknologiakoak jarriko dira. Bigarrenari 2024ko irailean ekingo zaio; orduan ere, trafikoa bypassetik desbideratuko dute Gasteizerako noranzkoan.

Bilboko kaleak betetzeko deia egin du euskalgintzak

Euskalgintzako norbanakoek eta eragileek azaroaren 4an Bilbon *Oldarraldiaren aurrean. euskararekin bat, euskaraz bat* lemapean egingo den manifestazioan parte hartzeko deia egin diete herritarrei "euskararen aurkako oldarraldiaren aurrean erantzun bateratua emateko" asteon egindako agerraldian. Euskalgintzako kideek espero dute azken

urteetan euskararen alde egin den manifestaziorik jendetsuena izatea. Gaineratu dutenez, hainbat dira euskararen normalizazioaren kontrako epaiak, eta ados ez daudela nabarmendu dute. Era berean, agerraldia aprobetxatu dute tokian toki mobilizazioak egitera deitzeko, uste baitute euskaltzale guztien indarrak behar direla "oldarraldiari hesia jartzeko eta olatu erreazionarioari" aurre egiteko; herri eta auzoetan ere ekimenak antolatzeke eskatu dute.

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA



ESCUELA OFICIAL DE IDIOMAS DE EIBAR

ARRASATEN ALEMANEKO PLAZAK LIBRE A1 ETA A2 MAILAN ARIMAZUBI PLAZAN



Matrikula oraindik zabalik!
On-line IKASGUNEA plataformaren bitartez

IKASI ALEMANA!
IKASTURTE OSOAREN PREZIOA: 72,36€

Informazio gehiago:
Otaola hiribidea 29 EIBAR • eoieibarheo@gmail.com

943 89 92 75 • @eoieibarheo
www.eoieibarheo.hezkuntza.net





Arrasateko mintzalagunak iaz JAMEn. GOIENA

Eman daiteke izena Mintzalagun egitasmoan

Mintzalagun-ek ikasturte berriari ekingo dio, eta Euskaltzaleen Topaguneak bidelagun nahiz bidelari izatera animatu ditu herritarrak; bailaran badira taldeak, eta, parte hartzeko, ekimenaren webgunean edo euskara elkarteetan eman daiteke izena

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE Euskaltzaleen Topagunearen Mintzalagun egitasmoa abian da; parte hartzeko eta *noiznahi, nonahi mintzapoza praktikatze*ko gonbita egin dute beste ikasturte batez. Urrian zehar

ere izen-ematea zabalik egongo da, eta *Mintzalaguna.eus* atarian edo bailarako euskara elkarteetan eman daiteke izena. Duela 30 urte jarri zen martxan ekimena euskara maila ezberdinak dituzten herritarrek el-

karren artean euskaraz berba egiteko, eta dagoeneko 7.700 bidelagun –euskaraz praktikatzen laguntzen duena– eta bidelari –euskara praktikatu nahi duena– baino gehiago elkartzeko dira astero Euskal Herriko txo-

ko ezberdinetan. Gainera, mintzapraktikan aritzeko modu askotarikoak daude; horien adibide dira gurasolaguna, parkelaguna, mendi taldeak, hikalaguna, mintzaboxeoa edota emakume taldea.

Debagoiengan ere Mintzalagun Ibarrean ere badira mintzapraktika taldeak. Bergaran, esaterako, Berriketaren dute, eta hango dinamizatzaile Maitane Arizabaletak zenbait bizipen kontatu ditu: "Badira euskara ez jakitetik, euskaltegian nahiz Mintzalagunen izena eman eta ikasketak euskaraz egitera pasa direnak, edo kanpotik etorri eta mendizale taldeetan parte hartu dutenak". Nerea Zugasti Mintzalaguneko dinamizatzailea da Arrasaten zein Eskoriatzan, eta esan du zenbait prest daudela bidelagun izateko: "Arrasaten hiru emakumek deitu dute esanez bidelagun izan nahi dutela hikalagun taldean. Hika bertako euskalkian dakite eta bertako emakumeen artean nahi dute zabaldu. Aukera horiek aprobetxatu behar ditugu".

Landan Ekin egitasmoa jarri du martxan Landaolak

Landaolak, Gipuzkoako Landa Garapen Elkartearen Federazioak, hainbat erakunde eta eragileren laguntzarekin, Landan Ekin egitasmoa sortu du "Landa ingurunearen dibertsifikazioan eta enplegu sorreran sakontzeko zein lehen sektorean indartzeko helburuarekin". Bi zati ditu ekimenak. Batetik, I. Landa-ekin-tzaile Saria: sei kategoria sarrituko dira, eta bakoitzeko irabazleak 2.500 euro eskuratuko ditu. Gainera, aurkezten direnetatik lau aukeratuko dira, eta *La Caixa Rural Talent* 1.000 euroko saria nahiz 35 orduko formakuntza jasoko dituzte. Urriaren 11ra arte eman daiteke izena, proiektuak landaola@landaola.eus-era bidalita edo Gipuzkoako Landa Garapen Elkarteetako egoitzetan aurkeztuta. Bestetik, *Goizane* ekintzailetza eta ko-sorkuntza gunea sortu dute, lehen sektoreko eta elikadura balio-kateko eragileen elkarlana bultzatzeko. Informazio guztia, Landaola.eus atarian.



Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege Berria

Askoz gehiago ekartzeko eratua

- + Erraztasun gehiago ulertu eta tramitzeko orduan.
- + Laguntza gehiago gehien behar duenari.
- + Babes gehiago, arreta bereziarekin genero indarkeriaren biktimak direnei.
- + Arreta pertsonalizatu gehiago.
- + Jasangarritasun eta eraginkortasun gehiago bere kudeaketan.
- + Gizarte kohesio gehiago.

Zu bezalako pertsoneri zuzendua:

- Pentsiodunak pentsio baxuekin.
- Emakumeak guraso bakarreko familien arduradun.
- Biktimak indarkeria matxista, sexu jazarpena edo terrorismoagatik.
- Desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak.
- Langilea diru-sarrera baxuekin.
- Gazteak bizitza independentearekin une larri batean.

Lanbiden zure laguntza-eskaeran babesten zaitugu.

Informatu hemen:
www.lanbide.eus
945 160 600



Lanbide

ERAKUNDEA
ERAKUNDEA
ERAKUNDEA

Euskerari, eragileari, hiru erakunde



EUSKAL JARDUKARITZA GOB. ERK. VASCO
ERAKUNDEA
ERAKUNDEA DE TRABAJO
ERAKUNDEA

87 urte geroago, "egia osoa" jakitea eskatu dute

Tropa frankistak Arrasaten sartu zireneko beste urtemuga bat izan zuten gogoan martitzenean, Arizmendiarieta plazako monolitoaren aurrean. Ordu hartan hildako debagoiendarren omenez lore eskaintza egin zuten

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE

1936ko irailaren 26an sartu ziren tropa frankistak Arrasaten. 123 debagoiendar hil zituzten. Urtero legez, gertakari hura gogora ekartzeko eta bereziki orduan hildakoak omentzeko, ekitaldi hunkigarria egin zuten Arizmendiarieta plazan.

Urteroko hitzorduari utsiz, musikak, abestiek eta dantzek jantzitako ekitaldiarekin omen du dituzte gerran hildakoak. Haien senideek lore-eskaintza egin zuten haien omenezko monolitoan. "Monolitoan ipintzen duen moduan *Gure gogoan zaudete*. Berdin da zenbat denbora pasatzen den. Senideok eskatzen dugu egia, erreparazioa eta justizia. 87 urte pasa dira, eta ez da halakorik egin. Hortaz, hori eskatu dugu gaur ere. Haien salatzaileek eta hiltzaileek ez zuten eskatu inoiz barkamenik. Eta Justiziak jarraitzen du beste albo batera begiratzeko", esan du Intxorta 1937 Kultura Elkarteko kide Juan Ramon Garaik. "Egia osoa" jakin gura dutela esan zuten, eta horretarako egin beharreko ikerketak egitea eskatu.

Ekimen parlamentarioa

Era berean, martitzeneko omenaldia baliatu zuten berriki aurkeztutako ekimen parlamentarioaren xehetasunak emateko. Euskal Herriko diputatu hautesiei ekimen parlamentario bat sustatzeko dei egin die Intxorta 1937 Kultura Elkartek. 1936ko gerran desagertutako pertsonen dokumentazio guztia Guardia Zibilaren artxiboetan dago. Guk eskatzen duguna da informazio hori Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroan egotea. Are gehiago, senitartekoen esku egotea. Alegia, leku horretatik dokumentazioaren kopia bat bidal diezaieten pertsona zibil desagertuen senideei", azaldu zuten.



Herritarrak lore eskaintza egiten, monolitoan. TXOMIN MADINA

"EUSKO JAURLARITZAK JARRAITZEN DU BESTE ALDE BATERA BEGIRA"

Nazio Batuen Erakundera

Florencia Olazagoitia Cenciaga arrasatearraren kasua Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen Batzordera eraman zuten apirilean. Bost hileko haurdun zegoela erail zuten, eta hamar urteko anaia txikia erreketek eraman zuten. "Bi abokaturen laguntzaz dokumentazio osoa aurkeztu dugu gure amarekin zer gertatu zen jakiteko. Badakigu prozesu oso luzea izango dela, baina egia jakin gura dugu", esan zuen Nati Roak.

'Egiaren topaketak'

Martitzeneko omenaldi ekitaldia irailerako iragarrita zegoen azkena izan zen. *Egiaren Topaketak* delako egitarauaren baitan, hainbat ekitaldi egin dituzte. Torturaren gaia ardatz nagusi duten bi ikus-entzunezko eman dituzte: Jon Mikel Fernandez Elortzaren *Bi arnas*, eta Ander Iriarteren *Karpeta urdinak*, hain justu ere.

Gainera, belaunaldiz belaunaldi oroimena nola transmititu den aztertzeke, gerrako umeak protagonista izan zituen tailer bat egin zuten, Monika Jatok gidatuta. Erresuma Batuko hainbat akademikok, Basque Children elkarteak eta zenbait artistak osatzen duten Belaunaldien Arteko Memoriaren Transmisioaren lantaldearen eskutik egingo dako tailerrak eman ditu fruituak: erakusketa bat. 2024ko irailerako edo urrirako gertu egongo da *Orratz begi* izeneko bilduma. "Egia esan, iraileko topaketek eman dutenarekin pozik gaude. Herritarrek nahiko ondo erantzun dute. Ekitaldi batzuetan beste batzuetan baino jende gehiago egon da", kontatu du Garaik.



Ikerlaneko Rafael Suarez, saria eskuetan duela, IEEEko kide batekin. IKERLAN

Ikerketa artikulua onenaren saria Ikerlanendako, IEEE kongresuan

Bateragarritasun elektromagnetikoari buruzko nazioarteko kongresuan saritu dute lana

M.B.M. ARRASATE

Bateragarritasun elektromagnetikoari buruzko nazioarteko kongresuan (IEEE) Ikerlanek idatzitako artikulua bat saritu dute. Alegia, saritutako lanak teknika berritzailea aurkezten du osagaiak fabrikatzeko erabiltzen diren material ferromagnetikoen propietateak modelatu eta karakterizatzeko, ekipoen arteko akoplamendu elektromagnetikoak prebenitzeko. Euskal zentro teknologikotik adierazi dute "Intel, Sandia, Google, Amazon, Analog Devices eta Nasa multinazionalak gainditu"

dituztela artikulua onenaren sariarekin.

Ondorioak

Ikerlanen arabera, ingeniartzaren eremu bat da bateragarritasun elektromagnetikoa, eta ekipamenduen arteko akoplamendu elektromagnetikoen ondorio negatiboak nola kontrolatu, gutxitu, ezabatu eta prebenitu aztertzen du. Bada, hori gogoan egin dute Ikerlaneko EMC Electromagnetic Compatibility lantaldeko kideek aipamena merezi izan duen artikulua.

Osasunaren auto-kudeaketaren gaineko hitzaldiak urrian

Eneko Landaburu medikuak emango ditu: Arrasateko Kulturaten 3an, eta Bergarako Kartzela Zaharrean 5ean

M.B.M. ARRASATE

Eneko Landaburu (Bilbo, 1953) medikuak bi hitzaldi emango ditu Debagoienera, hurrengo astean, bizi-higienearen ikuspegitik, jendartean osasunaren auto-kudeaketaren inguruko jakintzak zabaltzeko helburuarekin, maila pertsonalean zein maila kolektiboan. Urriaren 3an, Arrasateko Kulturaten egongo da; eta urriaren 5ean, Bergarako Kartzela Zaharrean. Biak ala biak, 18:30ean hasiko dira, eta irekiak dira interesa duten herritar guztiendako.

Ondorioak

Landaburu Argentinan bizi da aspalditxoan, eta urte askoan, Euskal Herrian zein kanpoan, osasunaren auto-kudeaketaren gaineko kultura zabaltzeko makina bat lan egin izan du. Bestek beste, osasungintzako langileak eta pazienteak batzen zituen Sumendi taldearen eraketa.

Udako oporrak aprobetxatuz Euskal Herrian egon da, eta atsedeen-etxe bat zabaldu du. Osasun-eskolak ei dira. Horien gaineko azalpenak emango ditu hitzaldietan.

"Txertoa jartzea da irtenbide eraginkorrena"

AINHOA GOCHI DOKTOREA

Haurrak gripearen transmisioko "oinarrizko faktorea" direla dio, eta irtenbidea eskuragarri dauden txerto eraginkorrak "jartzean" dagoela gaineratu du


Iñigo Barrena Kortabarria DEBAGOIENA

Astelehenean hasi zuten txertoaren kanpaina, eta, aurten, nobedade gisa, 6 eta 59 hilabete bitarteko haurrak gripearen aurka txertatzeko aukera egongo da lehen aldiz. Horri buruz hitz egin dugu Ainhoa Gochi medikuarekin.

Zergatik da garrantzitsua Umeen gripearen kontrako txertoa?

Gripea etengabeko mehatxu bat da. Birus batek eragindako gaixotasun infekzioso bat da, eta pertsonak erraztasunez kutsa dezakete elkar, arnas jariatzenarekin, eta, era berean, eskuen bitartez. Sintoma nagusiak sukarra, eztula, sudurreko mukiak, eztarriko mina, eta giharretako zein buruko mina dira; halaber, kasu batzuetan muturreko larritasunekoia izan daiteke, edo bakterioen sobreinfekzio larriarekin ere egoera zaildu daiteke. Gripearen kontrako txertoa da irtenbiderako modurik eraginkorrena.

Gripearen urteroko izurriteak haurren biztanleriari eragiten dion proportzioa altua da; %30 eta %40 artean aritzen da normalean. Biztanlerian uste da haurtzaroan infekzioa arina izaten dela, eta oinarritzko gaixotasuna duten pazienteei era-



Ainhoa Gochi doktorea kontsultan. AINHOA GOCHI

giten diela gehienbat. Dena den, gripea da mundu guztiko 5 urtetik beherako haurretan izaten diren milioi bat kasu larrietatik gorako eragile, eta gripe larriarekin ospitalera eramaten dituztenen tasak 65 urte edo gehiagokoen antzekoak dira, 79 urtetik gorakoen salbuespenarekin. Gainera, gaixotasun honekin hiltzen diren haurren ia erdiak osasuntsu zeuden pazienteak izaten dira. Bestalde, haurrak gaixotasunaren transmisioko oinarritzko faktorea dira. Horrek esan nahi

du, nahiz eta batzuetan haurrek gaixotasuna modu arinean pasatu, gizatalde zaurgarrientzat transmisore nagusiak direla. Horregatik eta eskuragarri dauden txertoen eraginkortasuna kontuan izanda, Espainiako Pediatria Elkartearen Txertoen Batzorde Kontseiluak 6 eta 59 hilabeteko haurrak txertatzea gomendatzen du.

Gripearen kontrako bakuna lehen aldiz hartu ahal izango dute 6 hilabete eta bost urte bitarteko umeek. Zenbat dosi egongo dira Euskal Autonomia Erkidegoan?

Dosi bakarra emango da, lehenengo aldiz hartzen dutenak barne, arrisku-talde bateko kide ez baldin badira; horiek bigarren dosi bat jasoko dute 4 asteetara. **Eta zergatik orain? Zer ikusirik izan al du Covid-19ak?**

Gripearen aurka haurren txertaketa unibertsalaren gomendioa Covid 19-aren pandemia baino lehenagokoa da. Duela urte batzuetatik, Osasunaren Mundu Erakundeak eta agentzia erregulatuak internazionalak 6 eta 59 hilabete bitarteko haurrak txertatzeko lehenetsua izan dezaten gomendatzen dute. Espainiako Pediatria Elkartearen Txertoen Batzorde Kontseiluak 2021. urtean bere urteroko gomendioak handitu zituen, eta osasun agintariei eskaera egin zien, adin tarte horretan, txerto hori txertaketa egutegian sartzeko. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, urte honetatik bertatik, gripearen aurkako txertoa 6 hilabete eta 5 urte bitarteko haurrengana zabaldu du.

Zein harrera izango duela uste duzue? Jendarteak ba al du gripearen inguruko kontzientziarik?

Gripearen aurkako txertaketaren datuak, erakunde ofizialek markatutakoekin alderatuz, askoz baxuagoak izaten dira normalean. Gertakari horren arrazoiak aurkitzeko zergati ugari existitzen dira. Alde batetik, diagnostikoaren konfirmazio falta dago; horrek patologiarekin benetako karga oharkabearen pasatzea ekartzen du, hain zuzen, gripearekin dauden pertsonak gaixorik daudela konturatu gabe. Bestetik, gaixotasun onbera bat den eta garrantzi eskasekoa den pertzepzio orokortu bat existitzen da. Hala ere, pandemiaren ostean, gripearen aurkako txertaketaren datuek hobekuntza nabaria izan

dute. Hori gizarteak bakarkako zein taldekako arriskuekiko kontzientziazio maila handiagoko duelako da.

Europako beste herrialde batzuetan dagoeneko ematen da txertoa adin tarte horietan? Non? Zein ikasketak ateratu ditzakegu?

Gaur egun 70 herrialdek baino gehiagok dute haurtzaroan gripearen aurka txertatzeko programa bat, eta duela urte batzuk, Europako hainbat herrialdetan zein Ipar Amerikan jarri zituzten martxan programa hauek. Espainiar estatuan, hiru autonomia erkidegok sartu zuten programa hau 2022-2023ko txertaketa kanpainaren barruan.

Gripearen aurkako txertoek erakutsi dute eraginkorrak eta seguruak direla. Ikerketek argi erakusten dute adin tarte guztietan morbiditatea eta heriotza-tasa jaitea lortzen duela, batez bere, haurrengan. Osasuntsu dauden haurrei txertoa jartzea ere erakutsi du zeharka transmisioa ekiditen duela, gizarteko beste gizatalde batzuetan ere, besteak beste, jende nagusiarengan, immunodeprimituengan eta 6 hilabete baino gutxiagokoetan. Aktibo ez dauden txertoen kasuan, kontrako efekturik ohikoena erreazio lokalak dira, txertoa jartzen den tokian mina eta gorritasuna izanda. Beste kontrako efektuak sukarra, mialgia eta nekea dira, egindako ikerketen arabera, kasuen %5 eta %20 bitartean.

"GRIPEAREKIN HILTZEN DIREN HAURREN IA ERDIK OSASUNTSU DAUDEN PERTSONAK DIRA"

Lege Soziologia Institutuko 34. masterra hasi dute

Ikasturte berrian, nazioarteko hamar herrialdeetatik etorritako hamabi ikasle egongo dira bertan ikasten

I.B.K. DEBAGOIENA

Oñatiko Lege Soziologia Institutuko 34. masterra abian jarri dute aste honetan bertan, eta Qatarreko, Indonesiako, Alemaniako, Estatu Batuetako, Bielorusiako, Italiako, Hego Afrika-

ko edo Euskal Herriko ikasleak izango dira, besteak beste. Martxora arte iraungo du masterrak, eta bi aste mintegiak edo ikastaroak eskainiko dituzte. Kultura legalen inguruko ikastaroa izango da lehenengoa, Joxe

Ramon Bengoetxearen eta Iker Navascuesen eskutik. Dagoeneko, nazioarteko 300dik gora adituk egin dute Oñatin eskaintzen den Lege Soziologia Institutuko masterra, eta saretu egin da euren komunitatea nazioartean, 2016tik Oñati Community moduan ezagutzen dena. Proiektu horrendako izan zen, hain zuzen ere, Oñatiko Udalaren lehendabiziko GRANT beka. Bestalde, kanpotik datozenek saretzeko aukera dute, FRIENDSHIP programarekin.



Master hasierako aurkezpena. OIHANA ELORZA



ZABALIK

IDOIA PEÑAKOBA ETXEBARRIA

Berritu, ekin, eraldatu

Wikipediaren arabera, ekintzailea da ondasun eta zerbitzu berriak sortu, modu berritzaile batez merkaturatu edota ekoizpen edo kudeaketa-metodo berriak asmatu eta aplikatzeari sutsuki ekiten dion pertsona; pasioarekin, berrikuntzarekin eta aldaketarekin lotzen den pertsona. Kudeaketaren aita eta enpresa munduko pentsalari Peter Drucker-en hitzetan ere, "ekintzaileak beti bilatzen du aldaketa".

GEM-Global Entrepreneurship Monitor delakoaren arabera, 582 milioi ekintzaile omen daude munduan. Horieta batzuk Euskal Herrian, duda barik!

Ekintzailetza bultzatzeko, egitasmo, lehiaketa eta ekimen ugari antolatzen dituzte administrazio eta erakunde ugari gure Herrian, eta horietako sari-banaketa ekitaldi baten egotea suertatu zait orain gutxi. Benetan pozgarriak bertan ikusi eta entzundakoak.

IZAN GAITEZEN, BERAZ, EKINTZAILE, EKIMEN XUMEEI EKINEZ ETA GAUZA TXIKIAK ALDATUZ

Beti horrela egin izan da pentsamoldea gainditu, norberaren konfort-gunetik aldendu eta gizarte hobea eraikitzen lagunduko duten proiektu berritzaileak aurkeztu zituzten hainbat gaztek.

Ilusioz ekindako proiektuak, ezagutzaz eta talentuz gain bihotza daukaten proiektuak; proiektu sozialak, jasangarritasunari loturikoak, inklusioa lantzen dutenak eta, oro har, gaur egungo eta etorkizuneko gizarteak izango dituen hainbat arazo eta erronkari erantzuteko sorturikoak.

Talentu, pasio eta energia amaigabea islatzen zuten gazte ekintzaile guztiek. Sarri etorkizuna laino beltzez irudikatzen dugun arren, uste dut badaukagula hodei horietan izpi-argiak marrazteko behar ditugun pintzelak, urratsez urrats mundua eraldatzen lagunduko dutenak. Eraldaketarako ez baitira ezinbestean proiektu eta ekintza ikaragarriak behar, maiz handitasuna txikitasunetik lortzen delako.

Izan gaitezen, beraz, ekintzaile, *beti horrela egin izan dut* leloa gaindituz eta ekimen xumeei ekinez, gauza txikiak aldatuz eta, betiere, egiten dugun guztian ilusio eta pasioa jarritz.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Aitari zor

GOIZALDE LANDABASO

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/3XSQJ](https://labur.eus/3XSQJ)

Umetan aitarekin banuen jolas simple bat, aita berak asmatutakoa. Hasiera batean ez zitzaidan askorik gustatzen, baina asko maite nuen aitarekin egotea. Akorduan ditut une gogoangarriak zirela haiek, aita bazuelako erakarpen berezia jendeak maite zuena, eta jolas momentu haiek guretzat ziren, soilik guretzat. Gurasoen etxe azpitik kotxe asko pasatu izan da beti. Bakoitzak auto kolore bat aukeratzen zuen, eta zoriaren esku uzten genuen lehia. Punturik gehien zuenak

irabazten zuen. Uste dut nork irabazi berdin zitzaigula bioi. Hasieran beti gustuko kolorea aukeratzen nuen, baina gero, estrategia aldatu, eta aurreko eguneko kolorerik ohikoena aukeratzen nuen. Aita beti kolorerik ezinezkoenak hautatzen zituen: laranja eta horia eta berde argia. Beti irabazten nuen nik. Aitari esaten nion beste kolore bat hautatzeko, eta orduan berak morea edo beste kolore ezohiko bat aukeratzen zuen.

Abuztuko azken egunetan kotxean, ospitalera bidean, bakarrik, jolasean hasi nintzen autoan. Kolorerik ezohikoenak hautatu nituen aita irabaz zezan. Ez zen lehiazeko asmoarekin sortutako jolasa,

berarekin egoteko tarte zen. Eta da. Kotxe jolasean egiten ditut kilometroak. [...] Ez nion aitari esan jolasari ekin niola, agian hori ere esateke geratu zitzaidan. Dagoeneko aitarekin olatzerik ez dago, eta bakarrik noa kotxean, hiri ezinezko honetan, zeinetan norabideek, kale konponketek eta auto pilaketek jartzen duten hankaz gora dena. Berdea, morea, horia.

Pisu azal ezina jarri zait bizkarrean aitaren heriotzarekin. Batzuetan hegan nabilela sentitzen dut, haizezko naizela. Besteetan, berriz, oso berunezko. Minik unibertsalena da; denok pairatu / pairatzen / pairatuko duguna. Amultsu eta goxo har zaitzala lurra, aita.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Gerran familiek bizitako drama erakutsi nahi nuen"

IÑAKI ARENAZA 'ANGIOZAR 1936' LIBURUAREN IDAZLEA

Iñigo Barrena Kortabarria BERGARA Iñaki Arenazak (Bergara, 1972) txikitatik izan ditu gustuko gerra garaiko kontuei eta pasarteei buruz jardutea eta entzutea. Orain, Angiozarko gerratean gertatutakoak liburu batean bildu ditu hainbat pertsonaren ekarpen eta laguntzari esker.

Zer da liburuan kontatzen dena?

Batez ere gerrate garaian Angiozarren gertatutakoa kontatu dut liburuan.

Gerrateak iraun zuen zazpi hilabeteetan, Angiozar eta angiozartarrek faxisten errepresioa jasan behar izan zuten. Baserri asko okupatu zituzten, bertako jende ugari erbesterratu egin zuten, beste batzuk espetxeratu, eta denbora tarte horretan, lau pertsona fusilatu zituzten; horietako baten gorpua, gainera, ez da topatu oraindik. Batez ere, zazpi hilabete horietan gertatutakoa kontatzen saiatu naiz.

Zergatik idatzi duzu horri buruz?



Iñaki Arenaza liburua esku artean duela. IÑAKI ARENAZA

Betidanik izan dut gai hauekiko interesa, eta txikitatik gurasoek ere interes hori transmititu didate. Angiozarren jende nagusiarekin hitz egiten ere askotan atera dugu gaia.

Baina seguruenik, liburua idazteko pizgarria angiozartar batek kontatutako istorio bat izan zen, duela urte asko gainera. Bere senitarteko bat fusilatua izan zela eta oraindik desagertua zegoela

esan zidan, eta pandemian, etxean sartuta geundela, neure buruari galdetu nion ea nola zen posible oraindik pertsona bat galduta egotea eta haren memorian ezer ez egotea. Herriko beste gizon batekin ere hizketan nengoela aipatu zidan fusilatutakoen kasu gehiago zeudela, eta orduan, gaiaren inguruan ikertzen hasi nintzen.

Nolakoa izan da idatzi aurretiko lana?

Behin ikertzen hasita, egunero baserrietatik paseoan galdezka aritu nintzen informazio bila, eta neure buruari planteatu nion horrekin liburuxka bat egitea. Orduan, Intxorta 1937 elkarteko kideekin kontaktuan jarri nintzen, eta informazio askorekin lagundu zidaten. Hortik abiatuta, 90 pertsona baino gehiagorekin egon nintzen, eta liburuak guztira 130 pertsonaren ekarpena du. Izena neuk jartzen dut, baina guztion lana izan da.

Zenbat denbora behar izan duzu informazioa batu eta liburua idazteko?

Pandemia garaian hasi nintzen idazten, baina denbora behar izan dut amaitzeko. Une batzuetan buru-belarri aritzen nintzen

bizpahiru astez jarraian, baina beste batzuetan nahikoa zela esaten nion neure buruari. Boladak izaten nituen. Zalantzak ere izan nituen une batzuetan, baina dokumentalarekin batera aurkezteko aukera eta data jarri zutenean, gogor heldu nion berriz ere, aurkezpenerako amaituta izateko.

Zerk harritu zaitu gehien liburua idaztetik?

Orain lasaiago nago, baina hasiera, hemengo familiek bizi izan zutena jakin nuenean, gogorra egin zitzaidan. Uste dut ez garela inoiz benetan pentsatzen jarri zer izango zen hura, eta bizi izan zuten beldurra eta ikara ere nolakoak izan ziren.

Gerra garaiko liburu gehiago daude. Zertan bereizten da zeuk idatzitakoa?

Gai honi buruz beste liburu batzuk ere irakurri ditut, baina gehienetan datu asko sartzen dituzte; zenbat hildako, zenbat leku, eta horrelako datuak. Ni, izatez, ez naiz idazlea, baina nire kasuan, pertsonen eman nahi izan diet protagonismoa, eta, era berean, pertsona horien alde gizatiarra islatzen saiatu naiz liburuan. Gerra garaian familiek bizitako drama erakutsi nahi izan dut.



Realaren eta Mallorcaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Mallorca norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partida urriaren 21ean, 14:00etan, izango da.

Parte hartzeko azken eguna: urriak 15



Egin Goienakide eta Realak ikusteko aukera izango duzu!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



"Patroi ohia, ezkertiarra, agnostikoa eta abertzalea naiz"

JOSE ANTONIO ALTUNA 'TXATILLO' ARRASATEKO ENPRESARIA ETA ALKATE OHIA
Esteban Altuna semeak *Jose Antonio Altuna. Conversaciones* liburua argitaratu du, aitaren bizitzaren errebaso zabala egiten duena; protagonistarekin izan da GOIENA

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE
1937ko maiatzaren 10ean jaio zen Jose Antonio Altuna *Txatillo*, Gernikako bonbardaketatik bi astera, Arrasateko Magdale-na kaleko 16. zenbakian (egun-go Maalako Errabala). Egun, 86 urterekin, eta izen batzuk gogoratzen ez baditu ere, zehaztasun handiz kontatzen ditu urte horietan guztietan bizi izandakoak. **Pozik zaude semeak liburuan jaso duenarekin?**

Bai, oso pozik, nire bizitzaren zati bat ahalik eta ondoen kontatzea lortu dudalako, gezurrik gabe. Liburuan esaten ditudan gauza guztiak egia dira, eta ikusi dut niri interesatzen zaidan jendeak oso ondo hartu duela. **86 urtek askorako ematen dute. Harro zaude egindakoaz?**

Gauza batzuetaz bai, eta beste batzuetaz ez. Edozelan ere, ez dut ezer gorde eta nire sentimenduak etorri zaizkidan moduan azaldu ditut, nahiz eta gauza batzuk gogorregiak iruditu. Ezin dut onartu gezurrik esatea. Badakit gogorra izan naizela, baita familiarekin ere, baina nik bizi izandakoa kontatu gura izan dut.

Nola definituko zenuke zure burua?
Patroi ohia naiz, enpresako nire akzio guztiak semeenak baitira jada. Bestalde, ezkertiarra, agnostikoa eta abertzalea naiz.

JMAra joateko ohiturarik baduzu?
Ez askotan. Gerenteak deitzen didanean edo bisitan. Egia da,

berezia den makina berriren bat-edo ekartzen badute, abisatzeko eskatzen diedala. Betidanik izan dut gustuko tailerra eta oraindik ere hala da. Beti ikasten duzu zerbait. Anekdotan moduan, garai batean, gure giltzak danbor handi batzuetan batzen genituen, narruarekin eta zerrautsarekin, apur bat leuntzeko. Zarautzen, tailer txiki batean, ikusi nuen obrako oratzailea goitik zulatuta egiten zutela, modu berezi batean, eta hori ere ekarri genuen gurera. Egun, asko modernizatu da guztia.

Inbertitzeak daukan garrantzia nabarmentzen duzu askotan.

Jose Maria Arizmendiarieta beti galdetzen zidan ea enpresako akziodun nagusia zein zen. Nik erantzuten nion nire aita zela, Alejandro, eta zera erantzuten zidan: 'Dibidenduak ego-

"NIK BIZI IZANDAKOA KONTATU GURA IZAN DUT ETA GUZTIA EGIA DA; EZIN DUT ONARTU GEZURRIK ESATEA"

"ARIZMENDIARRIETA ARRASATERA ETORRI ZENEAN, LOTERIA TOKATU ZITZAION HERRIARI"

nez gero, zure aita ez da izango kobratuko duen lehena, enpresa bera baizik'. Inbertsioei buruz ari zen, noski, eta guk hori ondo ikasi genuen, hitzez hitz hartu izan dugu beti. Inbertitu, inbertitu eta inbertitu.

Arizmendiarieta aipatu duzu. Ze pisu izan zuen hark zure bizitzan?

Handia. 1941ean iritsi zen Arrasatera, zigortuta. Lovainara (Belgika) joatekoa zen, Gizarte Zientziak ikastera. Baina Lauzurika gotzainak *gorriak* zigortu gura izan zituen eta, Jose Luis Iñarrarekin batera, Arrasatera ekarri zuten. Beti esaten dut egun hartan Arrasateri loteria tokatu zitzaioela.

Haren gomendioak jarraitu arren, bide propioa egin zenutela diozu.

Bide propio hori familia da. Nire aitak 23 urte pasa zituen Union Cerrajeran lanean, leuntzaile moduan, eta familiako lantegian ere zeregin bera hartu zuen. Giltzen gaineko lantegi bat irekitzeko asmotan ari zen, eta, garai hartan, Facundo Uriartek egiten zituen giltzak. Esperientzia handia zeukan. Hala ere, gu, apurka-apurka gure negozioarekin hasi ginen.

Arizmendiarietari esker murgildu zinen familiako negozioan, Eskola Profesionala utzita.

Bai, hala da. Ni San Viatorren aritu nintzen 14 urtera arte, eta, egunero, ikastetxera joan aurretik, aitak eta anaiak jarritako etxeko lantxo batzuk egiten ni-



Jose Antonio Altuna *Txatillo*, Arrasateko Erdiko kalean beheara. XABIER URZELAI

tuen. Gero, Eskola Profesionalean bi urte egin nituen, baina ikasketak utzi eta Ferixalekuan genuen lantegira joan nintzen.

Zer da zuretzat JMA gaur egun?

Galdera ederra da. Ez dakit nola esan; bete ditut amets guztiak. Gainera, bide ederrean doa JMA. Lantegi inportante asko ikusi ditut erortzen. Beraz, nire amets handiena da JMAk aurrera egitea, baina ez irauteagatik; baldintza duinetan izan dadila. Arizmendiarrietak hau ere esaten zidan: 'ezkerrekoa izatea partekatzea da'. Eta hori ere hitzez hitz bete dugu. Era berean, Europako lehen enpresa gara giltzen sektorean. Ez dago espainiar bat bera ere guk egindako zerbaitez ez daukana, eta frantziarrak ere gutxi izango dira. Anekdotak: gure gurenteari Otoralora jauregian esan zioten munduko autoen %10 Mondragon Taldeak egindakoak direla. Gure kasuan, munduan ekoizten diren autoen %30ek guk egindako piezaren bat dute. **Union Cerrajeraren argazki bat aurkituko dugu liburua irekitzean.** Nola ez. Transformadore metalikoen Espainiako lantegi inportanteena izan zen garai hartan.

"KALEAN IKASI NUEN EUSKARA; GURASOEN GAZTELANIAZ EGITEN ZIDATEN, EUSKARAZ JAKIN ARREN"

"UR-HORNIDURA ARAZO HANDIA ZEN; PENTSA, UDAN, EGUNEAN ORDUBETEZ NUEN URA ETXEAN"

2.000 langile izan zituen, tren propioa ere bai, Bergararik Arrasateraino zetorrena, eta ekoiztita guztia saltzen zuen. Lan asko sortu zuen. Gerra ostean, Mondragoek 9.000-10.000 biztanle inguru zituen, eta nik udaltxea utzi nuenean, 1979an, 26.600 ziren. Egundak, 22.000 gara, eta hutsunea migratzaileek bete dutelako da hori; bestela, are gutxiago izango ginateke. Lehen moduan, orain ere derrigorrez behar dugu migrazioa. Garai batean, Arrasatetik autobusak ateratzen ziren langile bila.

Luis Balanzategiri esker hasi omen zinen euskalduntzen...

Elmako guardia zen bera eta arratsaldetan gurera etortzen zen. Elkarrizketa sakonak izaten nituen berarekin, eta euskaraz oso ondo egiten zuen. Nik, justu-justu, kalean ikasi bainuen euskara. Halaber, nik uste nuen euskaraz egiten zuten guztiak EAJkoak zirela, eta berak esan zidan sozialista zela. Askok irakurtzen zuen eta oso gizon zentzuduna zen. Gerrari buruzko azalpen garbi bat eman zidan, besteak beste, eta harekin izan nituen elkarrizketak oso aberasgarriak izan ziren niretzako. Seguruenik, gainera, euskalduna izaten hasteko lehen pausoak hor egin nituen, espainola bainintzen orduko hartan [barreak]. **Gurasoek ez zituzten irakatsi?**

Alde horretatik, oso haserre nago haiekin. Izan ere, haien artean euskaraz egiten zuten eta anaia nagusiari ere bai. Etxeko beste hiruroi, ordea, gaztelaniaz. Euskaraz eginez gero, gainera, zigortu ere egiten gintuzten. Edozelan ere, banituen euskaraz zekiten lagunak eta lehengusuak, eta kalean ikasi nuen euskara. Nik ere interesa jarri nuen ikasteko.

1970ean sartu zinen udaletxean.

Arizmendiarrietak behin eta berriz errepikatzen zigun udaletxean sartzeko. Sinetsita zegoen gauzak aldatuko zirela eta hala izan zen, apurka-apurka, udaltxean sartzeko hasi baikin.

Nola gogoratzen duzu hasiera?

Ilusioz egiten genuen lan. Zoritxarrez, oso garai zailak izan ziren, tentsio handikoak. Gainera, diru gutxi, urik ez... Edozelan ere, jende zintzoa eta langilea izan nuen ondoan.

Ur-hornidura eta ikastola ziren erroka nagusietako bi.

Bai. Arazo handia zen garai hartan. Pentsa, alkate nintzela, udan, egunean ordubetez baino ez neukan ura etxean. Bestalde, demokrazia iristearekin batera, San Viatoroko fraideak bidali egin genituen handik eta ikastola ezarri genuen han.

1977an jarri zenuten lehenengoz ikurrina udaletxeko balkoian.

Alkate nintzeneko unerik politena izan zen, amnistiarekin batera. Gerora, ETaren amaierarekin sentitu nuen poza ere halakoa izan zen. Unerik tristenak, aldiz, bizi izan nituen hemeretzi hiletak, Iñakiren [Etxabe] heriotza, tiroketak eta mehatxuak izan ziren.

Borroka armatuaren aurka egon izan zara beti.

Ez dut inoiz ezkutatu. Alkateen Mugimenduaren baitan, Xibertako elkarrizketetan izan ginen eta hamahiru talde ezberdinek osatu genuen mahaia, guztiok euskaldunak. Txomin [Iturbe] beti izan dut lagun eta besteak ere ezagunak nituen. Hasi aurretik esan nien ni borroka armatuaren aurkakoa nintzela eta beti errespetatu izan didate; ez

dut inolako arazorik izan. Bilerak horiek fruiturik eman ez zuten arren, beste liburu bat idazteko ere ematen dute.

Rodolfo Martín Villa eta Marcelino Oreja Espainiako ministroekin ere harremana izan zenuten.

Bai, eta gerora ere mantendu izan dut. ETako kide izandako batzuek badakite zenbat mesede zor dieten bi horiei. Egia esan, min handia hartu nuen Arrasateko udalbatzak Martín Villa *persona non grata* izendatzea onartu zuenean. Udalbatzeari geundenean, haiek ministro zirela, enkargu pertsonal bat nuen haiengandik. Arazoren bat izanez gero, Guardia Zibileko konfiantzazko hiru pertsonarengana jotzeko eskatu zidaten, beste inorekin ez zirela fidatzen. Nirekin, behintzat, ondo portatu ziren.

Ikurrina, lehenengoz, udaletxean

1977ko urtarrilaren 19an jarri zuten lehenengoz ikurrina Arrasateko udaletxean, besteak beste, Alkateen Mugimendutik egindako borrokaren eta lanaren ondorioz. Alkate zeneko momenturik politenen artean kokatzen du Txatillo-k egun hura, urte berean lortu zuten amnistiarekin batera. Aipatzekoa da, halaber, 1976tik 1979ra, ez zela alderdi politikorik egon ordezkatura udalbatzan; guztiak herritar independenteak ziren. "Urte haietan, udala alderdi politikoei entregatzea pentsatzen ari ginen, baina herritarren babes zabala jaso genuen eta guk jarraitu genuen agintean 1979ko hauteskundeak iritsi arte", dio Txatillo-k.



1977ko urtarrilaren 19an, orduko udalbatza, osoko bilkuren aretoan. E.A.



Gualbi
aholkularitza
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOALKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK



Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasesores.com



Atzo, bi ibilaldi egin zituzten egunean zehar. AITOR AGIRIANO

Adineko pertsonak dira protagonista nagusiak

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta Pertsona Nagusien Astea ospatzen ari dira, eta astelehenetik domekara arte egitarau zabala dute. Helburua, beti bezala, nagusiak erdigunean jarri eta gizartearen parte izaten jarraitzen dutela plazaratzea

Iñigo Barrena Kortabarria ARRASATE Pertsona Nagusien Astea azken txanpan sartzera doa, baina orain artekoa ere aste oparua eta mugitua izan dute. Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, astelehenetik ekintza ugariarekin ostantu dute egitaraua, eta Pili Iriarte Arrasateko Nagusien Kontseiluko presidentea "harrituta" gelditu da herriak eman duen erantzunarekin. "Arrasatearren erantzuna ikaragarria izan da. Ekintza denetan jende asko ibili da", dio Uriartek. Parte-hartzearen erakusgarri da Kaittin Allenderen bakarrizketa saioa lepo bete zela, edo Bastida akademiako Sartei tabernan egindako ardo eta urdaiazpiko dastaketan jendea kanpoan gelditu zela.

Aipatzeko beste ekintzen artean, Abaroa abesbatzaren emanaldia, Imanol Kerejetaren *Acumular experiencia* hitzaldia, Arrasate Zientzia Elkartearen eskutik herriko leku enblematikoa ezagutzeko ibilaldia, edo

Iñaki Peña medikuaren *La ética de los cuidados* hitzaldia.

Nagusiak erdigunean

Urriaren leian ospatuko da Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna, eta hain zuzen aste berezi honek adinekoak erdigunean jartzea du helburu. Atzo, Sasobidek antolatuta, ibilaldiak egin zituzten Arrasaten, adinekoak ere "gizartearen parte" direla esateko eta "bizirik" daudela erakusteko. "Asko daukagu gizarteari emateko, eta gai gara gauzak antolatzeko ere. Ikusi besterik ez dago aste hau", dio Margari Gorrotxategi Sasobideko kideak. Bastida akademiako Xabi Arnaizen ustetan, pertsona nagusien "jakinduria"

ERANTZUN ONA ETA PATRTE HARTZE HANDIA EGON DA, ORAIN ARTEKO EKINTZA GUZTIETAN

aprobetxatu beharra dago, eta eurei "tresnak" eman beharra dago gauzak antolatzen jarraitzeko, horretarako "gai" direlako.

Domekara arteko egitaraua

Astelehenean hasi zuten arren Nagusien Astea, domekara bitartean luzatuko dute egitaraua. Gaur bertan, Iturbideko egoiliarrekin paseoa egingo dute, 11:00etan hasita, Arizmendi Ikastolak eta Sasobidek antolatuta, eta arratsaldea girotzeko, bestalde, guatekea egongo da Biteri plazan, 18:30ean hasita. Zapatuan, ipar martxa egingo dute Arrasatetik Elorregira, 10:00etan Biteri plazatik abiatuta, eta arratsaldean, berriz, mariatxiez gozatzeko aukera egongo da, Seber Altube plazan (19:00), Duo Imperial taldearen eskutik. Pertsona Nagusien Nazioarteko Egunarekin borobilduko dute egitaraua, domekan. Hala, ohi moduan, manifestua irakurriko dute Herriko Plazan, 12:00etan.

Sozialistek ere tasak eta zergak izoztea proposatu dute

Astean egindako agerraldian, funtsean, zergak eta tasak ez igotzearen alde agertu dira sozialistak

I.B.K. ARRASATE

Sozialistek EH Bilduri eta Podemos Arrasateri eskatu diete aurreko Gobernuak utzitako "egoera ekonomiko ona" aprobetxatzeko, bizilagunen ongizatea bermatzeko. "Egungo Udal Gobernuak proposatzen dituen igoerak neurrigabeak dira. Herritarrek gehiago ordaindu beharko dute Udalak eskaintzen dituen zerbitzuengatik", dio Aritz Murua zinegotzi sozialistak. Hala, batetik, Ondare Higiezin Zerga dagoenetan uztea gura dute, eta, bestetik, kiroldegirako banakako sarreraren prezioa jaisteko eskatu dute, abonatura ez dauden herritarrentzat. Halaber, erroldatuta daudenen eta erroldatu gabe daudenen prezio bera ordaintzea defendatzen dute. Gai hau, datorren urriaren 3an egingo den osoko bilkuran landuko dute.

Energia berriztagarriak

Eguzki-plakak jartzen dituzten eraikinei tasen %90-95eko dirulaguntza ematea proposatu dute. Gainera, udalerrri osoko egoiliar guztientzako TAOren prezioa parekatzeko eskatu dute, lehen ibilgailuagatik 30 euro eta bigarrenagatik 65 euro. Era berean, ibilgailu hibridoak eta elektrikoak hobariak aplikatzea proposatu dute, eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan (EIOZ) %95eko hobaria ezartzea jardura berrien eta titulartasun-alaketan kasuan.

Sistema progresiboaren alde

Sozialisten ustez, zergak eta tasek hobetzeko tartea dute sistema "bidezkoago eta progresiboago" bat eratzeko, gehien dutenen ekarpen handiagotuz eta biztanleria-sektore ahulenean babestuz.

Maritxu Kajoi eguna eta miraria, Goiena Telebistan ikusgai

Urriaren 6an izango da txikite-roen zaindariaren egun handia, eta Maritxu Kajoi komisiñuak azaldu duenez, "dotorezia, umorea eta aldarrikapena" uztartuta prest dute dena aurtengorako. Hala, eskapularioa eta Ane Agirre eta Miren Barrenetxeak eginiko 3 karteletz osatutako seriea aurkeztu dituzte, baita egitaraua ere.

Motorrak berotzen hasteko, gaur bertan nobenaixua izango dute eta AGAKO omenduko dute bertan. Egun handirako egitarau zabala prestatu dute, eta urtero bezala, Goiena Telebista bertan izango da gertatzen denaren berri emateko. Egun guztian zehar jarraipen zabala egingo zaio Maritxu Kajoi egunari. Iluntzean, berriz, zuzeneko saioa egingo da, eta egunean zehar gertatutakoaren errepasoa egi-teaz gain, miraria ere eskainiko du etxe honek.

1949an eta 1959an jaiotakoekin kintadak, urriaren eta azaroaren

1949koena urriaren 19an ospatuko da. Bergarara joango dira bisita gidatuak eta bazkaria egitera. Joateko, 70 euro sartu beharko dira ES41 3035 0202 77 2021052297 kontu korrontean. 1959koena azaroaren 18an izango da, eta Garaia parke teknologikoko jatetxean egingo dute bazkaria 70 sartuta ES65 3035 0202 7820 2105 2301 kontuan.

Udalak ordenatza bateko artikulua bat berridatzi nahi du

Udalak abian jarri du Irisgarritasun, efizientzia energetiko eta bizigarritasun baldintzak arautzen dituen ordenantzen 6. artikulua berrikuspen zein berridatze prozesua. Helburua Arrasate eta arrasatearren egungo zein etorkizuneko behar errealei erantzutea da. Herritarrek urriaren 1era arte izango dute aukera iritziak helarazteko.

Topaketa mistoa izango da urriaren 3koa

Arrasateko Denon Bizitzak Erdigunean taldeko kideek dei berezia egin diete herritarrei topaketa mistoari begira (18:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan), "zaintzaren afera guztion ardura" dela azpimarratuz

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE
Arrasateko Denon Bizitzak Erdigunean taldeko kideak aurrera doaz azaroaren 30eko grebara begirako bidean. Sei topaketa egin dituzte orain arte, eta dagoeneko zazpigarrenerako deialdia egin dute: urriaren 3an izango da, 18:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan. Bada, horrek izango du berezitasun bat: topaketa mistoa izango da. "Arrasaten hilabeteak daramatzagu asanblada feministetan elkartu eta prozesuari forma ematen, gure arteko antolakuntza zehazten, eta saretze lanak egiten. Orain, ahalik eta jende gehien antolatu, prestatu eta prozesuaren parte sentitzea nahi dugu. Horretarako, denon ahalgina eta jarrera aktiboa ezinbestekoak izango dira", esan dute.

Helburuak betetzen

Euskal Herriko Mugimendu Feministak deituta, azaroaren

30eko nazio mailako Greba Feminista Orokorrari begirako Arrasateko lehen topaketa ekainaren 4an egin zuten. Ordutik, sei egin dituzte. "Asanblada bakoitzerako ezarritako helburuak bete ditugula esan dezakegu, eta martxa onean goaz. Orokorrean, nahiko jendetsuak izan dira. Sektore ezberdinetako emakumeak bildu gara. Horrek ikuspuntu ezberdinak partekatzeko aukera eman digu, zenbait sektoreekin harremanak sortzea zaila egiten ari zaigun arren", adierazi dute.

Arrasateko zaintzaren erradiografia bat egiten hasi dira, eta ondorio garbi batzuk atera dituzte. "Zaintza lanak pribatizatuta daude, lan baldintzak prekarioak dira eta gizartearen bistara ikusezinak. Zaintzen afera ez da egun batetik bestera konpontzen. Helburua da sistema osoa errotik aldatzea, eta horrek epe luzeko lanketa bati begira jartzen gaitu", esan dute.



Hainbat herritar, udako oporren ostean egindako topaketan. GOIENA



NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

Oker zabiltzate

Soziologo batzuek nabarmentzen dute aldaketak gero eta azkarrago gertatzen direla. Lehen supragenerazionalak omen ziren, ostean intergenerazional bilakatu eta gaur egun intragenerazionalak direla diote. Dena etengabeko mugimenduan dagoela nabaria da, beti izan da horrela baina. Aurkako indarren talkak darama historia aurrera, mugitzen ez dena ez da; eta baldin bada, ez da izango.

Eta kuriozosa da, nola foro askotan gazteoz diharduten aldaketa horiek gure baitan gorpuztuko bagenu bezala. Ez omen dugu etxerik erosi nahi, ezta autorik ere, sustrairik ez ei dugu nahi, lanpostu finkorik ere ez. "Segurtasun" ekonomiko eta soziala gure belaunaldiak borondate hutsez ukatu duen zerbait bailitza, nahimenera ondorioa. Gurago omen dugu garraio publiko inpuntualean ibili, eta alokairu kontratuak sinatu han-hemenka, hilabete barru ziurrenik botako gaituzten lan horretan irabazten dugunarekin ordaindu ezin ditugunak.

Ba, spoiler: gezurra da, eta bestela galdetu oposizioak prestatzen ari diren inguruko gazte guztiei. Ez ditugu ongizate estatuaren azken ogi-apurrak nahi. Guk den-dena nahi dugu.



Irailak
29
ostirala

Irailak
30
larunbata

BEZa*

oparituko dizugu

elikagaietan, freskoetan,
drogerian, lurrindegian,
parafarmazian eta maskotetan.

60 €-tik gorako erosketetan.



EROSKI App-a lehen aldiz deskargatzen baduzu

5€** opari



Irailaren 30era arte baino ez!



*EROSKI klubeko bazkidea bazara, Euskadiko, Nafarroako, Errioxako, Kantabriako eta Málagako EROSKI Hipermerkatuetan, EROSKI Club txartelean sar daitezkeen gehieneko zenbatekoa: 250 €. Kontsultatu gainerako baldintzak zure ohiko dendan. Baita supercorpus.eroski.es/er webgunean ere.

**Irailaren 6tik 30era App-a lehen aldiz deskargatzen duten eta lehen aldiz izena ematen duten bezeroentzat, 5x40€ erosketa-kupola App-a deskargatu denetik gehienez ere 7 eguneko epean egongo da eskuragarri.



ARRASATE

Musakola z/fg ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30



Bilboko unibertsitarioen kontrako partiduan, otsailean, arrasatearrak erasoan. GOIENA

Elorrioren kontra dute lehen azterketa, bihar

Arrasate Rugby Taldeak gaur, egubakoitza, aurkeztuko ditu kategoria guztietako jokariak Seber Altuben (18:00). Bihar, berriz, senior mailako mutilek ligako lehenengo partidua jokatuko dute iaz liga irabazi zuen Elorrioren kontra

Xabier Urzelai ARRASATE

Hastera doa Euskadiko Txapelketa, eta arrasateko senior mailako mutilek gertu daude. "Hasteko gogoz gaude, nahiz eta denboraldiaurreko azken aste hauek ez diren oso onak izan guretako, hainbat jokalarik min hartu dute eta. Jokin Dolara, Alex Arzamendi, Maikel, Georgi... Ebakuntza egiteko zain

daude, eta horiek ez dira albiste onak ekarpen handia egiten duten jokariak direlako. Horrekin batera, Beñat Salaberrik errugbia utzi du, eta esperientzia horren garrantzitsua den kirol jarduera honetan halako hutsuneak igarri egiten dira. Hori esanda, baina, talde ona dugu, eta halako gorabeherak bestelako taldeetan ere izaten dira.

Horrenbestez, liga hasteko gogoz gaude, eta non gauden ikusteko", dio Julen Barrutia entrenatzaileak.

Iaz Euskadiko Txapelketa bi multzotan banatu zuten, eta arrasatearrak jaitsiera faserara joan baziren ere, talde horretako onenak izan ziren. "Esanenezake seigarren postuan amaitu genuela denboraldia.

MUK Bilbao Basketen bisitarekin hasiko du liga domekan etxean

Emakumezkoen nazional mailako taldeak ere etxean jokatuko du lehen partidua, Askartzaren kontra

X.U. ARRASATE

Arrasateko saskibaloizaleek hitzordu bikoitza izango dute domeka arratsaldean Iturripen. Izan ere, hastera doaz EBA mailako eta emakumezkoen nazional mailako ligak, eta kasu bietan,

moreek etxean jokatuko dute lehenengo jardunaldia.

Julen Berrocalen mutilek Bilbao Basketen kontra jokatuko dute lehenengo jardunaldia (Iturripen, 18:30). Denboraldiaurreko lagunartekoetan erakutsitako

mailaz harago, Euskal Kopan arrasatearrek ez zuten Iturripen sentazio ona utzi, eta hori da gauditu gurako duten lehenengo kontua.

Emakumezkoek, ondoren

MUKo neskek, berriz, 20:30ean jokatuko dute lehenengo jardunaldia, Askartzaren kontra. Horiek bai Euskal Kopan dagoeneko Lauko Finalerako sailkatuta daude –urriaren 12an–. Horrek ligara begira ere konfiantza emango die.



Arrasatearrak Gaztediren kontrako etxeko azken partiduan. GOIENA

Gaztediren kontra, domekan

Senior mailako Arrasateko eta Eibarko neskek bigarren urtez elkarrekin batera osatuko dute taldea, eta horiek ere domekan hasiko dute liga (13:00, Mojategi). Gaztedikoak izango dituzte lehen jardunaldian aurrean, eta etxekoek beste aurrerapauso bat emateko helburuarekin hasiko dute liga: "Emakumezkoena talde gaztea da, baina horiek ere poliki-poliki badoaz esperientzia batzen. Iaz hiru partidua irabazi zituzten, eta garaipen horiek balio handia izan zuten. Izan ere, euren kategoria bitan zatituta egon zen eta arrasatearrei goiko multzoan jokatzea egokitu zitzaizkien. Hau da, kontrario gogorak izan zituzten. Aurten, berriz, bi multzoak bateratu egin dituzte, alegia, 12-14 taldetako liga izango da, eta hor talde batzuekin indarrak parekatuago izango dituzte", dio Barrutiak.

Aurten denok egongo gara multzo berberean, 10 talde guztira, eta 18 jardunaldi jokatuko ditugu. Ea non egoteko gai garen.

Iazko txapelduna aurrean

Bada, liga hasiera ez dute kontrario makal baten kontra. "Elorri iazko liga txapelduna da, urtero oso jokarari onak izaten dituzte. Herrian ere errugbiarekiko kultura handia dute, eta hori gero igarri egiten da taldean; guretako derbia da. Beti izan dugu eurekin pike oso sanoa, 18 eta 16 urtez azpiko taldeak

eurekin batera atera ditugu; alegia, klub mailan harreman oso onak ditugu, baina bai, zelaian ez dugu oparirik egingo". Bada, seniorrek ligan berdegune berria ofizialki estreinatuko duten partidua 16:30ean hasiko dute.

ART KLUBAK TALDE GUZTIAK AURKEZTUKO DITU GAUR, EGUBAKOITZA, SEBER ALTUBEN (18:00)

Mugarri Ingouk Pasaian hasiko du denboraldia domekan

Ane Herreroen mutilek domekan jokatuko dute Gipuzkoako txapelketako lehenengo jardunaldia, eta, horretarako, Pasaia-ra joango dira domeka goizean, 12:00etan jokatuko dute eta Donibaneren kontra. Bergarakoen kontrako lehen derbirako, berriz, urria amaierara itxaron behar da. Bi taldeek nahi dute goialdean egon ligan.

Bi partidua irabazita, Mondra futbol taldea lidergoan dago jada

Gorengo maila hasi baino ez da egin, bi jardunaldi jokatu dituzte, baina mailaz igotzeko borrokan Mondrak eman ditu lehenengo pausoak. Gari Nuñezek zuzentzen duen taldeak bi partidua jokatu ditu, Aloña Mendiren eta Soraluzeren kontra, eta biak irabazi dituzte. Zapatuan (16:30), azken lekuan dagoen Anaitasuna hartuko dute Mojategin.

30 urtez enbor berari kolpeka ibilitakoen festa

Urte berezia ari da izaten Arrasateko Ttakun Txalaparta Elkartearentzat; sorreratik hiru hamarkada bete ditu. Aurtengo ospakizun ekitaldiei ginga jarriko diote zapatuan, ibilbidean zehar ikastaroetan parte hartu duten 500 arrasatearrak gonbidatuta

Hasier Larrea ARRASATE

Kidez eta animoz osasuntsu dago Ttakun elkarte, iraganean egindakoekin harro eta datorrenari itxaropentsu begira. Dozena bat lagunek ematen diote hauspoa gaur egun, "inoizko kopuru handienak", Gorka Zubizarreta txalapartariaren esanetan. Baina bidelagunak askoz gehiago izan dituzte, "ikastaroetan parte hartu duten 500 arrasatear inguru", eta denekin batera ospatu nahi dute, *30 urtez enbor beretik* lelopean, zapatuan, hilak 30, urteurreneko programazio bereziaren bukaera.

2023an zehar presentzia nabarmena izan dute herri-mailan, auzo-jaietan txalaparta ikastaroak, Iturrieta sagardotegian Txotxparta eguna edota Udalatz tontorreko saioa antolatuta, baina bailaratik kanpo ere utzi dute azterna; besteak beste, Algortan omenaldia jaso zuten egindako ibilbideagatik, eta Faltzesko txalapartariarekin elkartrukea borobilduko dute zapatuan bertan.

Sustraietatik mundura

"Instrumentu primitibo" da txalaparta Zubizarretaren iritziz, "jotzeko erraza eta entzuteko indartsua". Ezaugarri horiek laguntzen diote "kultura txiki honi mundu globalizatuan bizirautean". Ttakunen belaunaldi gazteengana heltzea dute helburu, eta, bide horretan, beste aurrerapauso bat eman dute, Oiartzungo Soinuenea fundazioaren eskutik: "Bertako kideek Ttakun izeneko app-a diseinatu dute, txalapartak duen idazkera propioa paperetik programa informatiko batera eramanda; hala, pieza ezberdinak artxibatu eta elkarbanatzea lortu dute, modu errazean irakurtzeko", azaldu du.

Aplikazioarena txalapartariak euren burua berrasmatzeko duten gaitasunaren beste adibide



Ttakun-eko kideak, egungo egoitza duten Kulturetolan, zapatuko kartelarekin. TTAKUN

BELAUNALDI EZBERDINETAKO IKASLEEK KALEJIRAN PARTE HARTUKO DUTE ARRATSALDEAN

bat da. Merezi du gogoratzea Ttakun elkarteak egin dituzten askotariko kolaborazioak: "Garaian garaiko kideek RIP, MCD, Ekon eta Maurizia eta Fasioren zuzenkeren batean jo izan dute, baita Hertzainak 564 kantuko doinuak grabatu eta *Errementari dantza* eta *Txerri dantza*-ren sorreretan parte hartu ere".

Denak gonbidatuta

Biharko ekintzen artean bada bat 30 urte hauei keinu egiten diena: "Arratsaldeko kalejiran, ibilbide osoko ikastaroetan ibilitako ehunka lagunak hartuko dute parte, uztalditan banatuta; 93ko, 2003ko eta 2013ko hamarkadetakoei saio bana egingo dute tabernetan, eta Ttakun elkarte sortzeko hazia jarri zutenek ere bai, Arrasaten lehen ikastaroa 1990ean egin baitzen".

Biharko festa, ekitaldi ugariz osatua

Herritar orok gozatzeko moduko egitaraua:

Goizetik eguerdira

- 11:00etan diana, Goikobalu, Altamira eta San Kristobaletik.
- 12:00etan tailer herrikoia eta saio libreak Herriko Plazan.
- 13:00etan irrintzilarien erakustaldia Herriko Plazan.
- 14:30ean herri bazkaria Jaizale elkartearen.

Arratsaldean

- Kalejira, txalaparta saioekin: 17:30ean Taupan, 18:00etan Iluntzen, 18:30ean Iratin eta 19:00etan Arrasate tabernan.
- 20:00etan Kimu taldearen kontzertua Herriko Plazan.



Nhil, Eskoriatzako Zaldibar aretoan, *Bizi bagina bezala* lana aurkezten. GOIENA

DJ Kiliki Frexko, Mirua eta Nhilen musikaz gozatzeko dute gazteek

Zapatuan, hilak 30, Monterron parkeko oholtzak Gipuzkoan Gazte Tour egitarauko artistak jasoko ditu

H.L. ARRASATE

Musika eta arte eszenikoak gazte eta nerabeei gerturatzea eta gazteak ikuskizunen parte aktibo izatea bilatzen du Gipuzkoan Gazte Tour ekimenak. Aldundiak gidatzen du hainbat udal eta eragilerekin elkarlanean, eta Arrasate behin baino gehiagotan izan du geraleku. 16 eta 25 urte arteko publikoa erakarri nahian, ez da kasualitatea kontzertua Monterron parkean izatea, "gazteek euren sentitzen duten espazio zabal eta naturaz inguratua delako", Arrasateko Udaletik adierazi duten moduan.

Egungo doinuak

Hori horrela, bihar, zapatua, 19:30ean hasiko dira zuzenekoak. Protagonistetako bat Aretxabaletan sortutako Nhil taldea izango da; Debagoienean makina bat kontzertu eman dituzte dagoneko, maila txukuneko musika-

riak direla erakutsiz. Haien sorkuntza pop estiloaren bueltan oinarritzen da, Mirua taldearena bezala. Gipuzkoar banda horrek musika elektronikoa eta indie experimentalak uztartzeko duen trebezia zeresana ematen ari da tokiko eszenan, adibide moduan 2021eko Gaztea make-talehiaketa irabazi izana. Gainera, jaialdiko hirugarren gonbidatuarekin, Kiliko Frexkorekin, kolaborazio bat egina dute *Basakabi* abestian. Chill Mafia-ko liderra da Kiliki, eta azkenaldian gustua hartu dio beste talde batzuekin elkarlanak egiteari, bere zigilu propioa, rave eta sound system-a, albo batera utzi gabe.

Eguraldi txarra eginez gero, Mirua eta Nhil taldearen kontzertuak Juan Arzamendi Musika Etxeko Auditoriumera lekualdutako dira, eta DJ Kiliki Frexkorena, Biteri plazara.

Urriaren 4an abiatuko dute 'Arotz letrak' literatura zikloa

Irati Topaguneak euskarazko hiru literatura solasaldi jasoko ditu udazkenean zehar, *Arotz letrak* egitarauaren baitan. Irailaren 22an ziren hastekoak, baina azkenean datorren eguaztenean, urriak 4, egingo dute lehen hitzordua, 19:00etan. Gonbidatua Mikel Alvarez idazle beasaindarra izango da, eta iaz argitaratu zuen *Euskalia* libu-

ruari buruz jardungo du. Zientzia fikziozko nobela hori XXIII. mendean kokatzen da eta euskaldunak nagusi diren unibertsoan oinarrituta dago.

Hurrengo ekitaldia urriaren 25erako antolatu dute, Hedoi Etxarteren eskutik; iruindarrak *Sortaldekoak* olerki liburua aurkeztu eta hainbat poema errezitatuko ditu. Azaroaren 22an, berriz, Irati Jimenez Bizkaiko idazlea izango da protagonista *Begiak zabalduko zaizkizue* saikerari zuzen ateratzeko asmoz.



Aramaioko Santakurtz Abadearen plazan, bi emakume. A.E.G.

Garuna estimulatzearen garrantzia landuko dute

+55 Elkartegiak programaren barruan, memoria eta arreta lantzeko ariketa fisikoak eta mentalak egingo dituzte datozen asteetan. Adindu gerontologia zerbitzuak taldeko kideek gidatuko dute tailerra. Saioak kultura etxean izango dira, 18:00etan

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Arabako Foru Aldundiak kudeatzen duen +55 Elkartegiak programaren barruan, garuna estimulatze ariketa fisikoak eta mentalak egingo dituzte hurrengo asteetan. Urriaren 4an, eguaztena, izango da lehenengo tailerra. Adindu gerontologia zerbitzuak taldeko Elena Iraolagoitiak emango du *Garuneko gimnasia (I): garuna behar bezala mantentzeko ariketa fisikoak eta mentalak* tailerra. Bi saio egingo dira: urriaren 4an eta urriaren 25ean.

"Joan zen astean tailer teorikoa egin genuen. Garunak nola funtzionatzen duen ikusi genuen, hurrengo saioetako ariketak hobeto ulertu ahal izateko", azaldu du Iraolagoitiak.

Arreta estimulatzea

Ariketa praktikoak egingo dituzte, garuna estimulatze balio dutenak: "Ariketa fisikoak eta ariketa mentalak egingo

ditugu, eta memoria, arreta... estimulatze izango dira". Nabarmendu du orain dela gutxira arte ariketa mentalak bakarrik

egiten zirela baina ikerketek erakutsi dutela ariketa mentalez gain gorputz mugimenduak egiten badira garuna askoz ere gehiago estimulatzen dela.

Aramaioko programa

Tailerak eta hitzaldiak

- **Urriak 4, eguaztena,** Garuneko gimnasia (I).
- **Urriak 25, eguaztena,** Garuneko gimnasia (II).
- **Azaroak 14, martitzena, *Viviendo y muriendo conscientes.***
- **Abenduak 12, martitzena, *Convivir sanamente con la soledad.***

Oharra: tailer guztiak izango dira 18:00etan, kultura etxean.

Koordinazioa eta lateralitatea Garunak bi hemisferio ditu; bada, bietako bat dominantea izaten da. "Normalean ezkerreko garatzen da gehiago; eskumako hemisferioak musikarekin, artearekin, sormenarekin... du zerikusia. Bada, ariketen bitartez bi hemisferioen arteko koordinazioa eta lateralitatea lortzen da". Iraolagoitiak gomendatzen du tailerretan ikasiko dituzten ariketak etxean egitea, astean bi edo hiru bider.

IKUSI DUTE ARIKETA MENTALEI FISIKOAK GEHITUTA GARUNA GEHIAGO ESTIMULATZEN DELA

Bazkideen Eguna ospatuko du bihar erretiratuen elkarteak

Meza egingo dute San Martin parrokian, 12:00etan, Bizente Goikoetxea abesbatzak lagunduta

A.E.G. ARAMAIO

Alaiak erretiratuen elkarteak Bazkideen Eguna ospatuko du bihar. 12:00etan meza izango dute San Martin parrokian, Bizente Goikoetxea abesbatzak lagunduta. Mezetatik irtenda-koan, ongiatorri beroa izango dute elkarteak Nardeaga kalean duen lokalaren inguruan: bertsoak eta dantzak egingo dizkiete erretiratuei.

13:30aren bueltan sagardo dastatzea eta pintxoak izango dituzte denen gozamenarako, eta, gainera, bazkideek elkar agur-

tzeko aukera izango dute. Ondoren, bazkaltzera joango dira bazkideak.

Bazkaria kiroldegian izango da, 14:30ean. 85 bazkide elkartuko dira bazkaltzeko orduan -154 dira guztira-. Ondoren, 16:30ak inguruan, omenaldia egingo zaie Jabier Altuna, Rosalia Abarrategi, Purificacion Garaigordobil eta Enrike Ibabe bazkideei. Alaiak Kantuan abesbatzak alaituko du bazkalostea. Kafea ere izango dute bazkaria amaitzeko, eta tertulia giroan bukatuko dute ospakizuna.

GORA ETA BEHERA



Kaleko erakusketako argazkia, faltan

Herritar batek salatu du, eta baita Udalak ere, publikoki, *Aramaioko emakumeen historia ezagutzen* kaleko erakusketako argazki bat falta dela. Martxoaren 8aren bueltan egindako erakusketa iraunkorreko irudia da falta dena. Udala lanean ari da argazkia berriro ere jartzeko.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Aurtengo ikasturtean ere kirola egiteko aukera egongo da

Udalaren kirol eskaintza: adinekoen mantentze gimnasia, martitzenetan eta eguenetan, 10:45etik 11:45era, doan; zumba, astelehenetan 19:00etatik 19:45era, 60 euro ikasturte osoa; pilates, martitzenetan eta eguenetan, 09:30etik 10:30era; edo, astelehenetan eta eguenetan, 19:45etik 20:45era, 120 euro izango da ikasturte osoa.



Zumba, Oñatin. GOIENA

Auzoko ondare diren eraikinak biziberritzen

Udalak Etxaguengo errota egiteko bi lan esleitu zituen orain dela urtebete inguru: teilatua konpontzea, batetik; eta ur-biltegia iragazgaiztea, bestetik. Gaur egun, auzotarrek erabiltzen dute errota dagoen lokala, batzartzeko eta jolaserako

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Garai batean auzotar gehienek erabiliko zuten Etxaguengo errota irina egiteko; baina, denborarekin eta batez ere industrializazioarekin, zenbait lanbide edo lanabesen erabilera bertan behera geratzen joan da. Hori da Etxaguengo errota kasua. Gaur egun, familia gutxi batzuk dira errota erabiltzen dutenak; hala ere, errota dagoen eraikinak berak badu erabilera. Auzotarrek erabiltzen dute bertan elkartzeko; eta baita umeen jolasleku modura ere. Bada, Udalak, herriko beste zenbait eraikinekin egin duen moduan, konponketa batzuk egin dizkio errotarri.



Errota eta kanpoaldeko ur-biltegia. A.E.G.

Teilatua konpondu

Udalak Aldundiaren ondare sailetik lortu nahi izan zuen dirua; baina, laguntzarik iritsi ez zenez, konponketa guztia bere gain hartzea erabaki zuen. Hala, bi lan esleitu zituzten 2022 bukaeran: Imper Asfálticos SL enpresari, errota bera konpontzea, ur biltegia iragazgaiztuz eta ondo funtzionatzeko beharrezko dituen bestelako lanak eginez, 8.315,25 euroren truke; eta Barrundia SL enpresari, teiltuan konponketa txiki batzuk egitea 1.306,80 euroren truke. Bada, errota teiltua konpondu dute, eta orain geratzen da depositua iragazgaiztea.

Depositu handiago bat

Etxaguengo auzo-alkate den Mikel Oterok dio amak kontatzen ziola umetan garia ereiten zela, eta irina egin, eta, ondoren, bestelako zerealak sartzen hasi zirela. "Lehen beste depositu bat zegoen, gaur egungoa baino hiru bat aldiz handiagoa zena. Depositua hura kendu zuten 70eko hamarkadan, eta ordutik oso gutxi erabili da errota". Gaur egun familia gutxi batzuek erabiltzen dute errota animalien-dako irina egiteko.

Hiru txirilo txapelketa

Euskal Herriko 33. Hiru Txirilo Bola-joko Txapelketako lehenengo jardunaldia Etxaguengo bolatokia egitea aurreikusita dago. Hala ere, arazo tekniko bat dago konpontzeko, eta konponketa horren zain daude. Izan ere, bolatokia gaur egun ez dago ezkertiarrendako egokituta. Horiek ondo bota ahal izateko eskumako horman tarte handiagoa beharko lukete –gaur egungo arautegian derrigorra da–. Euskal Herriko txapelketako antolatzaileek egindako egutegiaren arabera urriaren 7an izango litzateke Etxaguengo jardunaldia; eta, azaroaren 4an, Untzillan, laugarren jardunaldia jokatu litzateke. Guztira sei saio egingo dituzte Euskal Herriko txapelketan. Guztiak 17:00etan hasiko dira, eta izen-ematea 5 euro izango da.

San Migel jaiak ospatuko dituzte

Gaur hasi eta domekara bitartean, San Migel jaiak ospatuko dituzte Etxaguenen. 19:00etan ekingo dituzte jaiak ikurrinaren igoera eta etxafuegoekin; eta, 21:00etan, bertso afaria izango dute Millan Telleria eta Arkaitz Estiballesekin. Bihar, zapatua, 12:00etan meza esango dute, eta 16:45ean mus txapelketa izango dute. 20 euro ordaindu beharko du bikote bakoitzak. 17:00etan, puzgarriak eta jolasak egongo dira, eta 22:30ean, DJak musika jarriko du; 23:00etan, bola txapelketa –10 euro pertsonako–. Domeka goizean, umeentzat puzgarriak izango dituzte; 12:45ean, erretiratuentzako luntxa; 13:00etan, herriko bola txapelketa egingo dute; 16:45ean, briska txapelketa; 17:00etan puzgarriak, eta ondoren txokolatada; eta 18:15ean, gazte bola txapelketa.



Zapatuko erromerian parte hartu zuten kideak: eserita, Nikolas Gardoki. ABAO

Erromeria jendetsua eta hunkigarria, Gardokiren omenez

Eguzki taldeak Barajuenen egin zuen erromeriara jende asko joan zen; Abaok ekitaldi osoa grabatu zuen

A.E.G. ARAMAIO

Garai bateko erromeria doinuek alaitu zuten Barajuen zapatu eguerdian. Eguzki taldeak erromeria egin zuen, eta aukera aprobetxatu zuten taldeko sortzaile eta arima izan den Nikolas Gardoki omentzeko.

Aramaioar asko igo ziren Barajuen auzoko pilotalekura erromeria entzuterako. Inguruak autoz bete ziren, eta, Jose Gardokik azaldu duenez, beste zenbaitek beharako bidea hartu zuten horrenbeste auto ikusita.

Gustura eta hunkituta

Eguzki taldeko lagunak "gustura eta pozik" geratu ziren zapatuan herritarrengandik jasotako harrerarekin. Nikolas ere pozik zegoela dio: "Osaba zegoen urduri, ezin zuen sinistu... pasatuta zegoen". Nikolas hunkitu egin zen familia artekoek eta taldekideek egindako omenaldi

ekitaldiarekin. "85 urte ditu osabak; normala da hunkitzea", dio Josek.

Garai bateko abestiak jo zituzten, eta Barajuenera joandakoek gustura hartu zuten orain dela urte batzuk ohikoa zen erromeria giroa. Abesti dantzagarriak jo zituzten; ikusleak, bikoteka gehienak, dantzan eta kantuan ibili ziren. Nikolas bera ere igo zen agertokira bi abesti kantatzera, eta semeen lagun-tzarekin ederto egin zion aurre urduritasunari.

Grabatuta geratu da

Ekitaldia amaitzeko, Nikolasi omenaldia egin zioten: plaka bat eta lore sorta jaso zituen. Gainera, Abao komunikazio agentziak grabatu egin zuen erromeria guztia. Zapatuan hartutako irudiekin eta aurrez grabatutako elkarrizketekin ikus-entzuzko bat egitea da asmoa.

Acid Soul taldeak parkean egingo du kontzertua

Sastiñako Musika Jaialdiaren barruan kontzertuak egin dituzte iraileko barikuetan. Bada, gaurkoa denboraldiko azkena izango da, eta parkean egingo dute. Acid Soul taldeak girotuko du iluntzea, 19:00etan hasita. Hirukote formatuan jotzen duen taldeak abesti esanguratsuen bertsoak egiten ditu, soul uki-tuarekin.

Eman daiteke izena Untzillako jaietako bertso afarirako

Urriaren 6an, bertso afaria egingo dute Untzillako jaietan. Bada, afarira joateko, izena eman beharko da urriaren 1erako. Afaria 21:00etan izango da Murumendi elkartearen, eta bertsoetan egingo dute Maialen Lujanbiok, Andoni Egañak eta Xabi Igoak. Izena emateko, 677 98 54 90 zenbakira idatzi beharko da domeka baino lehen.

San Migel jaiei ekiteko gogoz daude herritarrak

Kirol ekitaldiek, feriek, dantzek, musikak eta beste hainbat kontuk bat egingo dute gaurtik domeka iluntzera bitartean herriko kaleetan; euskal giroa ardatz duten jaietan, aretxabaletarrek ez dute aspertzeko tarterik izango

Mirari Altube ARETXABALETA

Sanmigelak bertan dira. Gaur, egubakoitza, hasita makina bat ekitaldi, ikuskizun eta kontu izango dira domeka iluntzera bitartean, Udalak eta herriko hainbat eragilek antolatuta.

Neerabeei bideratutako ekin-tzekin emango diete hasiera jaiei. Bixi programaren baitan tratatu onen aldeko ekintzak antolatu dituzte, besteak beste, txapak, telazko poltsak eta *photocall*-a egongo dira Kurtzebarri eskolako kantxan eta Mikeltxi DJa Errekabarren atzeko plaza txikian; zapatuan, ostera, skate festa, musikak girotuta eta aditu batek gidatuta.

Pilota partiduak

Pilota partiduak ere izango dira gaur iluntzean, Iturrigorri pilotalekuan, UDAl antolatuta. Lehenengoan, Naia Zelaia eta Onintze Galdos bikoteak Larratiz Beltran eta Uxue Lopez izango ditu aurrez aurre, eta bigarrenean, Nagore Galeano eta Olatz Insaustik, Jaione Fernandez eta Irati Betegi; azken hori etxekoa da.

Kantuak eta dantzak

Kantu-afariak jendetza batuko du, beste behin. 500 lekuak izen-emate pea zabaldu orduko

Egitaraua

Irailak 29, egubakoitza

- **18:00** Tratu onen aldeko ekintza, Kurtzebarri eskolako kantxan.
- **18:30** Pilota partiduak, Iturrigorri pilotalekuan.
- **19:00** Oronozko Erraldoi Konpartsa, Aretxabaleto gaiteroekin.
- **20:00** Kaparrak taldearen kontzertua, udaletxe zaharrean.
- **21:00** Kantu afaria, Sei Pistols & Trabuko Bat taldearekin.
- **22:00** DJ Mikeltxi, Errekabarren atzeko plaza txikian.

Irailak 30, zapatua

- **10:00** Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren 28. feria, Durana kalean, eta Ganaduaren IX. feria, Arlutzeko kantxan.
- **11:00** Talo-txosna, Mitarte kaleko lokalean.
- **12:30** Bertso saioa, Mitarten: Oihana Iguaran eta Unai Agirre.
- **14:30** Elkartasun bazkaria, Iturrigorri pilotalekuan.
- **17:00** Ad Libitum txaranga, kaleetan.
- **17:00** Bola-txapelketa haurrentzat, bolatokian.
- **17:00** Skate festa, skate parkean.
- **18:30** Xake erakustaldia, Herriko Plazan.
- **19:00** Beinke-Loramendi dantza eta Larrain dantza, plazan.
- **20:00** Burrunbazale txaranga, kaleetan.
- **20:00** Lisker taldea, Herriko Plazan.
- **22:00** Pintxada tematikoa, udaletxe zaharrean.
- **22:30** Bola-txapelketa, bolatokian.

Urriak 1, domeka

- **10:00** Doke txapelketa, Gurea tabernaren atzeko partean.
- **11:00** Diana Aretxabaleto gaiteroekin.
- **13:00** Herri kirolak, Herriko Plazan.
- **16:00** Mus txapelketa, Orly tabernak antolatuta.
- **18:30** Mirua taldea, Herriko Plazan.



Beinke-Loramendi dantza entseatzan hainbat herritar, astelehenean. MIRARI ALTUBE

bete ziren astelehenean, eta gaur goizean beste 100 jarri dituzte salgai, eguraldi ona lagun, Herriko Plazan egingo delako. Sei Pistols & Trabuko Bat taldeak jarriko du musika, herritarrek kantuan egin dezaten. Biharko Elkartasun Bazkaria ez da gutxiago izango, eta hor ere 500 lagun elkartuko dira; pilotalekuan egingo da hori.

Jendetza batuko da dantzetan ere. Beinke-Loramendi dantza entseguetan herritar mordoa batu da asteen, eta biharko gettu daude horiek guztiak.

Bola-txapelketa eta dokea

Bola-txapelketak ez du hutsik egingo. Arratsaldean hurrek beteko dute bolatokia; infantilek eta gazteek jardungo dute txirloak botatzen, eta talde bakoitzeko bost onenek saria jasoko dute. Gauean, ostera, helduen txanda izango da; 10 euro ordaindu beharko dute horiek izena ematerakoan, eta bolatokia zabalduko dute txapelketa baino ordu bate lehenago.

Doke txapelketa ere jokatuko da, domekan, Basotxo erretira-

tuen elkarteak antolatuta; Gurea tabernaren atzeko partean izango da aurten. Sei taldek jardungo du nor baino nor gehiago; hona hemen horiek: Aratz, UDA, Totoro, Loramendi, Udala eta Basotxo.

Txaranga eta Mirua taldea

Musika eskaintzari dagokionez, etxeko taldeak, Kaparrak-ek, emango dio hasiera egitarauri, gaur. Bederatzi bat lagunek osatutako taldearen jendaurreko lehen kontzertua izango da, eta ikusmina eragin du horrek. Bihar, ostera, txaranga bi izango dira kaleak girotzen: arratsalde partean, Eskoriatzako Ad Libitum; eta iluntzean, Ordiziako Burrunbazale. 70eko hamarkadan sortutako Lisker talde eibartarrak, ostera, erromeria giroa ipiniko du gauean.

Domeka iluntzean pop eta elektronika doinuekin beteko da plaza. Maitane Iruñek eta Malentxo eta Mattin Zeberio anai-arrebek osatzen duten Mirua talde tolosarrak kanta goxoak eskainiko ditu estilo beziarekin.

'Kuartela Herrira!' leloarekin kontzertu sorta eskainiko dute

Kuartela kultur elkarteko kideek herrira zabaldu gura dute erai-kin horretan egiten den sortze-lana, eta, horretarako, hainbat ekintza iragarri dituzte datozen asteetarako *Kuartela herrira!* leloarekin. Bihar, esaterako, sanmigeletako azokan postua jarriko dute taldeen materiala eta atera berri duten diskoa saltzeko.

Urriaren, osteraren, askotariko estiloak eta doinuek lantzen dituzten taldeen kontzertuak izango dira herriko hainbat gunetan. Hilaren 14an elkartuko dira: Jo Ta Be, Kaparrak, Los Del Garage, Youth United eta DJ Karapaxo. Hurrengoan, 21ean: Orei, Berandu baino lehen eta Hiru Leño. Eta azken zapatuan, 28an: Txerrikumeak, Eten, Bixentak eta BRGS & Margu Mission.

Horrez gain, 14an bazkaria egingo dute kuartelean; txartelak salgai daude Urbaltzen.

'Ez erran inori' liburuaren bueltan, literatura solasaldia

Literatura solasaldien ikasturteari ekin diote Udal liburutegian, eta urriaren 5ean Maddi Ane Txoperenaren *Ez erran inori* liburuaren izango dute berbetarako gai (19:00); euskaraz izango da, Mikel Antza idazleak gidatuta. Hilaren 18an, ostera, Juan Tallon idazlearen *Obra maestra* izango dute hizpide, gaztelaraz, Monica Leiva kazetariarekin (18:00).

Odol ateratzeak izango dira datozen hiru astelehenetan

Odola ematera deitu dituzte aretxabaletarrek, eta horretarako, autobusa izango da Durana kalean, 16:45etik 20:00etara, hiru astelehenetan: urriak 2, 9 eta 16. Odola ematearen garrantzia azpimarratu dute Euskadiko Odol Emailek, eta gogorarazi dute 18 eta 65 urte bitartekoek eman dezaketela -50 kilogramo gorakoek-, osasuntsu egonda.

OHARRAK

Giza katea

Gari Atxabaltara! lelopean giza katera deitu du Etixeratek. Gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, Mitarte kaletik abiatuta.

Gure Zirkua

Urriaren 13tik 28ra bitartean, hamaika saio eskainiko ditu Euskal Herriko zirkua ezagunak, eta sarrerak salgai daude: *Gurezirkua.eus*.

Ixiotu! euskararen argia zabaltzeko gertu

Iazko abenduan sortu zuten gazteek osatutako euskara taldea, eta ordutik dihardute lanean euskaraz jarduteko espazioak sortzen eta herritarren kontzientzia pizten; Euskaltzale Independentisten Topaketetan hartuko dute parte urriaren 7an, Villabonan

Mirari Altube ARETXABALETA

Iazko abenduan aurkeztu zuten Ixotu! euskara taldea herriko zazpi bat gaztek, eta ordutik, martxa hartzen dabil. Atxabal-tako Gazte Mugimenduaren baitan antolatutako gazteak dira, baina azaldu dute talde independentea dela. Loramendi elkartearekin ere badute harremana, bereziki ekitaldiak antolatzerakoan. Horren adibide da urriaren 12an egingo duten ibilaldi historikoa -08:30ean abiatuta Herriko Plazatik-; Zairaia mendilerora, Kurtzebarriko haitzen artera, joango dira bertako parajeak ezagutzeko eta han gertatutako pasarteak gogora ekartzeko.

Espazioak sortu

"Gazteek sortutako euskara talde bat izatea Aretxabaletan garrantzitsua iruditu zitzaigun; herriaren zegoen hutsune bat bete gura izan dugu", diote bertako kideek, eta hau gaineratu dute: "Horregatik, gure helburua da gazteei eskaintzea euskaratik eta euskararako sortutako espazioak, euskararen arnasmune izango direnak. Lehen pausoa izan da hori, eta bigarrena, kontzientziazio prozesu bat abiaraztea herrian, jendearen proaktibotasuna pizteko".



Euskara taldeko kideak Billabonako topaketetan berri jasotzen, zapatuan. IXOTU!

Adierazi dute EAEko herri askok bizi duten errealitatea dela Aretxabaletakoa: "Historikoki nahiko herri euskalduna izan da, baina erabilera urtetik urtera jaisten dabil, poliki-poliki. Ez da ezagutza kontua, erabilera kontua baizik. Ez da beste herri batzuetan bezain larria egoera, baina bai adi egotekoa".

Villabonako topaketa

Euskaltzale Independentisten Topaketak antolatuko ditu Euskal Herrian Euskarazek (EHE) urrirako, Villabonan, eta han

izango direla aurreratu dute. "Joan den zapatuan militante bat etorri zen azalpenak ematera, eta EHEren urteotako bilakaeraren berri eman zigun". Ixotu!-ko kide batzuk joango dira topaketetara, eta hilaren 7ko lanketetan hartuko dute parte: "Euskararen errepublikaren gaia jarriko da mahai gainean, eta horretarako, Amets Aranguren, Lorea Agirre, Amets Arzallus eta Eneko Bidegain izango dira". Euskalgintzaren erronka berriak aztertzea dute helburu topaketa horiek, besteak beste.

HISTORIAKO PASARTEAK

Primo de Riveraren diktadura Aretxabaletako Udalean

1923ko urriaren 2an Udala desegin zuten eta Udal Batzordeko bazkideak izendatu zituzten zinegotzi

Goiena komunitatea

Aitor Antxia Leturia / ARETXABALETA

Borboien berrezarkuntza Canovas del Castelloren eskutik gertatu zen, Alfontso XII.aren sarreratik (1874) Alfontso XIII.a arte (1923). Miguel Primo de Rivera iritsi arte iraun zuen eta bere diktadura ezarri, erregearen oniritziarekin. Izan ere, hark izendatu zuen Gobernuaren buru eta Direktorio Militarren presidente.

Primo de Riverak bere hitzaldietako batean zera zioen: "Espainiako gaitzaren muina barruraino sartuta dago. Nekazarien jauntxokerian dago, eta gure ahaleginak hori errotik ateratzera bideratu behar ditugu. Hauteskundeetara berriz deitu aurretik, erakunde politikoek osatutako tresna guztia suntsitzen saiatuko gara".

Horregatik guztiagatik, eta Administrazioa berritu nahian, irailaren 30eko Errege Dekretu baten bidez udalak desegin zituen, eta zinegotzien ordez militarren agintaritzapean zeuden batzordekideak jarri. Aretxabaletan, honako hauek ziren zinegotzi: Eustaquio Alcorta (alkatea), Andres Izaguirre, Jose Maria Acha, Timoteo Echavarria, Bernardo Zubizarreta, Pablo Galdos, Felis Echabe eta Francisco Uribe Echavarria.

Udalbatza berria

1923ko urriaren 2an, Ceferino Diez Franco -Guardia Zibileko

sarjentu eta Arrasateko komandantea- presidente zela, Errege Dekretua irakurri zen, eta behin Udala desegitea aginduta, Udal Batzordeko bazkideak izendatu ziren zinegotzi. Honako hauek izan ziren izendatuak: Donato Larrañaga, Gregorio Idigoras, Jose Garay, Donato Echeverria, Pedro Zubizarreta, Leocadio Arana, Pedro Ugalde, Francisco Abasolo eta Jose Andres Galdos. Hautagaien artean bozketa egin da, hala banatu zituzten karguak; alkatea: Pedro Zubizarreta Mugica; lehenengo alkate-ordea: Donato Larrañaga; bigarren alkate-ordea: Jose Garay Vergara; eta sindikoa: Jose Andres Galdos Urrutia.

Ignacio Usandizaga idazkariak Udal kontuak azaldu zituen 1.342,93 pezetako gerakinaren berri emanez.



Udaletxea, 1923an. GURE GIPUZKOA

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

ARETXABALETAKO SAN MIGEL JAIK

GOIENA TELEBISTA, 'JAIK' SAIOA
URRIAREN 3AN, MARTITZENEAN,
19:30/21:30 ETA 23:30



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaude.





Beñat Errasti, Iñigo Beitia, Jon Ibabe, Mikel Balanzategi eta Julen Etxabe bizikleta gainean, Balkanetan. XABI URIARTE

Balkanak: 1.000 kilometro bizikletan

Eskoriatzako 'Ostegun bidaiariak' ekimenaren hamargarren edizioa izan da aurtengoa. Hiru bidaiaren kontakizunak entzun ahal izan dituzte Zaldibar antzokira gerturatu direnek, eta horietako bat izan da Beñat Errastik bost lagunekin egindakoa

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Eskoriatzako Udalak antolatutako *Ostegun bidaiariak* egitasmoan hiru hitzaldi eskaini dituzte aurten herritarrek; lehenengoa, Maialen Salidok eman zuen, eta Txekiar Errepublikan eta Eslovakian bizitako abenturak partekatu zituen jendaurrean. Bigarrenean, *Balkanak: 1.000 kilometroko bizikleta abentura* izenburupean, Beñat Errastik bost lagunekin egindako bidaia izan zen kontatutakoa, eta atzo, eguena, izan zen azken kontakizuna. Roman Ezeizak sei egunez Euskal Herrian zehar bizikletan egindako abentura kontatu zuen jendaurrean.

Irudiak eta bitxikeriak

Aurtengo edizioko bigarren kontakizunak osagai guztiak izan zituen: argazkiak, bideoak, bitxikeriak eta umorea, horien artean. Beñat Errasti, Xabi Uriarte, Iñigo Beitia eta Jon Ibabe eskoriatzarrek Mikel Balanzategi aramaioarrarekin eta

Julen Etxabe arrasatearrarekin egindako bidaiaren berri eman zuten, Zaldibar antzokian. "Horrelako bidaiak egin izan ditugu bizikletan, eta oraingoan, Balkanetan egindakoaren berri eman genuen. Bizikletan, autobusean eta itsasontzian ibili ginen, eta hauxe izan zen egindako bidea: Kroazian, Dubrovnik hirian hasita, era zirkularrean, Bosnia, Kosovo, Montenegro, Albania, eta buelta, berriz, Dubrovnikera. Aurkezpenean, bizitako esperientzia kontatu genuen, eta, aurkezpen formala ez denez, oso gustura kontatu genuen. Bidaiaren prestaketa nola egin genuen, bitxikeriak kontatuz... Esperientzia ederra izan zen bidaia, eta baita kontakizuna ere", adiera-

HIRU EGUENETAN, HIRU KONTAKIZUN EGIN DITUZTE HAINBAT HERRITARREK, ZALDIBAR ANTZOKIAN

zi du Beñat Errasti eskoriatzarrek.

Edizio borobila

Hamargarren edizioarekin "pozik" agertu dira antolatzaileak, eta hizlariak oso ondo aritu direla adierazi du Mari Carmen Arrietak, Eskoriatzako Udaleko Euskara teknikariak: "Urtero profil ezberdinetako pertsonen kontakizunak entzuten ditugu, eta aurten ere horrela izan da. Iaz, esaterako, bi hizlari izan genituen soilik, eta, aurten, hiru kontakizun egitera bueltatu gara. Balkanen gaineko bidaiaren kontakizunean, esaterako, aurkezpen oso originala egin zuten, argazki eta bideoekin, bidaia nola antolatu zuten adieraziz... Maialenek ere oso kontakizun ederra egin zuten, eta Roman Ezeizak ere, Errastiren moduan, bizikletan egindako bidaia kontatu zuen, kasu horretan, Euskal Herrian. Egitasmoarekin pozik, datorren urtean ere antolatzeko asmoa dugu".

Bolibar elizateko jaiak antolatu dituzte asteburu honetarako

Zapaturako, egun osoko programa dute prest, eta domekan, berriz, meza eta luntxa izango dira

I.B. ESKORIATZA

Bolibar Ugatzuko bizilagunek, Eskoriatzako Udalak lagunduta, Bolibarreko San Migel jaiak antolatu dituzte asteburu honetarako.

Zapatuan 10:00etan hasiko dituzte jaiak gazteen pilota partiduekin; 10:30ean, umeentzako jolasak antolatu dituzte; 12:00etan, sanmigeletako meza izango da San Migel elizan; 12:30ean, helduen pilota partiduak egingo dituzte, eta, 14:30ean, auzo bazkarian paella jango dute bertan batzen direnek. Ondoren, Dor-

leta eta Leire trikitilariak girotuko dute bazkalostea. Antolatzailleek adierazi dutenez, egun guztian barra ere jarriko dute musikaz girotuta.

Arratsaldean, berriz, 16:00etan, haurrentzako ginkana izango da; 17:30ean, txapel jaurtiketa lehiaketa, eta 18:00etan, DJ Motok borobilduko du eguna bertaratzen direnentzat, musika estilo ezberdineko kantuak jarritz. Domekan, berriz, 11:00etan, meza izango da hildakoen omenez, eta, ostean, luntxa izango da bertaratzen direnentzat.



IMANOL SORIANO

Lore-sorta eta txapela nagusienei

Domekan, 65 urtetik gorakoek omenaldia jaso zuten frontoian. Guztira, 135 lagun elkartu ziren, eta herriko komertzioek opariak banatzeaz batera, bazkarira joandako emakume eta gizonezko nagusienak omendu zituzten: Brigida Carrasco, urrian 100 urte beteko dituena, eta Jose M^a Romarateabala, aste honetan 91 urte beteko dituena.

Hileko azken egubakoitzeko kontzentrazioa, gaur

Hileko azken egubakoitzeroko moduan, euskal preso, iheslari eta deportatuen aldeko kontzentrazioa deitu du Eskoriatzako Presoen Lagunak taldeak. Gaur izango da, 19:00etan, baina ezberdina izango dela adierazi dute. Oraingoan, Aitor eta Galder gazte arabarren espetxeratzea salatzekeo elkartuko direla adierazi dute antolatzaileek.

Gaztelekuan talo tailerra egingo dute gaur eta bihar

San Migel jaiak direla-eta, nera-beekin talo tailerra antolatu dute Eskoriatzako gaztelekuko hezitzaileek. Gaur, egubakoitza, batuko dira 17:00etan, gaztelekuan bertan, eta taloak egiten ikasi ostean, arratsalde amaieran afari-merienda ederra egingo dute prestatutakoarekin. Bihar ere, zapatuan, ekintza bera egiteko asmoa dute, ordu berean hasita.

"Helduei ipuinak kontatzeko beharra dut"

DORLETA KORTAZAR ALKOZ IPUIN KONTALARIA

'Heldu da kontua' kontalaritza sorkuntza sariak banatu dituzte, eta Dorleta Kortazar ipuin kontalari eskoriatzarraren 'Ispiluak' izan da lan sarituetako bat

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA II. Helduentzako Kontalaritza Sorkuntza Sariak baditu irabazleak. Alde batetik, Joxe Aldasoro *Mingots eta Langarratik* lanarengatik izan da saritua, eta, beste aldetik, Dorleta Kortazar (Eskoriatza, 1974) *Ispiluak* lanarengatik. Saridunek helduentzako Euskal Kontakizun Zirkuituan parte hartzeko aukera izango dute, eta egitasmoan parte hartu duten Arrasate, Berriz, Etxarri Aranatz, Eskoriatza, Gasteiz, Iruraiz-Gauna, Ozaeta-Barrundia, Tolosa eta Zizurkil herrietan izango dira saridunak kontaketak egiten.

Zer esan nahi du zuretzat Heldu da kontua zirkuituan sariduna izateak?

Heldu da kontua zirkuitua bigarren urtez egin den ekimena da. Ipuin kontalariok urtean zehar zenbait topaketa egiten ditugu, eta horietako batean irten zen helduentzako zirkuitu baten beharra zegoela. Behar horri erantzuteko sortu zen egitasmo hau. Alde batetik, zirkuitu bat sortzea ezinbestekoa izan da, eta horretarako zenbait herritara eta erakundetara jo da. Helburua zen ikuskizun minimo batzuk egitea, eta zenbait herri konprometitu dira horretarako. Sarietaren bigarren partean, berriz, ikuskizuna egiteko ikus-



Dorleta Kortazar Santa Marinaran. I.BELOKI

kizuna aukeratu behar zen. Hainbat proposamen aurkeztu genituen, eta bi izan dira aukeratuak: bata, nirea, *Ispiluak* lana, eta, bestea, Joxe Aldasorearen *Mingots eta Langarratik* lana. Hala, zirkuitu horretan ipuinak kontatzeko ditugu.

Zer eskainiko duzu Ispiluak ikuskizunean?

Aspalditik buruan nuen ideia bat zen, garatzen ari nintzena, eta sariketa honek eman didan aukera izan da data bat ezartzea, eta proposamen bat bidali behar izana. *Ispiluak* ikuskizuna orain-

dik nire barruan bizi da, eta, emanaldirik egin ez dudan arren, gogotsu nago forma eman, eta kontatzen hasteko. Zenbait herritan izango naiz kontatzen; Eskoriatzan, esaterako, abenduaren lehen izango naiz. Horrez gain, Berrizen, Gasteizen, Tolosan... izango naiz. Pozik nago; izan ere, Eskoriatzara zenbait emanaldiren ostean joango naiz, beraz, borobilduta izango dut ikuskizuna.

Helduentzako zein haur edo gazte literaturako gomendioaren bat egingo zenuke?

Sentsibilizazio lan bat egiten ari gara ipuin kontalariok, helduentzako ipuin kontalariak balioan jartzeko. Gustukoa izan ala ez, norbait ez bada sekula helduei zuzendutako ipuin saio batean izan, ikusteko gonbidapena egingo nioke. Seguru sorpresa hartuko duela eta espero ez duen zerbait aurkituko dela. Bizitzeko esperientzia bat dela esango nuke.

Beste hainbat proiektutan ere ari zara, ezta?

Azken aldirian, haur eta gazte literaturaren gomendioen hitzaldiak ematen ari naiz, ipuinak irakurtzeko formakuntza saioak eskaintzen... Aste honetan, Salamancan eta Zamoran izan naiz ipuin kontakizunak egiten.



Labidea ibilbideko zuhaitz batean txakur-kakak uzteko zakarrontzia. GATZAGAKO UDALA

Iradozikuna modu originalean helarazi eta efektua lortu

'Labidea' izeneko ibilbidean txakur-jabeentzat zuzendutako zakarrontzi bat jarri du herritar batek

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Labidea izeneko ibilbidean – Dorleta Santutegira doan errepidearekin batera, herritik irten eta baso aldera doan irteera-egindako ekintzarekin pozik agertu dira Leintz Gatzagako udal ordezkariak. Hain zuzen ere, *Labidea* ibilbidean zakarrontzi bat agertu da zuhaitz batean eskegita txakur-kakak bertan uzteko adieraziz.

Txalotu, entzun eta erantzun

Ekintzaren berri jakin bezain pronto, Goienara oharra bidali dute Gatzagako Udaletik, eta Dorleta Elkorobarrutia Leintz Gatzagako alkateak ekintza txalotu du; honakoa adierazi du: "Azkenaldian, kalean entzun izan da txakur kakak direla-eta zerbait pentsa beharrean gaudela..., eta norbaitek pentsa eta egin!. Labidean, etxean eginda-ko zakarrontzi bat eskegi du".

Horren baitan, gaia bera herrian bolo-bolo ari dela, eta jarri duena nor izan daitekeen apustuak ere hasi direla ziurtatu du Elkorobarrutiak. "Txakurrarekin sarri pasioan hortik ibiltzen den herritar batek jarri duela ziurtatu digute...".

Ekintza txikien eragina

Zakarrontzia nork jarri duen alde batera utzita, txakur kakak batzeko zakarrontzia jartzeak zer pentsa ekarri diela adierazi dute Leintz Gatzagako udal ordezkariak: "Ekintza txikiak eragin handia izan dezakete; txakur jabe denek ez dute modu berean jarduten, eta Gatzagako Udalak ere txoko garbiak eskatzeko baliabideak jarri beharko ditu. Udalekoon partez, beraz, mezua jasota! Zakarrontziak jarriko ditugu. Iradozikun bat helarazteko bide original eta efektiboa izan da".

Hasi dira berriketan

Auzoko eta Berbalagunak egitasmoek hasi dute ikasturte berria, eta batean zein bestean izen-ematea zabalik dute herritarrek. Hori horrela, interesa duenak 661 74 63 76 telefono zenbakira deitu dezake, eta Nereaz galdetu, edo helbide elektronikoa hauetara idatzi: berbalagunak@gmail.com edo auzoko.eskoriatza@gmail.com.



BERBALAGUNAK ESKORIATZA

Urriaren 4a aurretik eman beharko dute izena postua jartzeko

Azaroaren 12an sanmilixanak ospatuko dituzte Leintz Gatzagan, eta ohiko artisau azoka izango da beste urte batez, plazan eta frontoian. Bertan parte hartu nahi duten artisauak urriaren 4a baino lehen udal webgunean dauden eskaera eta oinarrietan jasotako dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute udal bulegoetan.

Gatzagako Udalak ezarritako oinarriei eta baldintzei dagokienaz, azaroaren 12an bertan egin beharko dute artisauak postuen muntaketa 09:00etatik 10:00etara, eta desmuntaketa, berriz, 14:30etik aurrera. Gainera, postuak neurri jakin batzuk izan beharko ditu –udal webgunean ikusgai–, eta erakusgai edo salgai egongo diren produktuen egilea bertan izatea derrigorrezkoa izango da, artisauak berak landu ez dituen produktuak ez baitira onartuko, besteak beste.

Hirigintza feminista eta zaintza eskolei ekiteko

2018an sortutako Jabekuntza Eskolaren urritik urtarrilera arteko egitarauaren berri eman dute Udaleko eta eragile feministetako ordezkariak; lehen ekitaldia gaur da, Irizarren (18:00), Uruguaiako eta Argentinako esperientzia bana ezagutzeko solasaldi batekin

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Udalak eta herriko eragile feministek urritik urtarrilera arteko jabekuntza eskoletako jardueren berri eman dute, eta lehen zita garrantzitsua gaurko, irailak 29, iragarri dute Irizar jauregian (18:00). Izan ere, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxarekin elkarlanean, solasaldia antolatuko dute Silvana Pissanorekin (Uruguai), Carolina Medinarekin (Argentina) eta Vanesa Fontanellazekin (Argentina). Solasaldiaren aurretik, bisitariak Arrasateko Emakume Txokoa ezagutuko dute; bazkaldu ondoren, Kartze-la Zaharra ere ikusiko dute.



Udaleko eta eragile feministetako ordezkariak, gaurko solasaldia iragartzen. L.Z.L.

Uruguaitik eta Argentinatik

Uruguaiako Montevideoko B udalerriko alkate Silvana Pissano izango da hizlarietako bat. Fronte Zabaleko kidea, arkitektoa eta feminista da. Alkate den eremuan zaintza eta hirigintza uztartzeko egindako lanaren inguruan arituko da. Argentinako Cordoba hiriko Casa Comunitad elkarteak Carolina Medina eta Vanesa Fontanellaz ere dira etorriko dira. Aktibista feministak dira, eta Casa Comunitad elkarteak posizioanamendu "antikapitalista, antikolonial eta antipatriarkal batetik" egindako lana emango dute ezagutzera.

"Agerikoa da gizarte gisa bizi dugun zaintza-lanen krisi sistemikoa; hori dela eta, Emakumeen Mundu Martxak zaintzei buruzko elkarriketa eta hausnarke-ta bultzatu nahi ditu, bi esperientziaren ezagutzatik abiatuta: bata, sektore publikokoa, eta bestea, eremu komunitariokoa", adierazi du Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako kide Luciana Alfarok.

Nobedadeak ikasturte berrian

Jabekuntza Eskolaren bueltan, ikasturte berrirako nobedadeen

IKASTARO GUZTIAK DIRA DOAKOAK; IZENA ONLINE EMATEKO AUKERA DAGO, UDALAREN ATARIAN

berri eman du Berdintasun zinegotzi Ainhoa Letek. Nobedadeetako bat da jardueretarako izen-ematea online egiteko aukera egongo dela webgunearen bitartez *-Bergara.eus/berdintasuna-*. Izan ere, Berdintasun Zerbitzuko *bidelagun* figura ere sortu dute, hau da, jardueren gaineko informazioa online eta modu zuzenean jasotzeko aukera izango dute *bidelagun* egiten diren emakume guztiek. Eta, horrez gain, zaintzaren planaren barruan jasota duten aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen hasiko dira.

Ekimenari dagokionez, Berdintasun zinegotzi Ainhoa Letek zehaztu du zein den helburua: "Emakumeen parte hartze soziala eta politikoa sustatu nahi dugu, autoestimua, autoezagutza eta garapena bultzatuta. Elkar ezagutza sustatzea eta sareak

sortzea da beste eginkizunetako bat, eta jabekuntza eskolak badoaz poliki-poliki errotzen eta egozkortzen".

Martxanterak taldeko Maite Aristegik adierazi du "oso interesgarria" dela egitasmoa: "Gero eta argiago dago bakarrik ezin dugula ezer egin eta zaintzak erdigunean jartzen ari garen honetan elkarren beharra dugula denok. Beste esperientzia batzuk ezagutzea eta jabetzea ezinbestekoa da komunitatetik nola eragin dezakegun jakiteko".

Hainbat gai landuko dituzte

Urtarrilera arteko egitarauan, honako arlo hauek jorratuko dituzte, besteak beste: edertasun kanona, emakume migratue-dako topalekuak, helduaroko autoezagutza eta autozaintza, begirada feministatik landutako argazkigintza edota gazteei zuzendutako autodefentsa feminista. Emakume Etxea Arrizuriaga jauregian egokitu bitartean, UNEDen, Irizarren, Ehunduko bulegoan edo Agorrosinen egingo dira saioak. Ikastaroetan nahiz tailerretan izena emateko, bi modu daude: 943 77 91 00 edo *berdintasuna@bergara.eus*.



Saihesbiderako zubia izango da asfaltatuko duten eremuetako bat. B.U.

Asfaltatze lanak lau gunetan, 45 bat eguneko exekuzio epearekin

Datozen egunetan hasiko dira lanak behar handiena duten herri barruko guneeetan; aurrekontua 157.024 eurokoa da

J.B.L. BERGARA

Udalak asfaltatze lanei ekingo die herriko lau puntutan: Agirreña inguruan, Ertzaintzaren komisaldegaren atzeko bidegorrian, Ibargarai kaleko aparkaleku publikorako sarreran, eta saihsbiderako sarrera inguruan. Lanek 157.024 euroko aurrekontua dute. Urriaren 2an, 3an eta 4an, Ibargarai parkingetako sarbidea itxita egongo da.

Agirrebeñako eremua da Udalaren obrako materiala biltegitratzeko kanpoaldea, 1.500 metro koadrokoa. Ertzain-etxe atzealdeko bidegorria ere berrituko

dute, 170 metro koadroko azaleran. Ibargarai kaleko parkingari dagokionez, harrizko galtzada da aparkalekuan sartzeko ibilgailuen zirkulazio eremua eta egoera txarrean dago, ur istilak sortzen dituzten kokalekuak baititu; aparkalekuaren sarrerarako zeharkatzen diren baldosazko zoladura-eremuak ere egoera txarrean daude. Azkenik, ertzain-etxearen ondotik saihsbiderako eremua ere berrituko dute, 1.900 metro koadroko azaleran, egoera txarrean dagoelako -zubia, bidegurutzea eta Ibargarai kalerako sarrera-.

Adinekoen Egunaren bueltan, herriko batzordearen aurkezpena

Urriaren 3an aurkeztuko dute adinekoen kontseilu berria, Irizarren (18:30); Arin zentrorako ate irekiak ere badaude

J.B.L. BERGARA

Adinekoen Nazioarteko Eguna ospatuko da domekan, urriak 1, eta Bergaran ere antolatuko dituzte ekintzak Udalaren eta adinekoen bueltan lanean diharduten herriko eragileen artean. Irailaren 30ean -11:00etatik 13:00etara- eta urriaren 4an -17:30etik 19:30era-, San Joxepe elkartearen egoitzan kokatuta dagoen Arin eguneko zentroan ate irekiak antolatuko dituzte, 11:00etatik 13:00etara. Urriaren 1ean eta 2an, *El viaje de Harold* filma ikusi ahalgo da Seminari-

xoan (19:30); urriaren 2an, astelehenetako ohiko elkarretaratzeaz gain, adierazpen bat irakurriko dute, salda eta txorizoa egongo da eta abestu ere egingo dute; urriaren 3an, Bergarako Adineko Kontseilua aurkeztuko dute Irizarren (18:30); araudiaren aurkezpena eta mahai-ingurua egingo dira, eta beste kontseilu batzuetako kideek hartuko dute parte bertan. Amaitzeko, urriaren 5ean, Bergara Oinez ekimena irtengo da Agorrosindik (10:00) eta *Trapos* antzezlanak ikusi ahalgo da Seminarixoan (19:30).

Udal langileen artean jarrera desegokiak ekiditeko *Zero tolerantzia* aitorenaren bozketa, asteleheneko bilkuran. J.B.L.

Protokoloa martxan dute, "tratu-berdintasunerako"

Udaleko "hainbat langileren aldetik" lan esparruan izan diren "jarrera desegokiak" eraginda, "ezinbestekotzat" jo dute Antolaketa batzordean *Zero tolerantzia* izeneko protokoloa osoko bilkuran landu eta aho batez onartu ostean langileei zabaltzea

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Bozkatu ziren puntu guztiak onartu ziren aho batez asteleheneko bilkuran –Gorka Artola alkatea ez zenez egon, Ainhoa Letek egin zituen gidari lanak–. Udal taldeen arteko eztabaidarik gabe eta 15 minutu iraun zuten batzarrean, erabaki aipagarriena izan zen udal langileen artean jarrera desegokiak ekiditeko *Zero Tolerantzia* adierazpena.

Hala dio testuaren hasierak: "Udalean hainbat langileren aldetik desegokiak diren hainbat jarrera ikusita, eta prebentzio teknikariarekin gaia aztertuta, ezinbestekotzat jo da Udalaren aldetik ondorengo adierazpena egitea [...]. Pertsonaren

duintasuna, intimitate pertsonala eta irudia, nortasunaren hazkunde librea, tratu-berdintasuna, diskriminazio eza, bai eta osotasun fisikoa eta morala ere, oinarritzko eskubideak dira, eta ukiezinak".

Adostu, eta neurriak hartu

EH Bilduko bozeramaile Maite Usabiagak nabarmendu zuen udal langileen artean "harreman osasuntsuak" sustatzea dela adierazpenaren helburua. EAJko Mikel Letek azpimarratu zuen batzorde batean jaso zutela gaiaren berri: "Batzorde batean enteratu ginen zenbait udal langileren artean jarrera desegoki batzuk izan direla eta horren

aurrean protokolo bat egiteko asmoa zegoela. Ados gaude horrekin, noski; ezin dira onartu errespetuzkoak ez diren jarrerak; ez Udalean, eta ez beste inon".

PSE-EEko Alberto Alonsoren ustez, "oinarritzkoa" da halako protokolo bat, eta neurriak hartzeko eskatu du: "Lan eremuan akaso ahazten den gaitetako bat da langilearen egoera psikosoziala. Askotan, aspektu fisikoetan zentratzen gara, baina arlo psikosoziala ezin da ahaztu; herri-tarrei mezu argia bidaltzea dagokigu esanez Udalean ez dela inolako jazarpenik onartuko. Oso ondo dago adierazpena onartzea, baina gero neurriak hartu behar dira".

Agintaldiak bete ditu lehen 100 egunak

Irailaren 25ean bete zituen lehen 100 egunak 2023-2027 udal agintaldiak. EH Bilduren Udala Gobernuak lehen hiru hilabeteen balorazioa egin zuen bilkuraren amaieran. "Balorazio oso baikorra egiten dugu orain arte. Izan ere, agintaldi honetan izango dugu aukera aurreko lau urteetan martxan jarritako gaiei eta lanketei jarraipena emateko; gure lan metodologiak aukera

eman digu etena oso motza izateko. Jarraipen horren adibide ikusgarrietako batzuk honako hauek dira: azokako obrak martxa onean doaz; Zabalotegiko umeen parkea amaitu da; edo Labegariaietan ur txorrotak jarri dira. Eta badira horren ikusgarriak ez diren adibideak ere: eratzear da adineko pertsonen batzordea; zaintza planaren barruan

kontrataziorako aholkularitza zerbitzu bat jarri da martxan", esan zuen Maite Usabiaga bozeramaileak. Era berean, udazkenean aurkeztu nahi duten gobernu plan berriak bost ildo nagusi izango dituela aurreratu dute: arnaguneak, euskara, zaintza eta bakardadea, etxebizitza eta komertzioa.

Bestalde, EAJK eta alderdi sozialistak Udala Gobernuaren jarduna aurrerago baloratuko dutela adierazi zioten GOIENARI.



AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

'Adiskide numerarioa' da Moñux

Irailaren 23an egindako ekitaldi berezian izendatu zuten *adiskide numerarioa* Valen Moñux, "Bergarako ondare artistikoa eta kultura musikala sustatu izanagatik". Moñuxek esan zuen "ohore bat" dela izendapena, "deskribatu ezin dudan zoriontasuna". Seminarixoko unerik hunkigarrietako bat izan zen haren emazteak eta seme-alabek abesti bat eskaini ziotenean.

"Sekulakoa" izan da Marokorako material bilketaren erantzuna

Marokoko lurrikarek kaltetutako laguntzeko materiala batu dute Al Badr komunitateak eta Aranzadi ikastolak. Irailaren 18tik 27ra, kanpin-dendak, karpak, lo-zakuak, mantak eta askotariko arropa jaso dute: "Sekulakoa izan da, ikastolako sarrera bizpahiru aldiz berrantolatu behar izan dugu ez zelako guztia sartzen. Eskerrik asko!".



Batu duten materiala. ARANZADI

OHARRAK

Mintzalagun taldeak, dena delakoa hizkuntza

Udalak Hizkuntza Taldeak sortu ditu aurten ere, atzerriko edozein hizkuntza irakaslerik gabe praktikatu nahi duenari begira. Bihar da izena emateko azken eguna: *Bergara.eus*.

Simon Arrieta Pintura Lehiaketako lanak

Udaletxeko areto nagusian daude obrak ikusgai, domekara arte.

Beart-en eskutik, sorkuntza tailerra

Urriaren 6an hasiko da Amaia Santamaria irakasleak gidatuko duen ikastaroa. Izena emateko: 690 25 14 50.

Aranzadi: Kilometroak jaialdirako autobusa

Urriaren 1ean 09:30ean irtengo da autobusa Bergaratik, eta 19:00etan itzuliko da Oreretatik. Prezioa da 15 euro eserlekuko.

1943an eta 1960an jaiotako ospakizuna

1943koek urriaren 7an Zumelagan bazkalduko dute. Izena eman behar da gaurko: 645 72 27 10 (Carlos) eta 687 30 84 69 (Maria Antonia). 1960koek azaroaren 4an Zumelagan bazkalduko dute (14:30); urriaren 15erako eman behar da izena, Igarza harategian (Alicia) edo Barrenkaleko estankotan (Josefina).

Ekintzailtza gertutik ezagutu dute gazteek

Eguazten goizean egin zuten Ekinolaren hirugarren edizioa Miguel Altunan, eta gazteek ekintzailtza prozesua jorratu zuten, lehenik, mahai-inguruarekin eta, gero, eurek garatu zituzten ideiekin; talde irabazleak 1.000 euroko saria jaso zuten

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Miguel Altuna Lanbide Heziketako eta Mariaren Lagundiko 80 ikasle inguru elkartu ziren eguaztenean Miguel Altunan egin zen *Ekinola Etorkezuna zure eskuetan* ekintzailtza jardunaldietan. Hirugarren aldiz antolatu dute ekimena bi zentroek, Bergarako Udalak eta Enpresare elkarrekin, Debagoieneko Mankomunitatearen eta Tknikaren laguntzarekin.

Ekintzailtza bultzatzeko ekosistema garatzen jarraitzea enpresen eta ekintzaileen arteko harremanak sortuz, negozio ideia berritzaileak partekatu eta lantzea, ekintzailtza espirtua sustatzea sentsibilizazio lankekin edota enpresa berrien sorrerarako baliabideen mapa ezagutzera eman eta laguntza eskaintzea dira helburuak. Hala, taldekako jardueran murgildu aurretik, bertako ekintzaile eta enpresen testigantzak lehen pertsonan entzun ahal izan zituzten ikasleek, mahai-inguruan; Mikel Larrañaga 'Remak' muralista, The Badass Projecteko Jone Albeniz eta Ion Andueza, TTTn gerente lanetan dabiren Oihana Larrañaga, eta Enarak kooperatibako Katherine Astudillo nahiz hari enpresaren sor-kuntzan lagundu dion Ariane Kareaga izan ziren hizlariak.

Idea onenari saria

Partaideek euren ideiak eta negozio ereduak garatu zituzten, ondoren, hamar kideko zortzi taldetan banatuta, Tazebaz aholkularitza kooperatibak dinamizatutako saioetan. Aholkularitza taldeko dinamizatzailea da Miren Fernandez, eta gaineratu zuten ikasleak "oso aktibo" egon zirela eta "giro ona" izan zutelako goizean zehar. Industria, zaintza, kultura, etxebizitza eta kulturartekotasuna izan ziren landu behar izan zituzten gaiak:



Ekinola jardunaldietan parte hartu zuten zenbait ikasle. I.A.A.

"Ekinolan berrikuntza irekiko prozesu bat jarraitzen da; erronkatik irtenbidera salto egiten du ikasleak. Hortaz, goiz osoan zehar, soluzio eta irtenbide ezberdinak eman dizkiete jasotako erronkei". Proiektuak garatuta, epaimahaiaren aurrean aurkeztu zituzten eta, 65 puntu eskuratuta, Palets Imeju taldearentzat izan zen negozio ideia onenaren 1.000 euroko saria.

Enpresa eta ekintzaileen zubi

Aurtengo ediziorako partaide kopurua 20tik 80ra igo dute, eta

egunaren balorazio positiboa egin zuten Ainhoa Lete Bergarako alkateordeak ekitaldiaren amaieran. Gainera, halako jardunaldiek ematen dituzten baliabideak izan zituen hizpide: "Elkarren beharra dute enpresek eta ekintzaile gazteek, eta jardunaldi hauek horretarako zurbia ere badira. Bergarako historikoki izan du ekintzailtzarako grina, eta ekimen honekin izarra hori indartu eta sustatu nahi da, gazteei enpresetan txertatzeko bidea egiten laguntzarekin batera".

Lacor-lbili enpresari aitortza

Aurtengo edizioan, Lacor-lbili enpresa bergararra omendu zuten Bergarako Udalak. "Garai berrietara egokitzeko erakutsitako ahalmen eta adorea" eskertu zioten: "Lacor-lbilik ibilbide luzea dauka, globalizazioa egokitu dira, eta munduko merkatuan posizionamendu on bat lortu dute egin duten ibilbideagatik".

Izaskun Larrañaga Lacor-lbiliko kontseilari delegatuak esker hitzak izan zituen: "Omenaldiak beti dira politikak eta gogoz hartzen dira. Gure lana ondo egiten ari garela esan digute, eta pozik gaude". Gazteei ere bidali zien mezua: "Ekintzailtasuna lehenengo pausoa da. Lanerako eta jakiteko gogoa behar dira. Ibilbidea egiteko pausok eman behar dira, eta hurrengo helburuak beti hurrengo pausoa izan behar du".

Mila Elortza izendatu dute Angiozarko alkate bosgarrenez

Ohi den moduan, San Migel jaietako domekan egin zuten izendapena; halaber, gaur amaituko dira festak

I.A.A. BERGARA

Angiozarren San Migel jaiak ari dira ospatzen, eta egitarauaren barruan, alkate kargua hartu zuten Mila Elortzak joan den domekan. Bosgarren agintaldia badu ere, izendapena "ilusio handiarekin" hartu duela aitortu du: "Beti hartzen duzu kampaia berri bat gogoz. Baina oraingoan, ilusio handiagoarekin. Egin genuen lehen bileran auzo guztietako ordezkariak etorri ziren, eta prest daude lan egin eta laguntzeko. Dagoeneko talde batzuk osatzen hasi gara". Erreleboaz galdetuta, uste du hurrengo hauteskundeetan etorriko dela aldaketa: "Ni hemen jaio, hazi eta bizi naiz. Beti egon naiz lanerako prest, baina bada etortzen joan den jendea eta beste gaitasun batzuk dituen; politikatik gertuago daude. Ni betiko ezaguna naiz eta lagunduko diet ahal den heinean bi-

zimodua errazago egiten, baina berriek lagunduko dute beste modu batera lantzen herri mugimendua".

Angiozarrek "erronka handiak" dituela gaineratu du; hala nola AHTa eta horrek sortutako arazoak, ur-sarea, eskola, adinekoak, bakardadea, gazteak, etxebizitza premia, Zaturikua etxearen erabilera eta Tokiko Entitate Txiki izateko prozesua.

Festak bide onetik

Iragan asteburuan eman zieten hasiera sanmigele Angiozarren, "giro onean". Atzo *Beste alde, gizona ez den hori* dokumentala eta *Angiozar 1936* liburua aurkeztu zituzten. Gaurko, San Migel egunerako, honakoa antolatu dute: meza jubilatuen abesbatzarekin (11:00), puzgarriak (12:30-14:30 eta 16:30-18:30), txokolatada (19:00) eta San Migelen iguera (20:00).



Mila Elortza Angiozarko alkatea, makila eskutan duela. A.R.K.

Urriko filmak iragarri ditu ZinemaOn zinema-klubak

ZinemaOn taldeak dagoeneko iragarri ditu urriko eguaztenean, 20:00etan, Seminarixoan ikusgai izango diren filmak: urriaren 4an, Ira Sachs-en *Pasages*; urriaren 11n, Nanni Morettiren *El sol del futuro*; urriaren 18an, Elena Martinen *Creatura*; eta urriaren 25ean, Richard Kellyren *Donnie Darko*. Sarrerak hiru euro balio ditu.

'Lehen sorospenak haurtzaroan' ikastaroa, urrian

Urriaren 14an, *Lehen sorospenak haurtzaroan* ikastaroa egingo da 09:30etik 13:30era bitartean, DYaren Martoko kaleko lokalean. Istripuak, ezta trabatzeak eta erreduak landuko dira. Doan da, baina 15 pertsonako taldea osatuko dute; gehiagok izena eman gero, zozketa egingo da. Izena emateko Bergarako Udalen webgunera jo daiteke.

"Bizitzarako baloreak ematen ditu karateak"

AITOR ETA CARLOS ALBISUA KARATE IRAKASLEAK

Bergarako bi anaia hauek 40 urte daramate karatean murgilduta; ikasleekin batera Japoniara doaz datorren astean, Munduko Shinkyokushinkai Txapelketa ikustera

Xabier Urzelai BERGARA

Aitor Albisua (Bergara, 1964) eta Carlos Albisua (1963) birritan egon dira Japonian. Azkeneko 2019an, gerriko beltzako laugarren dan maila eskuratze-ko azterketa egitera joan ziren, eta baita lortu ere. Orain lasaigo doaz, eta konpainia onean. Taldeko zortzi karateka egongo dira bi astez herrialde horretako kultura barneratzen, Munduko Shinkyokushinkai Txapelketa ikusten, eta karate seminarioan parte hartzen.

Lau hamarkada karatean. Zer dela-eta hasi zineten?

Gaztetan, badakizu... Bruce Lee eta halakoen filmak ikusten dituzu eta horrek erakarrita hasten zara karatean. Orduan (1982), hemen ez zegoen karate eskolarik, eta aldizkariak erosten genituen karatearen berri izateko. 17 urte genituela Bergaran karate eskolak ematen hasi ziren, eta han hasi ginen anaia eta biok. Hasieran seriotasun handi gabe, mailaz igotzeko azterketetara joateko asmo barrik... Baina poliki-poliki geroago eta gehiago sartzen joan ginen, ikusten duzu bizitzarako baloreak irakasten dizkizutela, sasoi onean egotea gauza ona dela, zu ere irakasle lanetan hasten zara... Eta gaur arte. 30

urte baino gehiago daramatza-gu eskolak ematen.

Gazteekin ere ibiltzen zarete lanean.

Bai, urte hauetan Bergarako neska-mutiko mordoia egon dira gurekin. Eta kalean *Sensei!* esanda errespetuz agurtzen zaituztenean pentsatzen duzu, tira, gauzak ez ditugu horren gaizki egin [Barreak]. Askotan ikusi dugu klaseetan, lagun

taldean makalena edo lotsatiena dena lagunek zela babesten duten; taldea egiten dute... Eta horrek asko pozten gaitu. Hona jendea ez da borrokan egiten ikastera etortzen; hona datozenek ez dute kalean borrokarik egiten; euren burua defendatzen ikasten dute, eta bizitzarako baloreak ikasten dituzte.



Japoniara doan zortzikoa

Japoniara Munduko Shinkyokushinkai Txapelketa ikustera joango diren zortzi bergararrak dira Aitor Albisua, Carlos Albisua, Jokin Elkoro, Aitor Ilarduia, Gorka Heis, Irati Albisua, Lander Urigoitia eta Miguel Lopez. Karate seminarioan ere parte hartuko dute.



Aitor Albisua, ezkerrean, eta Carlos Albisua, eskuman. X.U

Oraingoan, Japoniara gozatzera joango zarete...

Bai, aurretik egon garenean azterketak egitera joan gara, eta hori beste kontu bat izaten da. Egun gutxitako bidaiak izan dira; larrituta joaten zara azterketa garrantzitsua duzulako aurretik. Oraingoan, berriz, Munduko Shinkyokushinkai Txapelketa ikustera goaz taldeko zortzi kide, eta bi astez egongo gara turismoa egiten eta karateaz gozatzera. Espainiako Shinkyokushinkai federazioaren parte gara, eta bidaiak egingo dugun 14 lagunetatik zortzi Bergarakoak gara.

Karate seminario bat ere egingo duzue.

Bai, urriaren 17an eta 18an izango da hori. Maila handiko karatekak batuko dira hor, bertan parte hartzeko derrigorrezkoa delako gutxienez gerriko marroia izatea. Gure ikasleek 10 eta 30 urte bitartean daramate karatea praktikatzen, esperientzia handia daukate, eta seguru seminarioak ekarpen

handia egingo diela. Gauzak ikastera goaz hara.

Karateak ere badu Japongo kulturatik asko.

Bai, lotura estua dute, karatean han sortutako borroka-arteak delako. Beti esaten dugu Japongo kultura miresten dugula; hango ohiturak, gauzak egiteko modua, jendeari dioten errespetua... Merezki du hango kultura gertutik ezagutzea. Bizitzeko ez, hemen moduan ez ginatekeelako inon biziko, baina beste gauza askotarako Japon erreferentziatzeko tokia da.

Karatean aurrerapauso gehiago emateko asmorik bai?

Tira, lau urte barru osterara ere joan beharko dugu, bosgarren dan maila eskuratze-ko azterketa gainditzera.

"KARATE SEMINARIO BATERA GOAZ, ETA MUNDUKO TXAPELKETA IKUSTERA"

'Toto' nagusiendako antzezlan, zapatuan Seminarixoa (20:00)

X.U. BERGARA

Helduentzako antzerkia izango da zapatuan Seminarixoa (sarrerak *Seminarixoa.eus*-en edo egunean bertan leihatilan, 18:00etan hasita. Sarrera 8 euro), eta Miren Gojenola eta Asier Hernandez izango dira Mafalda Bellidoren lana taula gainean antzeztzen –Kepa Errasti aretxabaletarrak izan du lana euska-

ratzeko ardura, eta Agurtzane Intxaurrea da zuzendaria–.

Egileen esanetan, *Toto* komedia "olinpikoa" da. *Toto* Joseluk Mairi oparitutako txakurra da, baina halako batean txakurra galdu egiten da, eta txakurraren kustodia partekatu egiten du bikoteak; ondorioz, txakurra desagertzearekin batera bikotearen arteko harremana ere gainbeheran doa. "*Toto*-k maitasunaren zuri-beltzaz hitz egiten du oro har, bere magnitude kosmiko osoan".

Jose Miguel Zumalaberen erakusketa zabalik

Urriaren 15era bitartean, Jose Miguel Zumalaberen margolanak egongo dira ikusgai Aroztegin. Zumalabe donostiarra zen, baina Bergaran egon zen irakasle lanetan. Gerra Zibilean erbeste-teratuta, 1950ean irakasle lanetan jarraitzeko itzuli zen. Euskararen arloan ere nabarmendu zen, 1973an euskaltzain urgazle izendatu zuten.

Tolosaren eta Hernaniren kontrako pilota partiduak, gaur

Bergarako pilotariak gaur, egubakoitza, jokatuko dituzte etxeko norgehiagokak. 18:45ean hasita, kadeteen eta gazte mailakoen partidu bana jokatuko dituzte. Kadeteetan, Etxabek eta Etxeberriak Tolosako pilotariak izango dituzte aurrean. Gazte mailan, Otazuk eta Alberdik Hernanikoen kontra jokatuko dute.

Hondarribian hasiko dute liga zapatuan eskubaloioek

Gipuzkoako txapelketan ahalik eta goren egoteko helburuarekin hasiko du Soralue BKEk senior mailako denboraldia. Hondarribia izango dute aurrean, bihar, 18:30ean. Gazte mailako Goizper Bergarako neskek, berriz, irabazi egin zuten joan den astean (24-23), eta horiek ere kanpoan jokatuko dute bihar, Lezon, 11:30ean.



Kaleko bertso eskolako kideetako batzuk, astelehenean, Antzuolako gaztetxean. Erdian, Jon Mata irakaslea. KALEKO BERTSO ESKOLA

Zaletasunean eragin nahi du Kaleko bertso eskolak

Lagun talde bat bildu ohi da Kaleko bertso eskolan, baina herritarrengana heldu nahi dute, parte har dezaten. Ez da maila jakinik izan behar, eta hutsetik has daiteke; hein batean, bertsolaritzara gerturatu asmo dute jendea. Gazteagoentzat ere bada aukera

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Herriko bertsozaletasunean eta bertsolaritzan eragitea du helburuetako bat Kaleko bertso eskolak. Iaz hasi zen lagun talde bat bertsotarako elkartzen, formatu formalik gabe, lasai jarduteko. Ikasturtea hasita zegoen ordurako, baina, aurten, eskolak hastearrekin batera ekin

diote lanari. Hamar pertsona inguruk osatzen dute -23 eta 33 urte artekoak-, baina Jon Mata bertso eskolako irakasleak azaldu du gonbidatuta daudela gazteagoak eta helduagoak ere. "Giroa oso ona da, eta elkar ezagutzeak asko laguntzen du lotsari aurre egiten".

Matak jakinarazi duenez, gainera, ez dago inongo maila baten

beharririk bertso eskolara gerturatzeke. "Parte hartzaileen gehientsuenak bertsozale soilak ziren; errimatzeke arauak, neurriak eta abarrak ezezagun zizuten hasieran. Norbait berria datorrenean pixka bat teoria hori errepasatu eta poliki-poliki hasten gara". Parte hartu nahi dutenei, beraz, lasai gerturatzeke deia egin die irakasleak, el-

karrekin ikasiko dutela nabarmenduta.

Askotariko moldeetan

Bertso eskolako ikasle bakoitzak estilo propioa du, eta baita nahia ere. Batzuk ez daude prest jendaurrean aritzeko; beste batzuek bertso idatziak nahiago dituzte; eta bada bertsoaren oinarria ikasi nahi duenik ere, bat-batekotasunari garrantzia emanda. Hain justu, eskoletan ere, normalean, bat-batean aritzen dira. "Norbanako lana bakarka etxean ere egin baitaiteke. Baina ez da derrigorrezkoa den zerbait. Garrantzitsuena, lotsa gutxi izatea da, eta gogo handia".

Era horretan, bertsolaritzan sakontzea dute helburu bertso eskolan; animatuz gero, baita zerbait gehiago egitea ere. "Sarrri hitz egin izan dugu herri mailako bertso afariren bat edo ikuskizunen bat prestatzeaz; baita herri arteko txapelketaren bat egitea ere, umoretik jota". Halere, Matak esan du ikusteko dagoela zein izango den Kaleko bertso eskolaren ibilbidea.

'Kale' hitzaren esanahia

Astelehenero elkartzen dira bertsotan aritzeko, 19:00etan, gaztetxean. Hala ere, aurrez zehaztu ohi dute hitzordua, norbaitek kale egingo ote duen jakiteko. Hor baitago bertso eskolaren izenaren esanahia.

Bertsozale Elkartetik eskatu zioten Matari Antzuolako bertso eskolaren izena, eta Whatsapp taldera jo zuen proposamen eske. "Kaleko bertso eskolak grazia egin zigun, *kale* horrek dituen zentzuengatik. *Kale* da, kaleko edozeinentzat; *kale*, bertsotan kale edo akats ugari egiten ditugulako; baina *kale*, batik bat, astero azaltzea ezinezkoa delako

taldeko askorentzat, lanagatik edo konpromisoengatik".

Baita gazteagoentzako ere

Bertsozale Elkarteak eta Udalak ere bertso eskola jarri nahi dute martxan, Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik gorakoentzat. Martitzena izango da izena emateko azken eguna, eta Mata, berriz, irakaslea. "Iaz umeez bazuten nahia, baina ezinezkoa izan zen irakasle bat topatzea; aurten, proposamena egin, eta baiezkoa eman nien elkartekoei".

Beste aldi batzuetan ere egon izan da bertso eskola Antzuolan. Herri Eskolan ere programak egin izan dira bertsolaritzara gerturatzeke, baina aisialdira zabaldu nahi zuen Udalak, aisian ere bertsoak lekua izan zezan.

Hori gogoan, Matak nabarmendu du bertso eskolaren asmoetako bat umeei bertsotan egiteko aukera zabaltzea dela, baina ez hori soilik. "Hitzekin jolas egitea da, ongi pasatzea eta barre egitea; umeen artean sentsazio hori zabaltzea ederra litzateke". Horrez gain, uste du bertsolaritzaren "funtzio kulturala eta euskararekiko gertutasuna oso aberatsak" direla. Hori ere transmititu asmo dute.

Hala, kuriositatea duen oro animatu du parte hartzera, bertso kopla batekin, *Sorterriko Koblak* doinuak: "Kontu eta barre pila / ez da behar izan abila / ondo pasatzea nahi duenak / lasai anima dadila, lasai anima dadila".

LAUGARREN MAILATIK GORAKOENTZAKO BERTSO ESKOLA ERE BADA; ORAINDIK IZENA EMAN DAITEKE

"Denboraldiko erregulartasuna da azpimarratuko nukeena"

UNAX ERRASTI TXIRRINDULARIA

Denboraldia ez ezik, kategoria ere agurtu du Errastik

A.R.K. ANTZUOLA

Txirrindularitzako denboraldia amaitu berri du Unax Errasti antzuolarrak, eta ez da edonolako bukaera izan, Uzarragako igoeran garaipena eskuratu baitzuen pasa den domekan.

Zorionak, Unax! Zer moduz zaude?


Oso pozik. Oso motibatuta nengoen azken lasterketarako. Nahiz eta gertu ibili, oraindik irabazi gabe nengoen, eta hainbeste kostatzen eta gero, etxean irabaztea oso pozgarria izan da niretzat.

Etxean izanda, gehiago gozatzen da garaipena; herritarrekin ere eskertuta nago.

Nolakoa izan da denboraldia?

Balantzea oso ona da. Kategoria honetan inportanteena, gozatzeaz gain, ikastea da, eta, beraz, asko ikasteko denboraldia izan da. Emandako mailarekin ere oso pozik nago. Egia da batzuetan errematatzea kostatzen zaidala, baina pozik gelditu naiz. Erregulartasuna azpimarratuko nuke.

Maila txukuna eman dut Euskal Herrian zein Espainian.



Unax Errasti txirrindularia. UNAX ERRASTI

Maila internazionalen ere korritu dugu, eta uste dut nahiko txukun ibili naizela.

Kategoriari ere agur esan diozu. Zer egingo duzu orain?

Bai, eta Ulma ekipoarekin ere etapa bat bukatzen dut; oso eskertuta nago. Orain, 23 urtez azpikoek mailara pasatuko naiz, eta tokatzen dena da kategoriarra moldatzea, ahal den heinean taldeko zein pelotoiko esperientzia gehien duten jendearengandik ikastea. Eibar taldean korrituko dut.

"Filma parada bat izaten ahal da trukearentzat"

PETTE ETXEBARRIA 'OIOGORRI' FILM LABURRAREN ZUZENDARIA

Aiherra eta Antzuolaren arteko senidetzea du oinarri lanak, eta zuzendaria urriaren 4 eta 5ean arituko da filma grabatzen Antzuolan. Herritarrek deitu ditu parte hartzera

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoari esker, *Oiogorri* filma grabatuko du Pette Etxebarria (Barkoxe, Zuberoa, 1985) zinemagileak, Aiherran eta Antzuolan. Urriaren 4 eta 5ean arituko da Antzuolan, eta lanaren gaineko xehetasunak eman ditu herritarrei parte hartzeko deia egitearekin batera. Interesa izanez gero, udaletxean eman daiteke izena.

Zein izango da lanaren oinarria?

Filmaren istorioa azkenean aski sinplea da. Gizon batek bere oiloa galtzen du, berarekin bizi da, eta oiloaren atzetik ari da mendian-eta. Hori da istorioaren hasiera, narrazioaren gauzarik inportanteena. Bilbotik abiatu, eta mendiz mendi ibiliko da, Zuberoara ere iritsi arte; tartean, Aiherran ere izango da. Pixka bat umoretsua izango da; burleskoa izateko asmoa du.

Ander Lipusek gorpuztuko al du gizonezko hori?

Bai, hori da.

Izango al da beste protagonistarik?

Bera izanen da protagonista, baina izango da parte hartuko duten gehiago ere, figurazio lanean arituko direnak. Film kasiki osoan ez da hitzik entzuten; mutua-edo izanen da, ez da elkarriketa aunitz. Irudietan oinarrituko da gehiago. Orduan, agertuko dira beste pertsonaia batzuk, baina protagonistatzat ez dute hitz eginen.

Horregatik, beraz, deia herritarrei parte hartzera...

Batetik, figurazio lana egingo dute; horrek sinesgarritasun gehiago ematen dio, karrikan ibiltzen delarik. Baina motibatuak direnek antzerkia lantzeko posibilitatea ere ukanen dute. Izan ere, filmaren hasieran ageri da Lipus erdi *punkie*-edo dela, ahal bezala bilatzen duela bizi-modua, eta dirua ateratzeko estatua biziduna dela. Berak



Pette Etxebarria *Oiogorri* film laburraren zuzendaria. PETTE ETXEBARRIA

"FIGURAZIO LANA EGINGO DUTE HERRITARREK, BAINA ANTZERKIA LANTZEKO AUKERA ERE BADA"

hori egiten du ofiziotzat. Bada, ideia da karrikan ibiltzen delarik horrelako beste birekin topatzea. Eta proposamena da Antzuolan gutxienez bi pertsona paper horretan sartzea, motibatzeko badira...

Grabaketei dagokionez, zein izango da ordutegia?

Zehaztuta ditugu. Urriaren 4an arratsalde arituko gara, 16:00etatik aurrera. Taberna baten kanpoaldean hartuko ditugu irudiak. Urriaren 5ean, berriz, estatua bizidunen rolean sartuko direnekin gelditzea da asmoa, 10:00etan.

Lantalde batekin arituko al zara lanean?

Bai. Ekipo teknikoan hiru izanen gara. Batek soinua hartuko du; nik, berriz, kamera hartuko dut, beste laguntzaile batekin. Proiektu oso xumea baita, gure ahalekin egingo duguna.

Ezagutzen al zenuen aurrez Antzuola eta Aiherra herrien arteko senidetza?

Berria izan da; ez nuen ezagutzen. Udalbiltzari esker ezagutu dut. Eta polita iruditzen zait lan hau elkarrekin egitea ere. Izanen da beste grabaketa egun bat Aiherran ere, urriaren 21ean. Hor ideal da bi herrietakoak biltzea. Egia da filma ere parada bat izaten ahal dela trukearentzat.

Noizko amaitzea aurreikusten duzu?

Bukatzeko epea abenduaren amaiera da, baina ez naiz ziur noiz eta nola aurkeztuko den.

Senidetzaren bazkaria

Urriaren 28an egingo da Antzuola-Aiherra eguna, eta dagoeneko salgai daude bazkarirako txartelak. 22 eurokoa da ohiko menua, eta baita beganoa ere; umeena, berriz, 13koa da. Txartelak liburutegian eta udaletxean daude salgai.



NIRE USTEZ

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA

Deseraiki eta eraiki

Ohikoa izaten da belaunaldi bakoitzak bere izaeraren ezaugarriak ezarri nahi izatea gizartean; horregatik diogu garaian garaiko seme-alabak garela. Ni neu, urtetan aurrea noala, konturatzen ari naiz badatozela belaunaldi berriak, beste era batean pentsatu, egin edota ekiteko asmoak edo joerak dituztenak, eta, horrenbestez, norberak borroka dezente egin duen horren inguruan deseraikitzeo intentzioa ere badagoela gizartean.

Herriko hainbat arlotan antzematen den fenomeno dela iruditzen zait. Hala eta guztiz ere, hartu beharreko bidea delikatua delarik, kontua da deseraikitze –eta eraikitze– prozesuan ekiteko bidelagun aproposak behar direla, gerora diseinatu nahi dugun hori implementaziora eraman nahi bada.

Aldaketa garaian egonda, eta herrigintzak lurra hartzeko egun duen zailtasuna antzemandu, ezinbestean beharrezkoa ikusten dut belaunaldien arteko elkarrekintza; izan ere, erronkaz beteriko garai honetan, aurretik izandako jendearen eskarmentua gehigarri bat delakoan nago.

Martxan dira Errekalde auzoa berrurbanizatzeko lanak

Hiru fase izango ditu: Lazaretoa eraitsiko da; biribilgune bat egingo dute; eta auzogunea irisgarriagoa izango da

A.R.K. ANTZUOLA

800.000 euroko aurrekontua zehaztuta, Errekaldeko lanak hasi ditu Morga enpresak, eta Udalak helburu du bizilagunen ongizatean eragitea, aurreko legegintzaldian auzotarrekin eginiko batzar irekiak gogoan, Aritz Igeltz Hirigintza zinegotziak azaldu duenez. "Biztanle gehien dituen auzoa da, eta zailtasunak izan ditu herriarekin komunikatzeko. Autobiarekin jaitzi egin zen zirkulazioa, eta joaneko Udalak erabaki zuen zerbait egiteko unea zela".

Lazaretoa eraitsi, eta aparkaleku bat egingo dute; sarbiderako, zebra-bidea ere egokituko dute. Auzogunera sartzeko, gurpildun aulkian dauden herritarrentzat arrapala bat ere egingo da, eta haurren parkea berriztuko dute. Barruko barandak ere aldatuko dira, eta argiteria publikoan LED argiak instalatuko dira. Azkenik, biribilgune moduko bat egingo dute auzora sartzeko.

Lanak otsailerako amaitzea aurreikusten dute, eguraldiak baldintzatu dezakeen arren.

Nagusien Eguna dela-eta, elkarretaratzea egingo dute domekan

Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna da urriaren 11ean, domekan, eta elkarretaratzea egingo dute Antzuolan, Landatxope jubilatuen elkarteak antolatuta. Herriko Plazan izango da mobilizazioa, eguerdiko hamabietan, baina ez da ekintza bakarra izango, antolatzaileek manifestu bat irakurriko baitute elkarretaratzearen ostean.

Antzerki eskoletarako ate irekiak egingo dituzte martitzenean

Debagoieneko Antzerki Plataformak antzerki eskolak eskainiko ditu urritik ekainera bitartean Antzuolan, eta ate irekiak egingo dituzte urriaren 3an, martitzenean, Errekalden. Haurren taldea astelehenetan batuko da 18:15etik 19:30era, eta helduena ere sor daiteke; horretarako, gutxienez, sei pertsona eman behar dute izena.



Bizikleta estatikoan, Elgetako gimnasioan. E.S.M.

Ikasturte berriko kirol eskaintza hastear da

Aste honetan egin dituzte ate irekiak jarduera gehienetan, eta hurrengoan emango diote hasiera ikasturteari. Izen-emateak zabalik jarraitzen du eskaintzako jarduera guztietan. Interesatuak udaletxean zein monitoreei eska diezaiekete informazioa

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Zortzigarren urtez Etor Garate arduratuko da udal eskaintzako jarduerak gidatzeaz. Gimnasia lasaia, spinninga, eta tonifikazioa edo mantentze-gimnasia eskainiko ditu. "Ez dago adin tarterik gimnasia lasaia jarduerarako, baina egia da parte hartzaile gehienak adin batetik gorakoak direla. Hala, haien ezaugarrie-

tara eta erritmora egokitutako saioak prestatzen ditut. Denez, egiten dugu; beroketa ariketak, lanketa ariketa espezifikoagoak, luzaketak... Osasunerako egokiak diren ariketak izan ohi dira", azaldu du Garatek.

Intentsitate handiagokoak izaten dira tonifikazioa edo mantentze-gimnasiako saioak. "Jendeak eskatzen duenaren arabe-

ra moldatzen ditut saioak. Sartzen dira abdominalak, gluteoak eta hankak indartzeko ariketak, kardio-arietak, luzaketak... Horiek izaten dira gehienbat".

Astean lau spinning saio ere izango dira. "Asmoa da bi talde ateratzea, baina malgutasunez jokatzeko dugu. Bada jendea askotariko konpromisoak direla eta ezin dena astero egun berdine-

tan etorri. Aukera ematen dugu asteleheneetik eguenera astean bi saiotara etortzeko, berdin dio zein egun".

Gym power nobedade

Beste elgetar batek, Maier Irabalek, pilates eta gym power saioak emango ditu astean bitan. "Pilates ez da berria eta elgetarrek ezagutzen dute. Nobedadea, aurten, gym power da eta zunba ordezkatzera dator", azaldu du. "Beste leku askotan zunbak harrera oso ona du, baina Elgetan ez, eta erabiltzaileek gym power emateko proposatu didate". Gym power zer den galdetuta, Irabalek dio musikarekin egiten dela eta gimnasioko materiala erabiliz askotariko ariketak egin daitezkeela. "Kontua da gihar espezifiko batzuk landu beharrean gorputz osoko atalak lantzea mugimenduaren eta ariketen bitartez". Pozik da Irababal ate irekietan jarduera berriak izandako harrerarekin. "Lehen egunetan behintzat jende pila etorri da probatzera".

Ainhua Ameztiren tai-chi saioek, Estitxu Bravoren areto-dantzako saioek, Alazne Azkarateren yoga eta uddiyana bandha ariketek –hipopresiboen antzerakoak– zein Lourdes Ciden yoga saioek jarraipena izango dute ikasturte honetan ere. Guztietan izena emateko aukera dago oraindik ere.

Eskola kirola eta pilota

Eskola adinean dauden neska-mutikoendako, berriz, aukeran daude eskola kirola zein eskola pilota saioak. "Eskola kiroleko hiru taldeak aterako direlakoan gaude. LH1-LH2 talderako izen-emate handia espero dugu, eta iaz ez bezala LH3-LH4 eta LH5-LH6 mailetan nork bere

taldea izango du. Iaz ume gutxi apuntatu ziren eta talde bakarra osatu genuen denekin", esan du Garatek.

Ordubeteko saioetara itzuliko dira –ez bi ordukoak–, eta umeek aukera izango dute astebukaretan Bergaran egingo diren jardueretan parte hartzeko. "Orain arte taldea osatu behar zen, baina aurrerantzean ez da derrigorrezkoa izango".

Pilota-eskolak ere jarraipena izango du aurten. Astelehenean eta eguaztentean izango dira saioak, 17:30etik 19:30era.

Euskal dantzak ikasturte osoan

Udalak ahalegina egin nahi du ikasturte osoko euskal dantzen ikastaroa aurrera ateratzeko. Urteak dira ez dela horrelakorik Elgetan; izan ere, jaietarako propio antolatutako ikastaroak egin izan dira aurreko urteotan. "Irakasleak Eibarko Kezka Dantza taldeko bi lagun izango dira, eta saioak barikuetan izango dira. 16:15-17:15 bitartean bi talderi eskainiko zaizkie saioak: HH 3-5 bitartekoei eta LH 1-3 bitartekoei. 17:15-18:15 bitartean ere bi taldek jasoko dituzte saioak; batetik, LH 4-6 bitartekoak arituko dira, eta bestetik, DBHko 1. mailatik aurrerakoak", azaldu du Kultura zinegotzi Maialen Arnedok.

Udalak ez du adin mugarik ezarri. Gutxienezko izen-emate kopururik ere ez dute zehaztu. Dena den, kontuan izango dute taldeak osatzerakoan.

ASTE HONETAN EGIN DITUZTE ATE IREKIAK, BAINA IZEN-EMATEAK ZABALIK JARRAITZEN DU SAIO DENETARAKO

Tortilla onena, Hondarribikoena

Hondarribi taldeak irabazi du aurten patata tortilla txapelketa, eta nagusitasunez. 45 punturekin nagusitu dira. *Di da* izan da bigarren sailkatua, eta *Omuretsu* taldea hirugarrena, biak 42 punturekin. Originaltasunaren saria *Tortitak* taldearendako izan da. Azken sailkatuak, berriz, *Raters* taldekoak izan dira. 25 talde aritu dira nor baino nor aurten.



L.Z.L

Beste pauso bat OT saioan

Amaitu dira *Operación Triunfo* saioko lehen eta bigarren faseko casting probak, eta Bartzelonako azken faseko saikatu da Unai Cantabrana elgetarra. Egun garrantzitsuak ditu aurretik. Asteleheneetik eguaztentera egingo ditu hirugarren faseko probak Bartzelonan. Gainditzen baditu, *Operación Triunfo* saioko 0 galarako saikatu da.



OT2023

"Maite ditut gure herri txikietakoz plazak"

GARI MUSIKARIA

Legazpiarrak Erresistenteen plazan egingo du emanaldia, gaur, 20:00etan. Sarrerak salgai daude 8 eurotan, eta Goibekoko bazkideendako 5 eurotan

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Datorren urtean plazaratu nahi du Garik esku artean duen proiektu berria. Akaso, kantu berriren bat joko du Elgetan. **Zer entzungo dugu gaurko saioan?** Modu biluzian azalduko den artista bat.

Eta ze errepertorioekin zatotz?

Ez dut kantu zerrenda osatu oraindik –martitzen gaua–, baina estudioan grabatutako azkeneko bi diskoetako kantuak izango dira oinarri, eta baliteke, beldurrak uxatuz gero, kantu berriren bat ere izatea.

Izango da nostalgikoendako tartea?

Nor elikatzen du nostalgiak? Egun argitsuak izaten dira, beste batzuk zakarrak, ezertan geratzen direnak ere... Elgetako saioan nire asmoa da nire barruarekin bat egitea da, libre sentitzea, hitz eta doinuak beste espazio batera eroatea.

Kontzertu "intimoa" iragarri duzu.

Intimitate hori jantziak ematen du, eta kasu honetan ia dena bistan izango da. Eszenatokian bakarrik agertuko gara Gibson gitarra akustikoa eta neu.

Donibane Garaziko gaztetxeak antolatuta kalean egindako kontzertua ikusi dugu sare sozialetan.

Gustura zabilta azkenaldian halako formatuko emanaldiak egiten? Garaziko gaztetxeke gazteek leku ezin hobea dute kontzertuak egiteko herriko karrika nagusian.

Inguruak badu magia berezia. Memorian gordea dut udan emandako saio hori. Espeziala! Gero eta gusturago sentitzen naiz bakarkako formatuan. Publikoarekin sortzen den konunioa guztiz zuzena da, bestelako saioetan ezin lortu dena.

Formatu hori ere esperimentatu nahi duzu, orduan?

Gizakiok helburu batzuk ditugu gure bizitzaren ibilbidean, eta horien artean garrantzi handia duena norbera libre sentitzea da. Espresioa momentuko gauza izaten da, eta zuzenekoan



Gari musikaria. GARI

"GERO ETA GUSTURAKO SENTITZEN NAIZ BAKARKAKO FORMATUAN"

arriskuak sortzen dira. Egoera horietan gustura sentitzen naiz. Inperfekzioak maite ditut.

Ruper Ordorikari entzun izan diogu taldean defendatzen diren kantuak bakarka defendatzeak baduela zentzua. Iritzi berekoa zara?

Kantu baten prozesu naturala alderantzizkoa da. Bakarka idazten ditugu gitarra edo beste instrumentu batekin eta, behin forma bat duenean, talde lanarekin osatzen dugu. Gure tradizioan –musika herrikoia– oinarritzkoa da kantu bat gitarra soilarekin eustea; gaur egun, tradizio hori baztertuta azaltzen zaigu, teknologiak beste arau batzuk jarri dituelako musika idazterakoan.

Eta zure errepertorioan badaude kantuak bakarka jota irabazi egiten dutenak?

Esango nuke planteamendu ezberdina dala; bakarkakoan,

kantuak bizirik eta libre dira nire ustez. Ez daude partituraren menpe, tenpoa-erritmoa-fraseoa... Den-dena hautsi dezaket espresioa indartzeko, eta, nahiz eta nekeza izan, merezi du bizitasun hori sentitzea.

Elgetan izan zara Hertzainak taldearekin plazan, Gari moduan Espaloian, Gari eta Maldanbera taldearekin ere bai... Zatoz milaka lagunengatik zuzenekoan?

Maite ditut gure herri txikietakoz plazak, bertan herri mailako belaunaldi ezberdinak batu dituzkegulako eskaintzen ditugun doinu eta hitzekin disfruta dezaten. Herri txikietan, modu sinplean eta biluzian azaltzen naiz. Sarri desentxufatuta jotzen dut publikoaren artean, gure artean barrerarik ez izateko eta kantatzen ditudan istorioak modu zuzenean iristeko. Batere aditiborik gabe.

Zer da halako zuzenekoetan eskaini nahi duzuna?

Ordubeteko saioa igaro ondoren publikoak hobeto sentitzea, jendearen barruan galdera berri batzuk izatea, eta une batzuetan zirrara bat ere sentitzea.



Urko Lozano. SKYRHUNE



Argider Txurruka. MARIO FALCON

Maila ona eman zuten Urko Lozanok eta Argider Txurrukak

Lozano hirugarren helmugaratu zen Lapurdin; Txurruka, berriz, azkarrena izan zen Peraltako lasterketan

J.M.M. ELGETA

Joan den asteburuan jokatu zuten Urko Lozano eta Argider Txurruka mendi lasterkariak 15 km-ko Skyrhune Tiki lasterketa eta Peraltako Azkotrail lasterketa, hurrenez hurren.

Lozanok hirugarren postua eskuratu zuen Azkainen –Lapurdi– jokatu zen Skyrhune Tiki lasterketan. Egunean zehar "erdi gaixorik" sentitu zela ikusita, maila oso ona eman zuen elgetarrak. Euskadiko txapelketako azken proba izan zen Azkainen jokatu zena, eta egindako lasterketaren ostean txapelketako sailkapen orokorrean bigarren postua eskuratu du.

Txurrukak Peraltan jokatu zen lasterketan zegoen "maila" nabarmendu nahi izan du. Izan ere, dio horrelako lasterketetan asko izaten direla "korrika egiten probatzen joaten direnak"; kasu honetan, baina, aurretik

prestatutako korrikalarietara aritu zen, eta "horrelako jendearekin lehiatzeak sentsazio onak" utzi zizkiola adierazi du. Hurrengo lasterketaren bat jokatzeke asmoa baduela dio elgetarrak, nahiz eta aurretik "egutegia antolatu" beharko duen.

Txurrukaren errekorra gaituta

Elgetarrak Peraltan jokatu zuen lasterketa, baina, aldi berean, herrian ere jokatu zen Intxortako igoera. Emakumezkoetan, Nerea Goikoetxea izan zen azkarrena (22:38), eta 2019. urtean Txurrukak jarri zuen errekorra hobetu zuen. Txurrukak dio "pozik" dagoela "ezaguna den batek" ondu duelako marka, eta egunen batean ondo badatorkio Intxortako igoera jokatzea, saiatuko dela errekorra bereganatzen, nahiz eta ez dion "garrantzi handirik" ematen.

OHARRAK

Intxorta 1937 elkartearen aurkezpenak

Beste aldean. Gizona ez den hori dokumentalaren eta *Angiozar 1936. gerrateko kontuak* liburuen aurkezpenak egingo dira zapatuan, 12:00etan, Espaloia kafe antzokian.

Odol-ateratze saioa egin zen astelehenean

Udazkeneko odol-ateratze saioa egin zen astelehenean. Ohikoa baino jende gutxiago gerturatu zen; 28 pertsona hain zuzen ere, baina horietatik 24k atera ahal izan zuten odola.

Errekreatzio tailerra Espaloian

Beste saio bat egingo da 29an, 18:00etatik 20:00etara. Parte-hartzaile boluntarioak trebatzeko tailerra izango da.



Migelito eta Rosarito erraldoi berriak Zorotxo konpartsa txikiarekin. GOIENA



Oñatiko txokoak aire libreko pintura lehiaketako mihisetan. GOIENA

Jaiez disfrutatzen jarraitzeko osagaiak dituzte datozen egunek

Eguraldi ona dago iragarrita astelehena bitartean; egitarauan ez da aldaketarik egon, eta mantendu egingo dira iragarritako ekitaldi guztiak. Herritarrak, bestalde, prest daude jaiez azken momentura arte gozatzeko



Haurren danborradako konpainia denak izan dira mistoak aurten. GOIENA

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Herriko jai nagusietan murgilduta dago, bete-betean, Oñati. Joan den asteburuan izan ziren atariko ekintzak, eta astelehena bitartean egingo dira gainerako guztiak. Azkenera arte gozatzeko prest sumatzen dira, gainera, herritarrak.

Errespetuz eta elkar zainduz

Eguraldi ona dago iragarrita, gainera, jaiak ospatuko diren hurrengo egunetarako, eta egitarauak adin eta gustu ezberdinak asetzeko moduko ekintzak jasotzen ditu; ez dago aldaketarik. Horrela, herritarrak aurreko asteburuan beste gozatzea da Udalaren nahia. "Lan askoko asteburua izan zen aurrekoa, baina ondo joan zen dena. Umeendako eta gaztetxoendako ekitaldiak ere primeran egin ahal izan ziren. Udaltzaingoarekin

kontrastatuta, ez zen inongo arazorik izan, eta egun hauek ere horrelakoak izatea gurako genuke. Gozatzeko egunak dira eta ea errespetuz eta elkar zainduz ospatzen ditugun", adierazi du Kultura batzordeburu Iñaki Olalde.

Txantxiaren jaitzierak eman zien, atzo, hasiera ofiziala aurtengo San Migel eta Errosario jaiari, eta astelehenera bitartean badago zer egingo eta ikusia. Gaur, egubakoitza, esaterako, puzgarriez gozatzeko aukera izango dute umeez, eta gauean, berriz, plaza guztiak zalez betetzen ari den taldea dator: En Tol Sarmiento. 23:00etan izango da kontzertua, plazan.

Txartel gehiago bazkarirako

Kalean gozatzeko egunak izaten dira jaiak, eta Herri Eguna eta Errosarixoa Bixamon eguna izan



Txosnaguneak gainezka egin zuten Huntza taldearen kontzertuarekin. HAIZEA DAROCA

ten dira, bereziki, jendetsuenak. Goizetik gauera arte ibiltzen dira oñatiar asko egun horietan kalean, eta aurten ere horrela izango dela dirudi. Astelehenerako, mozorrotuta kalera irteko plana dute askok egingo, adibidez. Herri Egunean kiroldegian egiten den herri bazkarirako txartelak, berriz, norma-

lean baino gehiago saldu dituzte; joan den urtean baino 100 bat txartel gehiago aurten.

Egun horretan, Arantzazuko edo harako bidean dauden ostatuetan bazkaldu ohi izan dute herritar askok, eta, hori kontutan hartuta, autobus zerbitzua egongo da zapatuan Oñati eta Arantzazu artean. 12:30ean ir-

tengo da lehen autobusa Oñatitik, eta orduro egongo da zerbitzua, 18:30ak arte. Bueltarako, 13:00etan abiatuko da lehen Arantzazutik; 19:00etan, azkena.

"Diputazioak jarritako oztopoak" gaingitu, eta ohiko azoka egongo da betiko tokian zapatuan, Nekazarien Elkarteko ordezkari-



San Lorentzoko jai batzordea garaile auzolinpiadetan. GOIENA



'Lis'-ek eta Fidel Alonsok Arabara eraman dute aurtengo txapela. GOIENA



Guztira 76 haur zeuden deituta Atsolorreko ekitaldira. GOIENA

riek baieztatu duten moduan. Artisauak eta sagardogileak ere etorriko dira, eta taloa jan ahal izango da herriko tabernan. Arratsaldean, berriz, herri kirolen gune bihurtuko da plaza.

Banda eta Sorotan Bele

Hain zuzen ere plazan egingo du kontzertua musika bandak domeka gauean. Ordua ezohikoa da, 23:00ak, baina baita formatua ere: egun horretan, Sorotan Bele taldekoekin batera egingo du kontzertua. Gauez eta erromeria

estilora egingo dute emanaldia. Oñatiko Bandak lagun izango ditu Sorotan Belek lau kide: Gorka Sarriegi, Urbil Artola, Ritxi Salaberria eta Aitor Etxaniz. Errepertorioari dagokionez, batez ere, Sorotan Beleren lehe-

EN TOL SARMIENTO, TAPIA ETA LETURIA ETA PURO RELAJO, KONTZERTUETAKO BATZUK

"Ondo pasatzera igotzen naiz oholtza gainera"

XABIER BERASALUZE 'LETURIA' PANDERO JOTZAILEA

Tapia eta Leturia Band taldeak kontzertua egingo du domekan, 19:00etan, txosnagunean. Oñatira "oso gustura" datozela dio Xabier Berasaluze *Leturia*-k (Villabona, 1954): "maite dugu Oñati".

Nolako kontzertua izango da Oñatin eskainiko duzuen?

Ordu eta erdiko iraupena izango du eta gure betiko kantak joko ditugu, baina beste modu batera. Hasierako Tapia eta Leturia talde hark hamabi disko atera zituen, eta kantu horietako batzuk joko ditugu. Kantutegiari errepasoa emango diogu, baina erritmoa beste bat izango da pieza askotan.

Moldatu egin dituzue piezak?

Joseba Tapiak egin ditu moldaketa denak, bai. Kantuak, baina, berdinak izango dira: hitzak betikoak, ezagunak. Garrantzia ematen diogu hitzari. Idazle, olerkari zein bertsolari askoren laguntza izan dugu beti kantak egiteko, zerbait esan gura dugun hitzak biltzeko, eta horiek ez ditugu aldatu.

Zer-nolako taldea egongo zarete domekan?

Ondo babestuta egongo gara. Guztira hamaika lagun izango gara emanaldian. Musikari onak guztiak. Bateria jotzailea egongo da, adibidez; baxua ere entzungo da; perkusio instrumentu ezberdinak; metalezkoak... eta korauek egingo dituzten hiru abeslari ere bai.

Ondo hasi duzue itzulerako ziklo berri hau?

Oso ondo, bai. Joseba Tapiak proposatu zidan eta baiezkota eman nion, noski. Elgoibarren eta Altsasun izan gara orain arte; Oñatikoa hirugarren kontzertua izango da.

Zenbat denbora egon zarete Tapia eta biok elkarrekin jo gabe?

Esango nuke 2010 buelta horretan desegin zela lehengo taldea, baina harrezkero askotan jo dugu biok elkarrekin. Egia da, hala ere, kontzertu gehienak Euskal Herritik kanpo egin ditugula. Hemen, Euskal Herrian, San Juan egunez Aiako Iturriotz auzoan egiten dugun erromeria izan da mantendu dugun emanaldi bakarra; urtero jotzen dugu han. Baina hemendik kanpo asko ibili gara, bai, adibidez, Amerikako Estatu Batuetara joan izan gara, eta nazioarteko beste folk jaialdietarako gonbidapenak ere onartu izan ditugu.

Bakarka ere, baina, ez zarete geldi egon.

Ez, urte hauetan guztietan ere egin dugu musika, bai. Joseba Tapiak bere proiektu propioak gauzatu ditu; ni, berriz, Korrontzirekin ibili naiz, batez ere, azken bost urte hauetan, eta badut asmoa eurekin jarraitzeko. Hori bai, etxeko emanaldietan joko dut. Kanpora askotan ateratzen den taldea da Korrontzi, eta ni ez naiz horietara joango; "etxeko partiduak" jokatuko ditut bakarrik aurrerantz.

Panderoarekin ikusiko zaitugu domeka iluntzeko kontzertuan?

Panderoarekin eta perkusio beste instrumentu batzuekin. Ez dut bakarrik panderoa joko. Eta, noski, abestu ere egingo dut.

Irribarrearekin, nola ez.

Oholtza gainera igotzen naizenean gozatzera igotzen naiz, disfrutatzen, eta ondo



TXALAPARTA

"ORDU ETA ERDIZ ARITUKO GARA; BETIKO KANTUAK JOKO DITUGU, BAINA BESTE ERRITMO BATEKIN"

nagonean berez ateratzen zait irribarra. Goikoak ondo gaudenean behekoak ere, kontzertua entzutera etortzen direnak, horrela egoten dira, normalean.

Atzeko kalen egindako emanaldiak gogoan dituzue oraindik?

Makina bat aldiz jo dugu Atzeko kaleko jaietan, bai. Udazkenean bertan egiten den trikiti jaialdian ere egondakoa naiz eta baita beste ikastaro edo hitzaldiren bat eskaintzen ere. Maite dugu Oñati. Oso gustura joango gara.

nengo diskoko abestiak joko dituzte: *Marinelaren zain*, *Arratsalde honetan*, *Sing Sing-atiko folk&rolla* eta gehiago.

Bestelako musika estiloak ere entzungo dira, baina, domekan bertan. 19:00etan, esaterako, Fito & Fitipaldis taldeari tributu egingo dion laukote batek joko du Atzeko kalen, eta ordu berean, txosnagunean, Tapia eta Leturia Band taldeak. Astelehenean, berriz, Dibertsioak txosnagunean, 19:00etan, eta Puro Relajo, 20:00etan, plazan.

AUTLAN
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

"Margolan batek beti transmitituko du zerbait"

XANTI UGARTE MARGOLARIA

Oñatiko Aire Libreko Margo lehiaketa irabazi du eta "oso pozik" dago egindakoarekin eta emaitzarekin. Bere lana Kultur Etxeko aretoan egongo da ikusgai urriaren 8ra arte

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI

Txikitatik izan du gustuko marraztea, eta lehiaketa honek aspaldian utzita zituen pintzelei hautsa kentzeko balio izan dio. Berarekin izan gara marrazketari buruz hitz egiteko.

Margo lehiaketa irabazita, ze sentazio? Lehenengo aldiz hartu duzu parte?

Oso pozik! Ez nuen inondik inora espero lehenengo saria irabaztea. Lehenago ere parte hartu izan dut, baita Oñatiko saria irabazi ere, baina inoiz ez naiz lehen hiru sailkatuen artean egon.

Zergatik aukeratu zenuen toki hori margolana egiteko?

Ondoan bizi naiz, eta gure leihobatek erreka aldera ematen du. Egunero ikusten dudana paisaia da, eta, eremu industrialak izanda ere, bere xarma du. Gainera, herriko elementu ikoniko bat da, ondo identifikatzen duguna. **Nondik dator margotzeko afizioa?** Txikitatik gustatu izan zait, eta gehiago edo gutxiago aritu, betidanik ibili naizela esan daiteke.

Margolaritza klaseak jaso izan dituzu?

Gaztetan, Udalak antolatutako pintura tallerretara apuntatu nintzen pare bat aldiz. Gero, unibertsitate ikasketak EHUko



Xanti Ugarte. XANTI UGARTE

Arte Ederren fakultatean egin nituen. Bertan, Sorkuntza eta Diseinu Gradua ikasi nuen, eta gerora diseinu grafikoan eta multimedia sorkuntzan espezializatu nintzen arren, pintura irakasleekin asko ikasi nuen. **Margolanetan zer transmititzea gustatzen zaizu?**

Margolan batek beti transmitituko du zerbait. Nire kasuan, margolanaren helburua zehaztu eta gero, transmititu behar dena ahalik eta modu egokienean egiten saiatzen naiz. Batzuetan, sentimenduak, barne ideiak...

moduko gauza potoloak dira, baina beste batzuetan, zerbaiten kolorea, testura, forma... atentzioa eman dizuten elementuak transmititzen saiatzen zara.

Beste txapelketaren batean parte hartu izan duzu?

Aire libreko pintura lehiaketetan, Oñatikoan parte hartu dut bakarrik. Ilustrazio lehiaketetan ere aritu naiz, baina gehienbat kartel lehiaketetan. Azken horiek diseinu grafikoari lotuta daude, baina eskuz egindako ilustrazioak sartzea gustatzen zait.

Nola definitzen zara margolari moduan?

Multidisziplinari moduan, esango nuke. Teknika eta formatu ezberdinekin lan egitea dut gustuko, eta bakoitzaren sekretuak ezagutzea. Baten ikasten dena, besteetan aplika dezakezu ondoren.

Aurrerantzean beste lehiaketaren batean parte hartu edo erakusketarik egiteko asmorik baduzu?

Denbora neraman pintura formatuan ezer egin gabe, eta pintzelari hautsa kentzeko balio izan dit. Eroso aritu nintzen, eta horrek beste herri batzuetako lehiaketetan aritzeko gogoia piztu dit. Era berean, denbora falta izanda ere, astean pare bat ordu pinturari eskaintzen saiatuko naizela ere konturatu naiz.

NIRE USTEZ

IRENE PEREZ ZUMALDE

Uda-azkena

Udara joan zaigu ileko produktuen iragarki, papaia eta kiwi artean. Momentu gozoak bizi izan ditugu familian edo lagunartean, eguzki epelaren eta terrazatako giro atseginarenean. Eguzkiak jotzen duen lekuan, baina, itzalak ere badira, eta ezin ahaztu ditugu jaietan "Zer EZ duzu ulertu nahi?" dioten kartelen begiradapean gertatu diren eraso sexista eta homofoboak. Hiri zein herri, Gasteizen, Lekeition, Baionan eta Arraiozen; zerrendak aurrera darrai, geldigaitz. Ez da neskarik, erasorik jaso ez duenik. Begirada lizunak, goitik behera biluzten zaituztenak; komunerako bidean ipurditik heltzen dizuna, kuadrillakoek ezikusiarrena egiten duten artean; kaleetan jarraitzen dizun ezezaguna, etxeko ateraino batzuetan. Emakume izatera heltzeko erritu krudel hauen eskutik hamaika istorio elkarbana genitzake, ezta hainbesterako erantzuna jasotzen dutenak. Denon esku dago jarrera horiek aldatzea. Denon esku dago ingurukoak zaintzea. Denon esku dago espazio seguruak sortzea. Denon esku dago jai paregabeak eraikitzea. Gazte eta heldu, izan gaitezen eredu. Ondo pasa sanmigeletan!



OÑATIKO UDALA

Igerilekuen garbiketa egin dute

Kiroldagiko igerilekuek ezohiko irudia utzi digute aste honetan urteko garbiketaren ondorioz. Igerileku txikia zein handia hustu egin dituzte garbiketa sakona egin ahal izateko, eta, aldi berean, sauna ere garbitzeko aprobetxatu dute. Garbiketa lanak eta herriko jaiak direla eta, igerilekuak eta sauna urriaren 3ra arte (14:00) itxita egongo dira.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

OÑATIKO SAN
MIGEL JAIAK

GOIENA TELEBISTA, 'JAIK' SAIOA
URRIAREN 4AN, EGUAZTENEAN,
19:00/21:00 ETA 23:00




DESCARGA TU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.



Aurtengo irabazleak!



19. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA

egin klik!

PUBLIKOAREN SARIA



Dubrovnik's mood | Argazkia: Odei Vazquez (Aretxabaleta)
SARIA: Bergarako Ereindajan-en eskutik bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra.

Amaitu da Goienak antolatzen duen Udako Argazki Lehiaketa, eta honako lau argazki hauek izan dira aurtengo irabazleak. Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi. Guztira, 528 argazki jaso ditugu, eta, Publikoaren saria aukeratzeko, ia 500 boto jaso dira.

Urriaren 6ko GOIENA aldizkarian izango duzue irabazleak ezagutzeko aukera.

1. SARIA



Dolomitak | Argazkia: Iker Zubizarreta (Arrasate)
SARIA: Arrasateko eta Bergarako Halcon Bidaiei esker, Kantabrian gau bat eta gosaria bi lagunendako.

2. SARIA



Suaren irribarreak (Aretxabaleta) | Argazkia: Angel Ayastuy (Aretxabaleta)
SARIA: Arrasateko Eroski hipermerkatuari esker, Samsung Galaxy A14.

3. SARIA



Girona | Argazkia: Irati Urzelai (Aretxabaleta)
SARIA: Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarentzako bazkaria edo afaria.

ANTOLATZAILEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante · Jatetxea

BERGARA
EREIN DA JAN

Halcon BIDAIAK
ARRASATE BERGARA

"Min hartzeko beldur bazara, BMX-a ez da zuretako kirola"

JULEN ARENAZA BMX PILOTUA

Ourense eta Bartzelonan jokatu berri dituen bi txapelketetan, arrasatearra podiumera igo da. Epe ertainean, nazioarteko txapelketetara salto egin gurako luke

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Josu Arenaza (Arrasate, 2009) Oztopo Trialsin taldeko pilotua da, baina azken bizpahiru urteotan bizikletaz aldatu eta BMXari eskaini dizkio ordurik gehienak. Horrexek motibatzen du orain momentuan, eta udan izan dituen estatu mailako bi txapelketa handienetan nabarmendu egin da. Ourense abuztuan egindako O Marisquiño txapelketan bigarren izan zen junior mailan, eta han eskuratu zuen joan den asteburuan Urban World Series-ek antolatutako Extreme Barcelonan esku hartzeko txartela. Ondo baliatu du aukera hori, hor ere podiumera igo da eta.

Nolatan hartu zenuen esku O Marisquiño txapelketan?

Abuztuan Galizian egiten duten jaialdia da, eta kontzertuekin eta bestelako ikuskizunekin batera kirol modalitate ezberdinetako txapelketak ere egiten dituzte: skate, BMX, dirt jump... Denboratxo neraman etxeokoa hara eramateko konbentzitu nahian, eta txapelketan izena emanda parte hartu ahal izan nuen.

Eta handik Urban World Series-etara, Bartzelonara...

Bai, kontua da Barcelona Extreme jaialdiko antolatzailea O Marisquiño zegoela, eta han lortu nuen bigarren postuak atean ireki zizkidan Bartzelonarako, azken txapelketa horre-

tara joateko gonbidapena behar duzulako. Bartzelonako hirugarren postuak asko poztu nau, maila handiko jendea zegoen, saltoak eta bestelakoak handiagoak ziren...

BMXa ez da oso ezaguna gurean, eta esango nuke azpiegitura alde-rik ez garela erreferenteak. Nondik nora sortu zaizu zaletasun hau?

Urteak daramatzat Oztopen, baina hor trialsina egiten dugu. Etxean BMX bizikleta ere bauekan, eta poliki-poliki trukuak eta halakoak egiten hasi nintzen, eta motibatzen joan nintzen. Baina ez, nire adinarekin Euskal Herrian ez daude txapelketetara joaten diren asko. Gainera, BMXean ibiltzera skate park handietara joan behar izaten dut, Amurrion, Azpeitira, Miranda de Ebrora, Leioara... He-

men egon badaude, baina akaso ez dira BMXa egiteko horren egokiak.

Gurean zenbait pumptrack egin dituzte; Arrasatekoa berria da, esaterako. Balio dute BMX bizikletekin ibiltzeko?

Bai, balio dute. Pumptrack-aren koloreak erakusten du ze zailtasun duen, eta, zorionez, Arrasateko bat gorri kolorekoa da; alegia, bertan jauzi handi samarrak egin daitezke, trukuak egin daitezke... Kontua da BMX barruan modalitate ezberdinak daudela: lasterketak edo freestyle-a, esaterako. Lasterketetako bizikletak luzeagoak dira, eta arinagoak... Eta freestyle barruan ere hainbat aukera daude: street-a –kalean ibiltzea–, BMXeko parke batean ibiltzea, dirt jump-a... Eta gurean, esa-



Julen Arenaza, ezkerretik lehena, Galiziako podiumean. O MARISQUIÑO



Julen Arenaza, skate park batean BMX bizikletarekin salto egiten. J.A.

terako, skate park handirik ez dago.

Eta txapelketetara joatera animatzen diren lagun askorik ere ez...

Ez, egia esan, halako txapelketetara joaten hasi den bakarra naiz. Eta ez hemen bakarrik, Euskal Herrian ere ez dut askorik ezagutzen. Arrasateko pumptrack-ean geroago eta gazte gehiago ibiltzen da, eta pozgarria da. Ea poliki-poliki gazte horiek animatzen joaten diren.

Trialsina egin izanak oinarri ona emango zizun, seguru.

Bai, zalantza barik. Trialsinean asko lantzen da bizikleta gaineko oreka, eta, gainera, bizikleta gaineko truku batzuk oso antzerakoak dira. Eskola ona da trialsina.

Zer behar da BMXean aurrera egiteko?

Bereziki motibatuta egotea, gaur berriak egiteko gogoz, salto berriak probatzeko nahia izatea, bizikleta gainean truku berriak

probatzea... Eta lesiorik ez izateak ere laguntzen du. Dena dela, badago esaldi bat esaten duena min hartzeko beldur bazara BMXa ez dela zuretako kirola. Aurrera egiteko, erorikoak izan behar dira; inor ez da libratzen. Hezurren bat apurtzea... Gerta daitekeen zerbait da.

Emaizta horiek lortuta, txapelketetara joateko gogoz egongo zara...

Bai. Datorren urtean, esaterako, Madrilen eta Almerian egingo dituzte Urban World Series-ak, eta Madrilekoetara joan nahiko nuke. Bestalde, maiatzean, Montpellierren (Frantzia) halako beste jaialdi bat egingo dute –Fise izenekoa– eta ederra izango litzateke halakoren batean parte hartzea. Eta X-Games-ak ere hor daude... Txapelketa horiek handiak dira; oraindik goiz da halakoetan parte hartzeko, baina pare bat urte barru edo... Bizikleta gainean entrenatzen jarraitu beharko dugu.

Jesus Aranzabal hil da, Ocañaren bidelaguna eta errodadore nekaezina

TXIRRINDULARITZA Eguaztenean hil zen, 83 urterekin, Debagoienak eman duen txirrindularirik onena. Fagor eta BIC taldeetan nabarmendu zen Aranzabal; bakarka lorpen politak batu bazituen ere, Ocañaren taldekide kuttunetakoa ere izan zen

Xabier Urzelai BERGARA

Gaur iluntzean Jesus Aranzabali (Angiozar, 1939) egingo dioten hileta elizkizunean (19:00, Santa Marina parrokiak) etxe-koekin eta herrikideekin batera belaunaldi ezberdinetako txirrindulari ezagun asko batuko da, seguru, Bergarakoak arrastoa utzi zuen eta askorengan. Duela hilabete gutxi, ekainean, jaso zuen etxean GOIENAKo kideon bisita. Tourra Debagoienetik pasa behar zela izan zen bere garaiko txirrindularitzaz berba egiteko aitzakia, eta memoria ederrarekin erreparatu zituen Tourreko kontuak –hiru ediziotan hartu zuen parte– eta baita bestelako lasterketetakoak ere.

Erlojuaren kontra 100 kilometro

Hori izango da, seguruenik, Jesus Aranzabalen lorpen bitxiena. Gaur egun ez da halakorik antolatzen, baina oraindik profesionala ez zela, 1960an, Donostian hasi eta Ormaiztegiara etorri ostean ostera ere Gipuzkoako hiribururako tartea egin zuen 2 ordu eta 31 minututan, batez beste 39 kilometro orduko abiaduran. Proba horrek oihartzun handia izaten zuen, eta Angiozarkoak 11 minututan ondu zuen Luis Otañok zeukan errekorra. Aranzabalek errodadore paregabea zela erakutsi zuen orduan.

Ocañaren ondoan

Aurreratu moduan, ekainean egindako elkarriketan Aranzabalek 1966 eta 1972 artean jokatutako hiru Tourrak erreparatu zituen, eta tropel barruan bizi izaten zituztenak ere kontatu zituen. Esaterako, Eddie Merckx-ekin batera lehiatu zuen 1972ko Tour hartan zela ikusi zuen garbi belgikarra beste guz-



Jesus Aranzabal, GOIENARI emandako azken elkarriketan, ekainean. X.U.

tiak baino bi koska gorago zegoela, edota Luis Ocaña liderraren ondoan bizi izan zituenak. "Izateko modu oso berezia zuen, odol berokoa zen baina estimatu egiten ninduen eta haren ondoan egoteko esaten zidan. Berdin zuen lasterketa aurretik hotelean batzarra egin eta estrategia bat erabakitzen bagenuen, etapa hasi eta Ocañak justu kontrakoa egiten zuen",

adierazi zuen orduan barrez. "Bero egiten zuenean garaiezina zen, baina euriarekin eta hotzarekin sufritu egiten zuen", gogoratzen zuen Aranzabalek. Taldekide nekaezina, arlo pertsonalean garaipen politak lortu zituen, 1970eko Itzulian edota 1972ko Vueltan, esaterako. 1964 eta 1972 urte artean izan zen ziklista profesional. Lurrak goxo har dezala.



Jesus Aranzabal, BIC-eko maillotarekin, artxibo irudian. GOIENA

Zelakoa zen Jesus Aranzabal? Ze oroitzen gordeko duzu?



ION UNAMUNO
LOKATZAKO PRESIDENTEA

"Gure belaunaldikook nagusiei entzundakoei esker dakigu Jesus Aranzabal zer-nolako txirrindularia zen. Pentsa, Ocañaren taldekide fidelenetako bat zen, eta hori gaur egunera ekartzen badugu, esaterako, Roglic-en laguntzaile izatea esan nahiko luke. Bizikleta utzi zuenean Maxim's taberna zabaldu zuen Bergaran eta urte hauetan guztietan beti egon izan dira, ahal izan duten neurrian, Lokatza babesten. Etxekoak ere ezagutzen ditut, eta doluminak bidali nahi dizkiet Lokatzakoon partetik.




JESUS KORTABARRIA
'KAXETA' ZIKLISTA OHIA

"Aranzabalek nik baino 13 urte gehiago zituen, eta guretako erreferentea zen, ispilua. Gu 18 urterekin gazte mailako ziklistak ginenean, Jesusek 30-31 izango zituen, ordurako txirrindulari profesionala zen, eta hura modukoak izan nahi genuen. Gero bizitzak erakutsi zigun profesional izatera iristea ez zela horren gauza erraza. Bicicleta Eibarresako azken etapa irabazi zuenean –egungo Itzulia– nik Arrasaten neukan lasterketa. Gutxigatik ez zuen sailkapen orokorra irabazi, eta pena hartu genuen.



SANTI AIASTUI
TXIRRINDULARI OHIA

"Txirrindulari moduan badakit egon zen taldeetan asko estimatzen zutela, langilea zelako, izaeraz lasaia eta arazorik ematen ez zuen horietakoa. Talde gizon peto-pettoa zen, beti besteendako lanerako prest. Tropelean aurrean jartzen zenean, lepoa luzatzen zuten denek; indarra zuen. Eta garaipen politak ere eskuratu zituen, Espainiako Vueltan eta Itzulian, esaterako. Gustura ibiltzen nintzen haren ondoan entrenatzen, zekiena irakasten saiatzen zen... Pertsona oso umila zen; pena hartu dut".



MIKEL ARISTI
ZIKLISTA OHIA

"Pena da, nik uste herriko txirrindulariendako erreferente bat izan dela. Nik bereziki etxean entzun izan ditudan kontuengatik izan dut Jesus Aranzabalen berri, amamari eta aitaitari entzun izan dizkidan ziklismo istorioengatik. Gainera, nik Aranzabalekin bizikleta gainean kilometro batzuk partekatzeke zortea izan dut. Kadete mailako txirrindularia nintzenean, Jesus oraindik bizikletan ibiltzen zen eta haren ondoan ibili ahal izan nintzen".

Kooltur Ostegunak ziklo berria abiatzear dute

Bengo, The Movement, Munlet eta Grade 2 taldeak gonbidatu ditu, hurrenez hurren, Kooltur Ekintza taldeak urriko eguenerako Arrasateko gaztetxera; kontzertu guztiak, orain arte moduan, 22:00etan izango dira, eta sarrerak, zazpi euroren truke

Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE

Ohi moduan Maritxu Kajoi egunaren bezperan ekingo diete Arrasateko gaztetxean egueneran egiten duten musika eskaintzari; hori horrela, urriaren 5ean izango da hamalagarren denboraldiko lehen kontzertua.

Sarrerak zazpi eurotan izango dira eskuragarri kontzertuen egueneran; 21:30ean zabaltzen dute leihatila.

Bengo taldea, hasteko

Orain arte moduan, musika izango da ekimenaren ardatz nagusia, baina bestelako kultura diziplinei ere tokia egiteko asmoarekin. Horren erakusle da liburu baten aurkezpenarekin ekingo dutela ziklo berria, uda aurretik argitaratu zuen *Su festak* liburuaren egile Jon Urzelai musika kazetaria gonbidatuta. "Musika jaialdien errepasso zabal egiten du Urzelai bere saiakera-liburuan, Euskal Herrian ere baditugun askotariko jaialdien bilakaera eta ezaugarriak batuta. Kontzertuei dago kienez, orokorrean, orain arteko ezaugarri berak izango dituzte, hau da, talde bakar izango da agertokiaren gainean eta 22:00etan puntuan hasiko dira kontzertuak", azaldu du



Bengo musikariak gidatutako taldeak zabalduko du denboraldi berria. OSO POLITA

Kooltur Ekintza taldeko kide Iker Barandiaranek.

Iazko denboraldian Arrasateko gaztetxean kontzertua eskaintzekoa zen, baina azken orduko arazo bat tarteko bertan behera geratu zen Bengo taldea izango da urriko egitarauko lehenengo gonbidatua. "Oiarzungo musikari gazte bat da Bengo, dagoeneko ezaguna egin dena eta izen bereko taldearen bultzatzailea. Euskaraz abesten dute eta pop estiloa dute oinarri, bestelako gaur egungo musika estiloekin, esaterako, musika

"MUSIKA JAIALDIEN ERREPASO ZABALA EGITEN DU URZELAIK"

"ZUZENKO OSO INDARTSUAK DITU THE MOVEMENT TALDEAK"

"OHI MODUAN 22:00ETAN PUNTUAN HASITA IZANGO DIRA"

IKER BARANDIARAN, KOOLTUR EKINTZA

urbanoarekin nahastuta. Mar txoko egitarauan programatu genuen, baina arrazoi pertsonalengatik hainbat kontzertu bertan behera utzi zituen; gurea, horien artean".

Danimarkakoak, bigarrean

The Movement taldeak hartuko du lekukoa. "Koordenadaz gutiz aldatuta, Danimarkako talde beteranoa izango dugu protagonista urriaren 12an. Hirukote etiketapean kokatzen dira, baina The Jam taldearen izpiritua oso presente dute, eta, tarteka, The Clash taldea ere oso gertuko dute. Euren zuzeneko emanaldiak oso indartsuak direla badakigu, kritika oso onak jaso ditugu danimarkarren kontzertuei buruz; hortaz, rockzaleendako, bereziki, emanaldi oso interesgarria izango delakoan gaude".

Munlet bikotea, urriaren 19an

Mendaron sortutako bikote artistiko "bitxia" izango da hirugarren gonbidatua. "Askorik jotzen ez duten arren, ibilbide luzea dute, eta orain dela gutxi berpiztu dira. Rockari sintetizadorea batzen eta esperimintatzen, elektronika oso minimalista eta ganberroa egiten Euskal Herrian aitzindariak izan ziren. Devo talde bitxia izango dute gogoan Arrasaten".

Ingalaterratik, Grade 2

Punk-oi! eszenari freskotasuna eman dion Ingalaterrako Grade 2 talde gazteak borobilduko du urriko Kooltur Ostegunak egitaraua. "Punk-oi! eszenari freskotasuna ekarri dio hirukote ingelesak. AEBetako Interrupters taldea etortzen zait gogora, Grade 2 taldea apur bat punkagoa bada ere".



AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

"Aldatu egin da kultura bizitzeko era"

JON URZELAI MUSIKA KAZETARIA ETA IDAZLEA

Musika jaialdien bilakaera aztertzen duen *Su festak* saiakera aurkeztuko du egueneran, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.

Zerk eraman zaitu liburu idaztera?

Azkenaldian bogan dauden jaialdiek irakurketa sakonagoa eskatzen zutela iruditzen zitzaidan; gero eta pisu handiagoa dute musikaren ekosisteman eta, orokorrean, kultura bizitzeko aldaketa ikusten dut, parte hartzaile izatetik gero eta ikusleagoak gara. **Ez dituzu, baina, zaku berean sartzen guztiak.** BBK Live edo EHZ, esaterako, oso ezberdinak dira. Lehenengoak, *Basque* marka egitea du helburu, eta bigarrenak, berriz, oinarrian herri bat egiteko gogoia du euskal gazteak elkartzeko eta euskal musikarientzat plaza handia eskainita.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

AMAIA ARRUABARRENA-
ARISTORENA, ZIENTZILARIA

GOIENA TELEBISTA, ELKARRIZKETTAP
URRIAREN 5EAN, EGUENEAN,
19:30/21:30 ETA 23:30
AMAIA URIBE KAZETARIAK EGINDAKO
ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaudete.





Ramon Labayan, Pedro Migel Etxenike eta Josemari Velez 1983ko Donostia Zinemaldian. HOTS BEGI DANBOLINAK ATARIA

Garai bateko Donostia Zinemaldiko bizipenak

1983an egin zuten Donostia Zinemaldiaren 31. aldian bizi izan zituenak gogora ekarri ditu Jose Mari Velez de Mendizabalek bere 'Hots begi danbolinak' blogean argitaratu duen argazki bitxia erakutsita; garai hartan, Kultura sailburuordea zen aramaioarra

A. Aranburuzabala ARAMAIO

Abuztuan Euskal Herrian izan ziren uholdeen eragina bizi-bizirik zegoela-eta, inaugurazio "ekitaldi apala" eginda zabaldu zuten San Telmo museoan 31. Donostia Zinemaldia. Gonbidatuen artean zen garai hartan Kultura sailburuorde zen Josemari Velez de Mendizabal, eta hala gogoratzen du egun hori: "Donostiako alkate Ramon Labayenekin eta Hezkuntza eta Kultura sailburu Pedro Migel Etxenikerekin joan nintzen inaugurazio-ekitaldira. Eusko Legebiltzarreko lehen gobernua osatu berri zegoen eta euskal zineari eite ematea eta karrilean ipintzea egokitu zitzaigun. Gure departamentuan buru-belarri sartu ginen lantegi horretan eta ekoizpen dezente bultzatu genituen, esaterako, 1983ko Zinemaldiko Sail Ofizialean *La conquista de Albania* (Alfonso Ungria, 1983) filma estreinatu genuen. Geroago, Berlingo jaialdira eraman genuen Ungriaren filma,

baita *La muerte de Mikel* (Imanol Uribe, 1984) ere. Garai hartan oso sendoa zen gobernutik euskal zinemari ematen zitzaion bizitza eta indarra. Guzti horren zurrumbiloaren erdian egotea tokatu zitzaidan, eta garai gogorak izan ziren arren, orokorrean, oroitzapen ederrak ditut". Inaugurazio ekitaldiaz gainera, hurrengo egunetan ere zinema jaialdian egotea egokitu zitzaion Velez de Mendizabali. "Gure esku zegoen euskal zinea bultzatzea eta, derrigorrean, han egon behar ginen. Garai hartan Pilar Miro zen Espainiako Zinema Elkarteko zuzendaria eta harekin eskuz esku lan egitea egokitu zitzaidan; Berlinera ere elkarrekin joan ginen".

ERATU BERRI ZEN EUSKAL GOBERNUAK ZINEMAGINTZAREN ALDEKO APUSTU "HANDIA" EGIN ZUEN

Orduko haziaren fruituak

Gaur egun zinemagintza kontuak horren gertutik jarraitzen ez baditu ere, atzera begiratuta, euskal zinemagintzak gaur egun duen oparotasuna aurretik egingako lanak lagunduta izan dela gaineratu du: "Guk irekitako bide hartatik abiatuta martxan da makinaria eta mundu mailako zinema industrian gero eta toki zabalagoa du euskal zinemagintzak. Azpiegitura ere askoz handiagoa da gaur egun; izan ere, lehen Madrilera edoartzelona jo behar zen ekoiztera eta gaur egun ez da derrigorrezko baldintza hori".

1972ko Zinemaldiko bizipenak Joxe Arantzabal arrasatearrak ere bere *Faroa* blogean ekarri ditu 1972an egin zuten zine-jaialdiko bizipenak, asteon, gogora. "Lagun batzuk joan ginen Astoria zinema aretora *Frenzy* (Alfred Hitchcock, 1972) filma ikustera. Erabat liluratu ninduen hilketa gertatu ondorengo plano luzeak".

Goienakideen txokoa

IRAILKO IRABAZLEAK

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Alberto Moncayola Beain (Bergara)
Garbiñe Beitia Baños-Antigua (Arrasate)
Nagore Urzelai Sanz (Bergara)

GOIKO BENTA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Miren Garcia Mercader (Arrasate)

SIRIMIRI JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Aitzol Lopez de Munain Ortubai (Arrasate)

KOBO NIA LIBURU-IRAKURGAILUA
Garazi Larrea Zumelaga (Antzuola)

REALAREN ETA GRANADAREN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK
Josu Toledo Aranguren (Antzuola)

REALAREN ETA ATHLETICEN ARTEKO DERBIRAKO SARRERAK
Maialen Legorburu Larrea (Aretxabaleta)

REALAREN ETA GETAFEREN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK
Amaia Iñarra Murua (Oñati)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Edurne Etxeberria Agiriano (Oñati)

SARIAK JASOTZEKO:

Antzikutzeko sarrerak. Goiena Kizuko txartela eskutik bira serara izango dituzue. Antzikutzeko txartelarekin, Sarrak hiru hilabeteko epean izango dituzue. **ARRIKRUTZ KOBIAK.** Aretxabaletan, Oñati 9:43:00-20:00. Ordutegia: asteartetik igardera 10:00-17:00 (puzteko dituzue txartelak). Hurrengo denboraldian. **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin. Harreman dendera. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendera. **Liburu-irakurgailua,** zatuz GOIENAREN egoitzara. Serio jasotzeko. **BAZKIDAREN TXARTELA** eskutik edota **BAZKIDE ZENBAKIA** atzera eman behar da. **GOIENA** Dikore Lantegiak 31. Arrasate. 943 25 05 05. Ordutegia: asteleheneretik egunero: 09:00-18:00. Eguzkitzetan: 08:00-14:00

Realaren eta Mallorcaren arteko partidarako sarrerak **futbol zelaiko tokirik onenean**



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Mallorca norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuzen eta zuzenarekin beste lagun batek: **Real Arena futbol zelaiko tokirik onenetik.** Partida umiaren 21ean, 14:00etan, izango da.

Parte hartzeko azken eguna: urriak 15



Irabazi bi lagunendako otordua

ZELAI ZABAL JATETXERARI ESKER

Egiritu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu pertel! Parte hartzeko azken eguna: urriak 3.



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



'Goiena app' -a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 45 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

ESKER ONA

**Arrate Garate Juaristi**

2023ko irailaren 20an hil zen, 65 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztiok. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko irailaren 29an.

ESKER ONA

Carmen Iñarra Lizarralde

2023ko irailaren 20an hil zen, 96 urte zituela.

Ezinbestez gure ondotik alde egin dozun arren, zure oroitzapen goxua geratzen jaku hemen. Patxo handi bat, Tia Carmen

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztiok. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko irailaren 29an

OROIGARRIA

Mertxe Lizarra Maiz

Máximo Elorzaren alarguna



2023ko irailaren 22an hil da, 78 urte zituela.

*Nere hortzetan itzaliko den azken antzia beste batenetan loratuko den lehen irria izango da.*Familiaren partetik.
Oñatin, 2023ko irailaren 29an

URTEURRENA

**Jesus Velar Gorosabel**

2022ko irailaren 29an hil zen, 90 urte zituela.

Beti gure bihotzean

Urteurrenako meza domekan izango da, urriaren 1ean, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2023ko irailaren 29an

URTEURRENA

**Kontxi Otxoa de Angiozar Atxotegi**

2022ko irailaren 28an hil zen, 77 urte zituela.

Beti gure bihotzean

Urteurrenako meza domekan izango da, urriaren 1ean, 11:00etan, Angiozarko Mikel Goiangeruaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Angiozarren, Bergaran, 2023ko irailaren 29an**Oroilore**Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu*Gari deitu zuzenean edo, nahizgo baskara, jakinarazi zuten aregura-konpainari gurekin nahi dituzela agurtu nahi dituzena.**Marioren, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotza sendatzeko bala dutes horietakoak. Guk baditugu gorleku zuzentzeko, gure beharra ducenerako.***Mario, Iban eta Maribi**Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

HILDAKOAK

Jose Mari Atorrasagasti Etxabe. Santanderren, irailaren 12an. 71 urte.**Miguel Conde Palomero.** Arrasate, irailaren 14an. 90 urte.**Rafael Moya Garcia.** Arrasaten, irailaren 16an. 88 urte.**Paquita Manso Diez.** Arrasaten, irailaren 17an. 76 urte.**Eugenio Elkorobarrutia Guridi.** Arrasaten, irailaren 17an. 84 urte.**Josefina de la Fuente Gomez.** Arrasaten, irailaren 18an. 76 urte.**Ixabel Aranguren Lizarralde.** Arrasaten, irailaren 18an. 69 urte.**Justa Fernandez Novoa.** Bergaran, irailaren 18an. 89 urte.**Andres Bengoa Ezkibel.** Arrasaten, irailaren 18an. 90 urte.**Julian Vallejo Fernandez.** Zumarragan, irailaren 19an. 73 urte.**Carmen Iñarra Lizarralde.** Bergaran, irailaren 20an. 96 urte.**Arrate Garate Juaristi.** Bergaran, irailaren 20an. 65 urte.**Ana Otondo Ibarbia.** Arrasaten, irailaren 21ean. 95 urte.**Mertxe Lizarra Maiz.** Oñatin, irailaren 22an. 78 urte.**Isidora Barbero Barbero.** Arrasaten, irailaren 22an. 78 urte.**Maria Jesus Viamonte Pardo.** Arrasaten, irailaren 22an. 79 urte.**Maria Nieves Goitia Arabaolaza.** Madrilen, irailaren 15ean.**Tomas Santa Cruz Egurrola.** Antzuolan, irailaren 21ean. 70 urte.**Jesus Aranzabal Ojanguren.** Bergaran, irailaren 27an. 83 urte.**Angel Salillas Samames.** Bergaran, irailaren 27an. 78 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 29 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Zapatua, 30 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

Domeka, 1 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

Astelehena, 2 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30

Martitzena, 3 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

Eguaztena, 4 JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

Eguena, 5 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 09 74

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 29 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Zapatua, 30 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Domeka, 1 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Astelehena, 2 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Martitzena, 3 ESTELLA: Matxiategi 3 / 943 76 19 63

Eguaztena, 4 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Eguena, 5 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 29 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Zapatua, 30 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Domeka, 1 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Astelehena, 2 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Martitzena, 3 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

Eguaztena, 4 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Eguena, 5 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2023 bukatu arte: SANCHEZ ALVAREZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

BERGARA GAUEZ EGUNERO



(22:00etatik 09:00etara)

2023 bukatu arte: MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

BERRI-ZAKUA

**Rosa Mari eta Pedro**
Bergararrek hilaren 27an bete zituzten 61 urte ezkondua. "Zorionak, etxekoan partez".**Juanjo eta Cari**
Aretxabaletarrek urrezko ezteiak beteko dituzte urriaren 6an. "Zorionak, familiaren partetik".

ASTE A GOIENA TELEBISTAN

**ERROSARIO BIXAMONA ZUZENEAN**

Oñatiko jaietako azken egun koloretsua kaletik jarraitzeko aukera. Kuadrillen mozorroak ikusi eta beraiekin berba egiteko aukera.

'Bereziak' Astelehena, 13:30ean

**ERRUGBI TALDEEN AURKEZPENA**

Arrasate Rugby Taldeak 2023-24 denboraldirako dituen taldeen aurkezpena eta protagonisten berbak jasoko ditu Xabi Urzelaiak.

'Harmailatik' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30.

**ARETXABALETAKO SANMIGELEN LABURPENA**

Asteburuko ekitaldietan jasotako irudiekin eta protagonisten berbeekin saio berezia egingo dute.

'Jaiak' Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30

**OÑATIKO JAIEN ERREPASOA**

Danborrada, Herri Eguna, herri kirolak, mozorro eguna... Horietan guztietan jasotako irudiak eta protagonisten berbak.

'Jaiak' Eguztana, 19:00, 21:00 eta 23:00

**AMAIA ARRUABARRENA-ARISTORENA ZIENTZIALARIA**

Amaia Uribe kazetariak elkarrizketatuko du EHUKO irakasle eta zientzialari donostiarrak.

'Elkarrizketa' Eguena, 19:30, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 29**OÑATI Oñatiko jaiak**

San Migel eguna. Informazio gehiago 28. orrian.
Oñatin.

BERGARA Angiozarko jaiak

11:00etan, meza; 12:30-14:30 eta 16:30-18:30, puzgarriak; 19:00etan, txokolate-jana; eta, 20:00etan, San Migelen igoera.
Angiozarren.

ELGETA Errekreazio tailerra

Memoria Egunaren baitan antzeztutako bisita gidatua prestatzeko.
Espaloian, 18:00etan.

ARETXABALETA Sanmigelak

Egitaraua osorik 16. orrialdean.
Aretxabaletan.

ARRASATE 'Where do you live?' antzezlana

Mousy eta Lindaren abenturak, 9 hilabete eta 4 urte arteko umeendako, Kids&Us Arrasateren eskutik
Euskal Herria plazan, 18:00etan.

ARRASATE Maritxu Kajoi: Nobenaixua

AGAKO omenduko du Maritxu Kajoi komisioak, Arrasaten egiten duen lanagatik. Gerturatzen diren guztiei gazta eta ardo eskainiko diete.
Maritxupean, 18:30etan.

ARRASATE Dantzaldia

Portalo Kultur Elkartearen eskutik, irekia herritar guztiendako.
Kulturolan, 18:30etan.

ARRASATE Garagartzako jaiak

19:00etan, ikurrinaren igoera eta etxafuegoak; 19:30etan, buzkantza jana; 20:00etan, Arrasateko gaitariak; 22:00etan, Kontralde, Oihu!, Assata eta No Somos Cicatriz taldeak; eta 02:00etan, berakatz zopa.
Garagartzan.

ARAMAIO Etxaguengo jaiak

19:00etan, hasiera; 21:00etan, bertso-afaria, Millan Telleria eta Arkaitz Estiballesekin; eta afal ostean, opari ezkutuaren zozketa.
Etxaguenen.

ELGETA Gari zuzenean

Goibeko Euskatzaleen Topaguneak gonbidatuta. Sarrerak, zortzi euro (Goibekoko bazkideek, bost euro).
Emakume Eresistenteen plazan, 20:00etan.

ZAPATUA 30**OÑATI Oñatiko jaiak**

Herri Eguna. Informazio gehiago 28. orrialdean.
Oñatin.

ARAMAIO Etxaguengo jaiak

09:30etan, kanpai errepika; 12:00etan, meza; 16:45ean, mus txapelketa; 17:00etan, meza neska-mutikoentzat; 22:30etan, DJ gaua; eta 23:00etan, bolo txapelketa irekia.
Etxaguenen.

ARETXABALETA Sanmigelak

Egitaraua osorik 16. orrialdean.
Aretxabaletan.

ESKORIATZA Bolibar elizateko jaiak

10:00etan, gazteen pilota partiduak; 10:30etan, umeentzako jolasak; 12:00etan, meza; 12:30etan, nagusien pilota partiduak; 14:30etan, bazkaria; 16:00etan, haurrentzako ginkana; 17:30etan, txapel jaurtiketa lehiaketa; eta Moto.
Bolibar elizatean.

ARRASATE Txalaparta Festa

11:00etan, diana Goikobalutik, Altamiratik eta San Kristobaletik; 12:00etan, tailer herrikoia; 13:00etan, irrintzilarien erakustaldia; 14:30etan, bazkaria; 17:30etan, 30 urtez enbor beretik kalejira; eta 20:00etan, Kimu taldearen emanaldia.
Arrasaten.

ARRASATE Garagartzako jaiak

11:00etan, diana eta puzgarriak; 12:30etan, artile mozketaren erakustaldia; 15:00etan, paella jana; 16:30etan, jolasak zaldi eta poniekin; 17:30etan, Aramaioko bertsolarien saioa; 20:30etan, Dj Goiko; 22:00etan, lamiaren etorrera, eta 23:00etan, Dj Goiko.
Garagartzan.

ELGETA Intxorta 1937, aurkezpenak

Beste alde. Gizona ez den hori dokumentala eta Angiozar 1936. gerrateko kontuak liburua aurkeztuko dituzte.
Espaloian, 12:00etan.

ARAMAIO Alaiak elkarteko bazkideen eguna

12:00etan, meza Bizente Goikoetxea abesbatzak lagunduta; 13:00etan, ongietorria, bertsoak eta dantzak; 13:30ean, Txotx!, pintxo eta elkar agurtzea; 14:30ean bazkaria; eta, 16:30ean, lau bazkideri omenaldia.
Kiroldegian.

ARRASATE Gazte Tour kontzertua

Mirua, DJ Kiliki Frexko eta Nhil taldeen emanaldia.
Monterron parkean, 19:30ean.

DOMEKA 1**OÑATI Oñatiko jaiak**

Errosario Eguna. Informazio gehiago 28. orrialdean.
Oñatin.

ELGETA Bisita gidatua Intxortako frontea ezagutzeko

Izena emateko: 943-79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.

ARETXABALETA Sanmigelak

Egitaraua osorik 16. orrialdean.
Aretxabaletan.

ARAMAIO Etxaguengo jaiak

10:00etan, kanpai errepikak; 12:00etan, puzgarriak; 12:45ean, erretiratuendako luntxa; 13:00etan, herri bolo txapelketa; 16:45ean, briska txapelketa; 17:00etan, umeendako puzgarriak eta ohe elastikoa; 17:30ean, umeendako txokolate-jana; 18:15ean, gazte bolo txapelketa; eta 19:00etan, jaien amaiera.
Etxaguen, Aramaio 10:00etan

ARRASATE Garagartzako jaiak

11:00etan, diana; 11:30etan, umeendako jolasak eta buruhandiak; 12:00etan, meza;



GARI

ELGETA Gari zuzenean

Legazpiko musikariak bakarrik egingo du emanaldia. Intimoa izango ei da, Gibson gitarraren laguntzarekin. Sarrerak salgai daude zortzi eurotan, eta Goibekoko bazkideendako bost eurotan.
Gaur, egubakoitza, Emakume Erresisten plazan, 20:00etan.

12:30ean, euskal dantzak;
13:00etan, luntxa; eta 15:00etan, jaien amaiera.
Garagartzan.

ESKORIATZA Bolibar elizateko jaiak

11:00etan, meza; eta 11:30ean, luntxa.
Bolibar elizatean.

ANTZUOLA Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna

Elkarretaratzea egingo dute.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna

Elkarretaratzea egingo dute.
12:00etan, manifestua irakurri; eta 12:30ean, hegaluze pintxoak eta Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.
Herriko Plazan.

ASTELEHENA 2**OÑATI Oñatiko jaiak**

Errosario Bixamona. Informazio gehiago 28. orrialdean.
Oñatin.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna

12:00etan, adierazpena irakurri eta ostean, salda, txorizo pintxoak eta kantaldia; eta 19:00etan, *El viaje de Harold* pelikula.
San Martin plazan, 12:00etan.

ARETXABALETA Odol ateratzea

Herritar guztiei egin diete dei. Bereziki lehen aldiz odola eman gura dutenei.
Durana kalean, 16:45ean.

ANTZUOLA 'Etorkizuneko hilerria marrazten' gogoeta parte-hartzailea

Gaur egingo dute lehenengo saioa. Irekia, herritar guztiendako.
Olaran etxean, 18:00etan.

MARTITZENA 3**ARRASATE Eneko Landaburu medikuaren hitzaldia**

Bizi-higienearen ikuspegitik, jendartean osasunaren autogestioaren inguruko jakintzak zabaltzeko helburuarekin egingo du berba.
Kulturaten, 18:30ean.

BERGARA Adineko pertsonen kontseilua

Bergarako kontseiluaren araudiaren aurkezpena eta mahai ingurua Arrasateko, Amurrioko eta Zumarragako adineko pertsonen kontseiluko kideekin, eta ostean, luntxa.
Irizar jauregian, 18:30ean.

EGUAZTENA 4

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

ARRASATE 'Euskalia' liburua aurkezpena

Mikel Alvarez egilea egongo da ekitaldian.
Irati tabernan, 19:00etan.

BERGARA 'Passages' pelikula

Zineklubean, jatorrizko bertsoan eta azpituarekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 5**BERGARA Bergara Oinez**

Erretiratuen ibaldia.
Agorrosinen, 10:00etan.

BERGARA Eneko Landaburu medikuaren hitzaldia

Bizi-higienearen ikuspegitik, jendartean osasunaren autogestioaren inguruko jakintzak zabaltzeko helburuarekin.
Kartzela zaharrea, 18:30ean.

ZINEMA**BERGARA****SEMINARIXOA**

El viaje de Harold
Domeka eta astelehena: 19:30.
Salta!
Domeka: 17:00.

GASTEIZ**FLORIDA**

Barbie
Egubakoitza: 17:00.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.
Campeonex
Egubakoitza eta astelehena: 17:00.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00.

Cerrar los ojos

Egubakoitzetik domeka: 17:30, 21:00.
Astelehena: 17:15, 20:30.
Eguaztena eta eguena: 19:30.

El osito Boom

Zapatua eta domeka: 12:00.

El sol del futuro

Egubakoitzetik domeka: 17:30, 19:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30.
Golpe de suerte
Egubakoitzetik domeka: 19:00, 21:30.
Astelehena: 19:00, 21:00.
Eguaztenetik eguenera: 17:00.

La ternura

Egubakoitzetik domeka: 19:15, 21:30.

Astelehena: 18:45, 21:00.

La voz de sol

Egubakoitza: 19:30, 21:45.
Zapatua eta domeka: 11:30, 19:30, 21:45.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Misterio en Venecia

Egubakoitzetik domeka: 19:45, 22:00.
Astelehena: 19:45.
Martitzenetik eguenera: 17:15.

Monstruo

Egubakoitzetik domeka: 19:30, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

Ninja turtles

Zapatua eta domeka: 12:00.

ARETXABALETA Literatura solasaldia

Maddi Ane Txoperenaren *Ez erran inori* liburua gainera, Mikel Antzak gidatuta.
Liburutegian, 19:00etan.

ARRASATE 'Su festak' liburua aurkezpena

Jon Urzelai egilea egongo da ekitaldian Kooltur Ostegunak ekimenak gonbidatuta, denboraldiari hasiera emateko.
Kulturaten, 19:00etan.

BERGARA 'Trapos' antzezlan

Pertsona Nagusien Nazioarteko Egunaren harira.
Seminarixoan, 19:30ean.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Bengo

Popa eta musika urbanoa uztartzen dituen proiektu oinarria.
Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 6**ARRASATE Maritxu Kajoi**

12:00etan, txosnagunearen irekiera; 17:00etan, aisialdi eskaintza hezitzailea, Jokin Zaitegi plazan;

19:00etan, Oria txaranga; 20:30ean, Maritxuri lore-eskaintza Herriko plazan; 21:00etan, elektro-txarangarekin kalejira; 23:00etan, dantzaldia Luhartz taldearekin; eta 01:00etan, Dj Karapaixoren emanaldia.
Arrasaten.

OÑATI Odol-ematea

Aurrez hartu behar da ordua, 943-00 78 84 telefonoan.
Enpresagintzan, 16:30ean.

ARAMAIO Untzillako jaiak

19:30ean, jaien hasiera eta kanpai errepikak; eta 21:00etan, bertso-afaria, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Xabi Igoa bertsolariarekin.
Untzillako elkarteak.

ZAPATUA 7**OÑATI 'Naturaren erritmoetara elikadura, natura eta ongizatea uztartuz' tailerra**

Amaia Diaz de Monasterioguren eta Amaia Aierbe nutrizionistekin. Izena emateko: info@amaianutrizioa.com edo 651 70 17 41.
Natur eskolan, 11:00etan.

ARAMAIO Untzillako jaiak

12:00etan meza; 14:00etan, auzo bazkaria elkarteak; 16:00etan, mus txapelketa; 17:30ean, Txan magoa; 18:30ean, txokolatada; 20:30ean, parrilla zerbitzua elkarteak; 22:30ean, dantzaldia; eta 23:00etan, 39. bolo txapelketa.
Untzillan.

ESKORIATZA 'Rompiendo armarios desde la década de los 70' hitzaldia

Imanol Alvarez Gartzia egingo du berba, GayLur elkarteak gonbidatuta. Sarrerak, hiru euro.
Kultura etxean, 17:00etan.

OÑATI Ageriko margo lehiaketako erakusketa: azken egunak

Gaur eta bihar egongo da aukera margolanak ikusteko. Tartean daude saria merezi izan zuten Xanti Ugarteren, Jose Reyesen, Javier Igoaren, Xan Urteagaren eta Eñaut Uribesalgoren margolanak.
Kultura etxean, 18:00etan.



AZKEN BERBA

MIKEL ARREGI
ASKASIBAR

Badatoz

Zalantzarik ez izan: azken urteotako ikasturte politiko beroena izango da hasi berri duguna. Datozen asteetan Espainian izango den inbestiduraz gain, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak ere datorren uda aurretik dira egitekoak.

Horien data jakin gabe ere, badakigu Legebiltzarrerako hauteskundeek ikusmin handia piztuko dutela. Pasa den maiatzean eta uztailean EAJk lortutako emaitza gazi-gozen ostean, eta EH Bilduk aspaldiko babesik zabalena jaso eta gero, jeltzaleek kezkatuta hasi dute ikasturtea. Bada, eta oraindik haren hautagaitza argitu gabe dagoen artean, Urkullu lehendakariak euskal sindikatuak jomugan jarrita eman du bere hauteskunde estrategiaren berri: "Aski da gizartearen egonezina sortzearekin. Gure bila datoz, gure zain egon dira eta badatoz", esan berri du Alderdi Egunean.

Jeltzaleen diskurtsoak batuko duen uztaren zain, aipagarria da greba eta mobilizaziotarako arrazoi ugari daudela gurean. Tartean, EITBko irratiak greban gaude, 13 urteren ostean gure hitzarmenak berri gabe jarraitzen duelako. Beste askok bezala, guk ere egonezina pizteko borondaterik ez dugu, dagokiguna jasotzekoa besterik ez.

BUKATZEKO



Aioiai bideoklipa grabatzeko prozesuan ateratako argazkia. NEOMAK

Soinu urbanoei leku egin die Neomak taldeak

Edozein harremanetan komunikazioak duen garrantzia oihukatzen dute 'Aioiai' kantuan eta bideoklipetan. Azken hori Muskizen eta Erandion grabatu dute Ane Berriotxoaren gidaritzapean, Paula Bravoren koreografiarekin

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE
"Hitza da baldintza, aioiai, harreman batean; ez duzu lekurik nire bidean" oihukatzen dute Neomak taldekoek *Aioiai* kantuan. Izen bereko bideoklipa ere kaleratu dute. Kantua entzun eta bideoklipa ikusi ostean, garbi geratzen da fusioaren aldeko hautua egin dutela oraingoan. Trikiti eta pandero doinuak

soinu urbanoekin nahastu dituzte. "Musika tradizionala da gure oinarria, baina ahalegintzen gara beste doinu mota batzuekin nahasten. Oraingo honetan agerikoagoa da fusio hori. Bai doinu eta baita bideoklipetan ere", esan du taldeko kide Leire Etxezarreta arrasatearrak.

Bideoklipa Muskizen eta Erandion grabatu zuten Ane Berri-

txoaren aginduetara. Neomak taldeak dantza egiten dute bideoklipetan. Dantza urbanoa hori ere. "Egia esan, dantza egitea berria zen guretzat. Paula Bravok egindako koreografia erabili dugu. Harekin ikasi ditugu pausoak", kontatu du.

Eta emaitza biribila izan da. "Gu oso pozik gaude, eta feedback oso ona jasotzen dihardugu. Egia

esan, kalitatezko kantua eta bideoklipa egin ditugula uste dugu".

Letra zainduak

Kantuen letrak dira Neomak taldearen ikurretako bat da. Beti letra zainduak. Errepresioari, emakumeen iraultzari, arbasoei... abestu diete. Oraingo honetan harreman batean komunikazioak duen garrantzia ipini dute fokua. "Oro har, harreman baten zaintzari buruz egiten dugu berba. Askotariko harremanak eta etiketak gabekoak aldarrikatzen ditugu, behin eta berriz, baina, horietan guztietan, komunikazio ona ezinbestekoa da", azpimarratu du Etxezarretak.

Asiara

Kantu berriak izan duen harreman beroarekin, Hego Korea eta Japoniara joango dira hurrengo astean, Sua taldekoekin batera. Beste urrats bat orain arteko ibilbidean. Guztira, bost emanaldi egingo dituzte han. Lehen, urriaren 5ean Seulen. "Oraindik sinistu ezinik gaude. Disfrutatzeke eta ikasteko bidaia izango da. Beste kultura batzuk ezagutzeko aprobetxatuko dugu".

Martxora arte geld

Asiatik bueltan helduko zaie atseden hartzeko unea. *Ura bere bidean* kontzertuan parte hartu ostean, martxora arte kontzertuak etengo dituzte, sorkuntzari lehentasuna emateko. "Orain arte, naturalki sortu eta etorri den guztiari baietz esan diogu. Ez dugu tarterik hartu denborak markatzeko, eta kantu berriak sortzeko tartea hartuko dugu, indartsuago itzultzeko".

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

ERROSARIXO BIXAMONA
ZUZENEAN
OÑATIKO SAN MIGELAK

GOIENA TELEBISTAN ETA
'GOIENA.EUS' ATARIAN
URRIAREN 2AN, ASTELEHENEAN, 13:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

